

GAUR sci EUSKARA GAUR



Handwritten text in Basque script, appearing as a dense block of cursive writing at the bottom left of the page, partially obscured by the pencil tip.

96
41

Y09
UBU
EUS

GAUR taldea ezaguna da Gipuzkoiak batez ere «Así está la Enseñanza Primaria» Lehen Mailako Irakazkintzari buruzko liburua argitaratu zuenetik. Donostiako talde gazte honek soziologia eta ekonomiari buruzko estudioak egiten ditu eta orain LUR-en argitaratzen den hau Elgoibar, Errenderia eta Pasaiako herrietan egiten ari den oinarritzko estudio soziologikoetarako egin diren inkestetatik, euskarari buruzko taulak aprobetxatuz egina da. Elgoibar, Errenderia eta Pasaiako zeintzuk, noiz eta nola mintzatzen diren euskaraz azaltzen digute.

GAUR-ekoek taulak ia soilki azaltzen dituzte, hauek ateratzeko erabili duten metodologija xeetasun guziarekin esplikatu. Datuen interpretatzea irakurleak egin beharko du beraz, bakoitzak bere iritzira, ez GAUR-ekoek eta ez LUR-ekoek ere, ez baitira beren talde interpretazioa emateko erresponsabilitatearekin ikusten. Hori bai, talde batekoek egiterakoan eta besteek argitaratzerakoan, metodologiaren, lanaren zintotasunaren sinetsa ematen dute.

Uste dugu lana interesgarria dela eta Euskal Herri osora zabaltzea mereziko lukela, nun geran jakiteko, horrela euskararen aldeko lanean biderik egokiena aukera dezagun.

1971 - Uztaila

Hastapenak - 10

EUSKARA GAUR

GAUR S. C. I.

LUR editoriala

Villa Zutik, Paseo Arbola, Donostia

Inprentatzen du:

Itxaropena

Biktor Pradera, 2 - Zarautz

D. L. S. S. 397/71

Sarrera

Euskaltzaindiak Gaur-i euskeraren egungo enpleguari buruzko estudio bat gomendaturik du.

Lehen pauso bezala, asmo zabalago batez Elgoibar eta Errenderian egin behar izan ditugun inkesta batzutan euskerari buruzko zenbait galdera sartu dugu. Konkretoki, herri bakoitzeko «Plan de Ordenación Urbana» berria prestatzeko beharrezko ziren estudio sozio-ekonomikoak egiterakoan.

Sentsu honetan, lan hauk enkargatu dauzkiguten elkargo eta pertsonen laguntza eta jestioak eskergarri direla uste dugu, zeren ez baitute «Plan General»a osatzeko beharrezko den informazioa bakarrik hornitu, baizik hemen agertzen dugun lan hau bezala, herriarentzat oso interesgarri den beste informazio soziologiko osagarri bat.

Lan hau egiteko, lehen aipatutako estudioa egiterakoan erabiliko ditugunei buruz, bide oso desberdinez baliatuko gara. Hura, Herri osoan egingen den inkesta batetan oinarrituko da eta ondorioa taula bilduma bat eta metodologiaren esplikazio bat baizik

ez da izanen, datoak komentatu gabe. Oraingo honetan datoak guti dira eta komentarioak, aldiz, asko.

Informazio kuantitatibo guti dago euskeraren egungo bizitzeari buruz. Erraztasun askorekin esan ohi dugu «euskera jende gutik daki», edo «ez gara asko dakigunok», edo «dexentek dakite baina guti erabiltzen dute», edo «euskaldun askok gaizki erabiltzen du», etab., baina afirmazio hauek guztiek ez dute inolako oinarri estadistikorik izaten, eta empirismo indibidual honek taxuketa oker asko erakartzen du.

Ez dugu lan honekin iluntasun horiek garbitzeko asmorik, oso desberdin diren eta segidan adieraziko ditugun bereizkuntzak dituzten bi herriri baitagokio soilik. Lanaren errepresentatibitatea Gipuzkoako euskalkiari buruz ere, xipi da, geroago ikusiko dugunez. Ezin daiteke, beraz, hemen azaltzen dugun inbestigazioa estrapola eta Gipuzkoa osora hedatu.

Dena dela, diseinu hauek bi ondorio ekartzen daukute euskeraren ezaguera kuantitatiboari buruz.

1: herri bakoitzeko euskalduntasuna, euskera zenbat erabiltzen den eta hizkuntza honi buruz jendeak duen jokaera. Informazio honek Elgoibar eta Errenderikoentzat du batez ere garrantzi, baina ez da hortik segitzen bertako ez direnentzat interesgarri ez denik.

2: euskera mintzatuari buruzko zenbait «jokae-ra erregelak» —nolabait deitzeko— edo «legek» nahiago bada, izan dezake balio orokorrago bat, nahiz ez zenbatusanean (fenomenu mugatu baten propor-

ziotan), bai behintzat oinarrian. Irakurleak berak ikusiko du bere kabuz, datozen orrialdeetan, eta ondorio bakoitzari bere ustez duen balioa eman diezakeo, esaminatzen den herri bakoitzaren berizitasunak eta tauletan presentatzen diren oinarrizko datoak kontuan edukirik.

Oinarrizko informazioa, beti azalduko da, taula haundi eta mami gutikotan ezik, hauk laburtu eginen baititugu informea gehiegi ez luzatzearen. Dena dela, herriotako bi Aiuntamentuek dituzte ordenadoretik atera den dato multzo osoa. Taula gehienak hemen sartzeak abantaila bat du: irakurleak gure interpretazioak alda edo, agian, heda ditzake, guk, labur beharrez aztertzen ez ditugun xeheak sakonduz.

Gure lanak alde kuantitatiboak ukituko ditu soilik (zenbat euskaldun dagoen, zenbatek enplegatzen duen euskera, zenbatek nahi duen eskoletan sar dadin, etab.) eta ez euskalki gaiak. Esanen dugu, adibidez, zenbat euskaldun dagoen Elgoibarren, haietatik zenbat den gipuzkoar eta zenbat bizkaitar, etab. Honek idearen bat eman daukegu erabiltzen diren euskalkiei buruz, baina ez gatzazkio honi gai bezala lotuko.

Informazioa bi herri hauetako populazioari egingako inkestari erantsi genizkion euskerari buruzko zazpi galderetan oinarritzen da. Lehendabizikoan euskera ote zekien galdetzen genion eta erantzunak hurrengo kapituluaren oinarri izanen dira; bigarrenan ea euskera erabiltzen zuen, ondorengo kapituluaz azaltzen denez. Bata eta bestea etxabizitza bakoitzeko bizilagun guztiei dagozkie, hots, haietako

bakoitzari. Beste bost galderak, azken kapituluaren oinarri izanen direnak, inkestatuaren euskerari buruzko jokaera pertsonala aditzera ematen duten iritzi galderak dira. Jokaera hori, nahiz pertsonal den, familiako gainerakoen influentziaren pean aurkitzen da noski.

Gure emanek akats bat dute, alegia, inkesta-tzaileek ez dituztela egiaztatu. Honek garrantzi haundia du: euskera ia ez dakien edo ulertu besterik egiten ez duen pertsona askok ba dakiela erantzuten du, edo elkarrizketetan guti samar erabiltzen duelarik, asko enplegatzen duela esaten du.

Sentsu honetan, euskalduntasunari eta enpleguaren zenbatasunari buruzko informazioa optimista samar datekeela uste dugu. Informazioa zorrozteko, inkestatzaileek pertsonalki neurtu eta egiaztatu behar zukeiten euskeraren ezaguera maila. Hau ezin zitekeen, galderok beste metodologia eskatzen zuen inkesta zabalago batetan sartzen baitziren, esan dugunez.

Dena dela, esan behar dugu egiaztatze honen posibilitetasuna xipi dela inbestigazioa gehiegi garestitu nahi ez badugu behintzat. Gainera, ezin daitezke inolaz ere azken parteko bost galderak egiazta. Inkestatuak esaten daukunarekin konformatu behar dugu. Halaber, ezin dezakegu jakin inkestatuak edo etxabizitzako beste biztanleek erabiltzen ote duten ala ez euskera egunaren harian.

Zazpi galderotatik lehendabizikoa bakarrik egiaztatu daiteke, hots, euskaldun den ala ez, erraztasunez

ala zailtasunez mintzatzen den galdetzen duena. Baina kasu honetan ere inkestatuaren euskalduntasuna nehurtuko lizateke soilik, familiako bakar batena, hots, % 20arena eskas.

Horrela, gaurkoz behintzat, era honetako inbestigaziotarako diru ugaltasunik ez dagoelarik, inkesta guti egiaztaturekin konformatu beharko dugu, inkestatuak bere gogoz ematen daukun informazioari fidatasun nahiko bat emanik, nahiz zuzenki informatzen duenean, nahiz datoak desitxuratu nahi dituenan, nahiz zenbait alderditan bere burua engatzen duenean. Orain arte Gaur-ek egin dituen lanak pentsa arazitzen daukute inkesta direktoa, are egiaztatu gabea, dela dagoen inbestigazio biderik fidagarriena, ongi eramaten denean behintzat. Inkestatuen egiatasuna kasu gehien gehienetan oso garaia dela, osoa ez denean.

Nola nahi ere, birresan nahi dugu kasu honetan, gaia dena delako, behar bada errealitatearen ikuspegi optimistegi datekeela.

Beharrezko da metodologiaren aldetik beste ohar bat egitea: bi herri hauetako eskualde nekazarian ez dugula ia inkestarik egin, eta gauza jakina da hau dela, hain zuzen, eskualderik euskaldunena.

Errenderian, inkesta populazio urbanoari zuzentzen zitzaion hain zuzen. Errenderiak 1970-ean zituena 34.370 biztanleetatik, 33.769 eskualde honetakoak ziren, hots, %98,2-a. Hoiere artean (e ia denak euskaldun datezkeen gainerako 601-ak bazterturik) egin da inkesta.

Elgoibarren, aldiz, hauzo nekazarietako kalean eta inguruko baserrietan ere egin da inkesta. Inkestari buruz hau lizateke Elgoibarko populazioaren banaketa (1970-ean):

	<i>Biztanleak</i>	%
Inkestatua: eskualde urbanoa	12.437	92,0
kale ingurua	541	4,0
Ez inkestatua: baserri apartatuak	541	4,0
Orotara	13.519	100,0

Dato hauekin eta baserri apartatuetako ia biztanle guztiak euskaldun diratekeela gogoan harturik, edozein irakurlek zuzen dezake informazioa eta bi herrien multzo osora zabal.

Esan dezagun azkenik Errenderiako inkesta 1970-aren maiatzean egin zela eta populazioaren %8-a inkestatu zela guti gora behera. Elgoibarkoa, berriz, urte beraren uztailan egin zen, populazioaren %20-ren bat inkestzen zelarik.

ELGOIBAR ETA ERRENDERIAREN BEREZITASUN JENERALAK

Ez ditugu bi munizipio hauk gure gogoari jarraituz aukeratu, ez gara haien errepresentatibitateaz gidatu, baizik, lehen esan dugunez, «Plan General de Ordenación Urbana» berria prestatzeko beha-

rrezko diren estudio sozio-ekonomikoak bi herri hauetan gomendatu zaizkigulago, hain zuzen.

Ondorioak jeneralizatzea eragozten duen mugatze haundi honen gatik, alde zurretik bi puntu jakin arazi nahi diogu irakurleari:

1 — bi herrien arteko gonbarazioa; haien berezitasun nagusien gonbarazioa.

2 — bakoitzaren leku erlatiboa Gipuzkoako munizipioen «euskalduntasun» (1) maila neurtuko lukeen eskalan, eta probintziaren erdimailari buruz.

Lehenengo puntuaren sarreratzat taula xipi honetaz balia gaitzke :

Elgoibar eta Errenderiaren arteko gonbarazioa

Dato mota	Elgoibar	Errenderia
1 — Biztanleak 1970-ean	14.200	34.600
2 — Populazioa eskualdeka (%)		
nekazaria	8,0	1,8
urbanoa	92,0	98,2
orotara	100,0	100,0
3 — Baserri biztanduen numeroa	217	104

(1) «Euskalduntasun» hitzaz herri edo eskualde batetan euskeraz mintzatzen den ala ez adierazi nahi dugu eta «euskalduntasun mailaz» asko ala guti mintzatzen den.

4 — Populazio aktiboa sektoreka (%)				
lehen (2)	5,6		4,9	
bigarrena	74,1		67,2	
hirugarrena	20,3		27,9	
orotara	100,0		100,0	
5 — Alokatuak (%)	84		89	
6 — Populazioa eta inmigratuen %-a				
1940	5.683	—	10.106	—
1950	6.913	21,6	12.784	26,5
1960	10.847	56,9	18.642	45,8
1970	13.219	24,6	34.370	84,4

Ikusten dugunez, Errenderiako populazioa Elgoibarkoaren doublea da.

Bi herriok industriadze prozesoa Gipuzkoan lehendabizi hasi zutenak dira, Elgoibarren espezializazio haundiago bat gertatu zen, makina-lanabesaren industriaren nagusigo nabarben batez. Errenderian, aldiz, fabriken produkzioa heterogeneoago da, gehienak sektore kimikokoak, batez ere paper-fabrikak, direlarik.

Azken 30 urteotan inmigrazioa oso haundia izan da bi herriotan. Elgoibarren punturik garaiena 1950-60 urteetan jazo zen eta Errenderian azken 10 urteotan.

Elgoibarren lan-esku espezializatuago bat behar da. Ondorioz, indar gehiago du han Gipuzkoako

(2) Elgoibarren, nekazariak soilik osatzen dute lehen sektorea. Errenderian, sektore honetan %77,8 arrantza dira eta baserriak %22,2 bakarrik.

beste herritatik eta beste eskualde euskaldunetatik ailegatzen den emigrazioak, Errenderian baino.

Bi herriok industriadze bortitzaren ondorioz, lur-lantzak garrantzi guti du, batez ere Errenderian.

Errenderiako eskualde nekazaria, zabal izanik ere, oso guti populaturik dago, baserriak baserri urrundutan barreiatuak bizi dira. Errenderiako baserri eskualdearen buru egiazko eta bakar den Zama-bide hauzok ezik, ez dago benetako hauzok nekazaririk.

Elgoibarko eskualde nekazariak, aldiz, ba du karakter nekazari nabarben duen nukleo edo hauzok, hala nola San Lorenzo, San Migel eta San Pedro hauzok.

EUSKERARI BURUZKO EGOERA JENERALA

Inkestaren bidez analisis zehatz bat hasi baino lehen, eman dezagun, sarrera gisa, Elgoibar eta Errenderiako euskalduntasun mailaren berri laburra.

Bi herriok Gipuzkoakoak dira, Euskal Herriko probintziarik euskaldunenekoak, Gipuzkoa baita zeharo euskal probintziak inguratutakoak dagoen bakarra.

Beste berdintasun bat aipatu behar da ere: Gipuzkoak beste probintziak inguratzen duen mugaren inguruan aurkitzen dira, eta ez Gipuzkoaren barnean.

Errenderia Nafarroako bidean aurkitzen da eta ondorioz hango euskerak Nafarroa-Garaiko euskalkiaren joera du. Elgoibartarrak, izatez gipuzkoar

dirrelarik, gipuzkerarekiko joera duen bizkaieraz mintzatzen dira.

Biok Gipuzkoako ertzetan aurkitzen badira ere, Errenderia Elgoibar baino alderdi erdaldunago batetan dago. Ez gara hemen herriaren beraren euskalduntasunaz mintzo, inguruneko herrienaz baizik. Errenderia, logikoki euskaldun porzentaje apalenetako bat duen probintziaren kapitalari hurbil dago. Gainera, kapitalaren menpe dago zenbait aldetatik. Donostiako industria eskualdearen erdian, Errenderiak harreman asko du Pasaiarekin, eta Pasaia, hura bezala, euskalduntasun urriko herri bat da.

Bestalde, Errenderia, frontierari hurbil, Paris-Madril bide jeneralaren ertzetan, Pasaiko portuaren ondoan, harat-hunat haundiko herri ireki bat da.

Berezitasun guzti horiek ekarri bide dute Errenderiak Elgoibarrri buruz azaltzen duen euskalduntasun maila apalagoa.

Desberdintasun horiek apur bat gehiago zehaztu nahieran, eta, halaber, bi herriok Gipuzkoako multzoaren euskalduntasunari buruz dagokien lekuan ezartzeko, eraskin batetan probintziako munizipio guztien zerrenda emanen dugu, lehen irakaskintzako euskeraz mintzatzen den euskaldunen porzentaia adieraziz. «Así está la Enseñanza Primaria» gure liburuan argitara zen eta, gure ustez, Gipuzkoako herri guztien euskalduntasun gonbaratuaren zenbatasuna agertzen duen taula bakarra da.

Liburu hartan esplikatzen zen bezala, taula hori Gipuzkoa guztiko maisu nazional, erlijios eta pribatu-

tuen artean egindako inkesta batetan oinarritzen da. Inkesta honi haien erdiak bakarrik erantzun zion. Datook, beraz, zenbait akats dute.

Leheniz, ez ziren ikastolak inkestatu, eta honek, euskeraren analisis honetan, desitxuratze berezi bat dakar. Bestalde, zazpi munizipio falta da. Gainera, zenbait dato faltsu da; honela, faltsu da Altzagako umeen erdiak gaztelania baizik ez dakiela eta Aizarnabalen euskeraz soilik ala gaztelaniaz soilik mintzatzen direla. Munizipio bakoitzeko errore maila, haren tamainuaren, inkestari erantzun zioten maisuen numeroaren, eta ihardukitzen zuten zonaren nekazaritasunaren araura neurtzen zen.

Dena dela, informazio hura funtsean nahiko fidagarri dela uste dugu.

Elgoibarren, Errenderian eta Gipuzkoa osoan euskeraz eta gaztelaniaz mintzatzen diren lehen irakaskintzako ikasleen porzentaia.

Hizkuntza	Elgoibar	Errenderia	Gipuzkoa
Gaztelaniaz bakarrik	60,7	77,0	54,1
Gaztelaniaz ongi eta euskeraz gaizki	15,1	5,6	12,2
Gaztelaniaz ongi eta euskeraz ongi	13,6	11,9	17,2
Gaztelaniaz gaizki eta euskeraz ongi	9,6	2,9	13,9
Euskeraz bakarrik	1,0	1,7	2,6
Orotara	100,0	100,0	100,0

Argi dago Errenderia ez dela Elgoibar bezain euskaldun eta halaber, biok Gipuzkoa osoaren erdi-mailatik behera daudela. Hau da hurrengo orrialde-
etan ikusiko ditugun ondorioak probintziaren mul-
tzora jeneralizatzeko entseiu oro eragozten duen da-
torik garbiena. Egoera jeneralaren araura, euskaldun-
tasun maila garaiago bat izanen genukeen Gipuzkoa
osoari dagokionez Errenderia eta Elgoibarreko dato-
etik aterako genukeena baino.

Gipuzkoako 82 munizipioak gaztelaniaz mintza-
tzen den mailaren ordenean ezarriz gero, Errende-
riak laugarren lekua du (Irun, Pasaia eta Donostia
munizipio hurbilak aurretik dituela, hain zuzen) eta
Elgoibarrek 14gna.

Ohar hauk garrantziko dira euskeraren *egungo*
egoera neurtzerakoan, bi herri hauetako datoak Gi-
puzkoa guztira hedatzeko posibletasuna (ikusit dugu-
nez, bidezko ez dena) neurtzerakoan. Ez dira hain
garrantziko euskeraren *etorkizunean* pentsatzen ba-
dugu, orain arteko indar eta influentzien menpe ja-
rraitzen bada behintzat, zeren argi baitago sentsu
honetan etorkizuna Errenderia eta Elgoibar bezalako
herritan, herri industriatutan, erabakitzen dela.

GIPUZKOAN LEHEN IRAKASKINTZAKO IKASLEEK ERABILTZEN DUTEN HIZKUNTZA, MUNIZIPIOKA.

— 1967ko ekaina

— Iturburu: Gaur-en «Así está la Enseñanza
Primaria»

Biztonleok	Munizipiook	gaztelaniaz soilik	g. ongi e. goizki	g. ongi e. ongi	g. goizki e. ongi	Euskeraz soilik
491	Abalzisketa	0,0	0,0	0,0	100,0	0,0
613	Aizarnazabal	11,2	0,0	0,0	0,0	88,8
464	Albiztur	0,0	0,0	0,0	100,0	0,0
1.608	Oriako Alegi	20,5	7,8	19,4	44,5	7,8
328	Alkiza	0,0	0,0	0,0	100,0	0,0
248	Altzaga	44,4	0,0	55,6	0,0	0,0
1.393	Amezketeta	18,6	0,0	21,2	52,3	7,9
10.161	Andoain	71,9	14,5	7,8	5,8	0,0
782	Anoeta	5,7	0,0	69,3	25,0	0,0
2.177	Anzuola	35,2	5,3	44,7	14,2	0,5
210	Arama	35,3	0,0	64,7	0,0	0,0
4.713	Aretxabaleta	47,4	23,6	13,6	12,6	2,6
1.449	Asteasu	5,6	27,7	16,7	36,1	13,9
2.711	Ataun	23,9	0,0	1,8	14,9	57,4
2.546	Aia	9,9	2,0	7,1	67,1	13,9
10.212	Azkoitia	16,8	3,2	29,9	43,6	6,5
10.814	Azpeitia	15,7	3,9	28,2	46,9	5,3
9.458	Beasain	70,0	14,6	9,6	5,3	0,5
398	Belaunza	0,0	0,0	0,0	100,0	0,0
1.169	Berastegi	0,7	0,7	7,2	79,2	12,2
16.223	Bergara	43,7	17,8	23,2	13,9	1,4
506	Berrobi	30,6	9,7	40,3	19,4	0,0
710	Bidegoian	0,0	1,7	16,4	68,1	13,8
3.482	Billabona	11,3	35,7	3,5	38,2	11,3
4.334	Deba	25,3	26,6	6,5	36,2	5,4
38.149	Eibar	62,4	16,6	15,5	4,2	1,3
13.090	Elgoibar	60,7	15,1	13,6	9,6	1,0

1.202	Elgeta	15,2	5,1	65,8	13,9	0,0
31.269	Errenderia	77,9	5,6	11,9	2,9	1,7
1.208	Errezil	0,0	0,0	11,5	45,2	43,3
3.485	Eskoriatza	51,7	0,0	48,3	0,0	0,0
941	Ezkioga-Itxaso	29,9	7,5	32,8	29,8	0,0
375	Elduaian	0,0	6,1	44,9	32,7	16,3
254	Gaintza	0,0	0,0	11,1	80,6	8,3
705	Gabiria	14,8	10,2	37,0	26,9	11,1
2.463	Getaria	18,2	0,4	1,6	77,3	2,5
21.795	Hernani	71,1	11,5	10,6	5,8	1,0
328	Hernalde	3,4	1,7	3,4	84,6	6,9
2.437	Ibarra	32,2	5,6	40,0	20,0	2,2
2.120	Idiazabal	18,9	5,1	44,9	28,7	2,4
1.020	Hiruherrietta	1,7	1,8	17,6	57,9	21,0
42.744	Irun	88,7	6,2	3,9	0,8	0,4
1.156	Isasondo	8,9	0,0	0,0	89,3	1,8
4.016	Lazkao	73,8	10,3	15,3	0,6	0,0
882	Leaburu-Gaztelu	23,3	3,3	6,7	66,7	0,0
8.927	Legazpia	59,9	25,0	11,2	3,9	0,0
1.699	Legorreta	40,7	19,6	31,9	5,3	2,7
3.484	Lezo	40,6	6,6	41,7	7,9	3,2
907	Lizartza	0,0	0,0	0,0	100,0	0,0
21.275	Mondragoe	55,0	23,1	20,6	1,3	0,0
4.863	Motriku	8,4	2,4	66,9	16,4	5,9
1.483	Olaberria	54,3	0,0	18,6	0,0	27,1
10.178	Ondarrabia	53,8	11,9	29,9	4,2	0,2
10.296	Oinati	18,5	42,7	28,9	6,0	3,9
183	Orexa	0,0	0,0	0,0	74,1	25,9
3.639	Orio	23,4	8,5	57,2	10,9	0,0
1.153	Ormaiztegi	10,8	13,5	75,7	0,0	0,0
6.138	Oiartzun	12,7	9,5	12,0	62,9	2,9
19.360	Pasaia	88,6	5,9	5,0	0,0	0,5
5.575	Plazentzi	41,0	38,5	14,5	4,4	1,6
318	Leniz	35,7	0,0	64,3	0,0	0,0
163.924	Donostia	81,9	6,4	7,7	3,5	0,5
1.711	Segura	66,6	0,0	18,5	14,9	0,0
18.320	Tolosa	50,4	10,9	22,3	14,2	2,2
6.051	Urnieta	55,2	7,5	29,4	5,3	2,6
4.295	Usurbil	18,6	8,7	32,4	36,7	3,6
9.102	Ordizi	66,2	15,1	11,5	5,9	1,3

6.006	Urretxu	77,9	12,7	6,6	2,8	0,0
1.952	Zaldibia	24,0	3,3	16,5	51,3	5,0
11.049	Zarautz	27,6	23,5	34,7	12,7	1,5
1.893	Zegama	6,5	4,4	57,9	29,8	1,4
4.500	Zestua	13,2	6,4	20,9	48,1	11,4
1.633	Zizurkil	13,2	9,0	34,0	23,6	20,2
11.503	Zumárraga	72,0	10,1	15,3	2,6	0,0
6.100	Zumaia	41,0	21,8	27,2	9,0	7,0
604.353	Orotara	54,1	12,2	17,2	13,9	2,6

OHARRA: 75 herri hauek 604.353 biztanle dute. Falta diren zazpiren (Aduna, Altzo, Beizama, Zerain, Irura, Larraul eta Mutiloa) 3.133-ak gehitzen baditugu, Gipuzkoako populazio osoa, 1969ko «Padrón Municipalen» araura, 607.486 biztanlekoa da.

Euskeraren ezaguera maila

Kapitulu hau Elgoibar eta Errenderiako populazioei gure inkestan egindako galderetatik batetan oinarritzen da, etxabizitza bakoitzeko bizilagun guztiei zegokien galdera batetan.

Erantzuna kualitatibo da; indibiduo bakoitzak euskeraz mintzatzen dakien ala ez esaten dauku, go-goan hartu gabe ezaguera horretaz asko ala guti baliatzen den, hizkuntza bat ala bestea etengabe erabiltzen duen. Galdera eta erantzunak hauk dira:

Euskeraz mintzatzen zara?

- 1 — normalki
- 2 — zailtasunez, baina mintzatzen da
- 3 — ulertzen du baina ez da mintzatzen
- 4 — ia ezer ez edo ezer ez
- 5 — ezin mintza daiteke

Bostgarren erantzuna oraindik hitzik egiten ez duten haurrei eta defektoren batengatik hitzegin ez

dezaketenei dagokie. Gauzak alferrik ez zailtzeko, gure taula eta iritzietatik kendu egin dugu.

Beste lau erantzunak goitik behera mailakaturik daude. Euskera gehien dakiena normalki euskeraz mintzatzen dena da; zerbait gutiago daki nekez mintzatzen dena eta are gutiago ulertzen duenarik mintzatzen ez dena. Azkenik, hizkuntza hori inolaz ezagutzen ez dutenak, edo, zenbait hitz bakan dakitelarik mintzateko eta are ulertzeko gauza ez direnak laugarren erantzunera biltzen ditugu.

«Euskeraz ondo egin» esaera, kriterio honen araura erabiliko dugu: 1 taldeak 2 taldeak baino gehiago daki eta biok 3 taldeak baino gehiago. Euskeraz «ondo egiten du» edo «ondo mintzatzen da» diogunean, ez dugu akademikoki ala herrikoiki mintzatzen den esaten, ez eta «polit» edo «zatar»-tzat hartutako euskalki batez mintzatzen den, baizik normalki, aise, nekerik gabe, espresio behaztopa berezirik gabe mintzatzen den, ala, alderantziz, behaztopez, eragozpenez, segurtasunik ezaz...

Lau talde horiek izendatzeko erabiliko ditugun perpausa laburrak hauk dira:

- 1 — normalki mintzatzen da
- 2 — zailtasunez mintzatzen da
- 3 — ulertzen du
- 4 — ez du ezagutzen

Euskera «ezagutzen dutenez» ari garenean, hiru lehen taldeaz ari gara, aldez edo moldez euskera ezagutzen baitute; laugarren taldekoez, aldiz, ezin esan daiteke ezagutzen dutenik.

Hiru dira, beraz, euskera «ezagutzen» («dakiten» esanen dugu zenbaitetan) duten taldeak. «Mintzatzen» direnak bi dira, lehena eta bigarrena. Bi taldeok izendatuko ditugu «euskaldun» gure lanean.

Beste bereizkuntza bat erabiliko dugu: «euskeraz ongi mintzatzen direnak» (1 taldea); «euskeraz gaizki mintzatzen direnak» (2 eta 3 taldeak) eta «euskera ez dakitenak» (4 taldea).

Eta erabiliko dugun terminologia zehazten ari garenez, Araban, Gipuzkoan, Nafarroan edo Bizkaian jaio den pertsona oro «bertako» izendatuko dugu eta beste guztiak «inmigratu».

Eta guzti honez gero, has gintezke ondorioak analizatzen. Lehenik bi munizipioen emaitza globalak adieraziko ditugu, zenbat jendek ezagutzen duen, hobeikiago ala okerrago, euskera, eta zenbatek ez duen ezagutzen. Ondoren, talde bakoitza zortzi kriterioren araura banatuko dugu:

- a) irabazien araura
- b) estudio mailaren araura
- d) bizidearen araura
- e) sexoaren araura
- f) adinaren araura
- g) sorlekuaren araura
- h) hauzoaren araura
- i) etxabizitze baserritar edo urbanoaren araura

Euskeraren ezaguera maila Elgoibarren eta Errenderian.

Ezaguera maila	Elgoibar	Errenderia
Normalki mintzatzen dira	53,9	22,3
Zailtasunez mintzatzen dira	2,5	2,7
Ulertzen dute	4,2	6,0
Ez dute ezagutzen	39,4	69,0
Orotara	100,0	100,0
Inkesta numero absolutoak	2.726	2.800

Elgoibarren gaur, populazioaren erdia baino gehiago normalki mintzatzen da euskeraz edo, gure terminologia erabiliaz, euskeraz ondo egiten du, eta alde zuzen edo moldez ezagutzen dutenak % 60 dira. Gainerako % 40k ez du ezagutzen. Populazioaren % 56,4a da euskaldun.

Errenderian % 22,3a mintzatzen da ongi, hau da, populazioaren laurden edo bosten bat eta % 31era heltzen dira nolabait ezagutzen dutenak. Gainerako % 69ak ez du ezagutzen. Populazioaren % 25a da euskaldun.

Gorako taulatik bi ondorio jeneralago atera daitezke:

1) Herri batean nahiz bestean euskera gaizki ezagutzen dutenen porzentaia xipi azaltzen da, ongi nahiz gaizki ezagutzen dutenei buruz. Elgoibarren % 11,0 da eta Errenderian % 28,1.

Uste dugu datu hauek euskeraz mintzatzen direnen artean askok gaizki edo nekez hitzegiten duela dioen uste jeneralak nolabait kontraesatean dutela. Aitzitik, euskeraz mintzatzen den maiorantzak ongi egiten duela dakusagu. «Nolabait» esaten dugu zeren egiaz euskera gaizki ezagutzen dutenen numeroa ez baita ere oso xipi. Areago, Errenderiakoari haundi deritzaioke irakurleen batek. Baina ikus dezagun hurrengo ondorioa.

2) Gaizki ezagutzen dutenen ehuneko askoz haundiago da Errenderian Elgoibarren baino.

Gure estudioan zehar egiazko konstante bat izan denaren lehen zeinua agertzen da hemen: euskeraz gehienik egiten den lekuan egiten da ongienik, aisenik. Interlotura konstant bat azalduko da hizkuntza erabiliaren kopuruaren eta kalitatearen artean (1).

Ondorio honek topiko alfer baten itxura duke, baina halaz ere ez du. Zenbaitek baieztatu euskeraz minorantza xipi kulto baten hizkuntza gerta daitezkeela, herriagandik gehiago edo gutiago islaturik, eta

(1) Aitortzen dugu hitzegiteko erraztasunari kalidade deitzea konbenzionaltasun bat dela, kopuru ere baita (hizkuntza ezagutuaren kopurua, hain zuzen). Halaz ere, ezaguera maila ezaguera kalitate kontsidera daitezkeela pentsatzen dugu (on, erdiko, xar), eta dena dela, terminoak aukeratu gero, gure analisis eta ondorioei zuzen deritzaiegu.

minorantza horrek etorkizuneko mendeak zehar usteldu gabe, kutsatu gabe gorde dezakeela euskera. Iritzi hori eta idealista kutsu biziko antzeko beste zenbait, marjinaturik gertatzen da «asko bizi» den hizkuntza bat «ongi bizi» dela, eta alderantziz, «guti bizi» dena «gaizki bizi» dela frogatzen denean.

Beraz, erabilkuntza masibo eta hedatu bat lagun dezakeen neurri orok (eskoletan ezartzea, alfabetatzea, batasuna, etab.) hitz garbitasun batek baino areago segura dezake euskeraren bizitasuna.

A) IRABAZIEN ARAURA

A-1 eraskinaren azterketak, nola Elgoibarren hala Errenderian, argi nabarmentzen den ondorio batetara heltzera uzten dauku: euskeraren ezaguerak indibiduoaren irabazi mailaren araura haundituz doan harreman bat du.

Nabari da ez dagoela kaso bakoitzean harreman direkto bat, baina termino soziologikotan, egia da euskeraren ezagule gehiago dagoela proportzioz irabazi haundikoen artean xipikoen artean baino.

Gure inkestak baserri alde gehienak alde batetara uzten dituela diogu berriro hemen.

A-1 eraskinetik segitzen da euskera «aberatsen hizkuntza» edo antzeko zerbait dela? Noski ezetz. Horrelako baiezpenei batzuz arrazoibide haur kontrajarri behar genitikeo.

1) zihur aski sektore aberatsetako familiek lehenago ahazten dute euskera herriaren gainerakoek

baino. Hau da hauzi honi buruz izan dezakegun impresio jeneral logikoena.

Goiko parrafoan esandakoa A-1 eraskinetik segitzen denarekin batera gertatzen dela dirudi, eta itxuraz, hura kontraesaten du. Hori jakiteko, A-1 eraskina «bertako»ekin bakarrik birregin behar lizateke. Hots, gure ustez, bertakoen artean haundiago da euskaldunen porzentaia beheko klaseetan goikoe-tan baino.

Baina ez goaz orain horretara, ez baitugu behar dugun taula. A-1 eraskinean esaten dena egia izanik ere praktikan hori gerta daitekeela esan nahi dugu soilik.

Terminologia hau erabiliko dugu:

- A: euskaldunen porzentaia «bertako aberatsen» artean
- B: euskaldunen porzentaia «inmigratu aberatsen» artean
- D: euskaldunen porzentaia «aberatsen totalean»
- E: euskaldunen porzentaia «bertako pobreen» artean
- F: euskaldunen porzentaia «inmigratu pobreen» artean
- G: euskaldunen porzentaia «pobreen totalean»

Bada, guk esan nahi duguna da D G baino haundiago izan arren, A gerta daitekeela E baino xipiago.

Ikus dezagun A-2 eta A-3 eraskinetan bertakoek orotara inmigratuek baino diru gehiago irabazten dutela (2). Honek ondo adierazi duke «bertako abe-

(2) Irabazien mailan, kapa sozialean edo kulturean inmigratuen eta bertakoen artean agertzen diren diferentziak uste baino xipiago gertatzen badira, hemen sortutako inmigratu seme asko bertakotzat azaltzen delako

ratsen» (A) artean euskaldun porzentaia xipi batek, «aberatsen totalean» (D), «pobreen totalean» (G) baino euskaldun porzentaia haundiago bat suposatzen duela, nahiz «bertako pobreen» (E) euskaldunen porzentaia A porzentaia baino haundiago den.

Irakurleren batek konzepto hau argiago ikus nahi badeza, aski duke exenplu numerodun bat hartu eta desarroilatu.

2) aipatu berria dugu bertakoen artean euskaldunen porzentaia beheko klaseetan goikoetan baino haundiago dela dioen posibilitatea. Hain zuzen, hori gertatzen dela uste dugu, baina zehaztasun gehiagoz arakatu beharko lizateke. Dena dela, hipotesis hori baieztuko ez balitz ere, euskera ez lizateke horregatik «aberats hizkuntza» bat, zeren Elgoibarren, adibidez, irabazi haundiko % 88ak ezagutzen badu ere, irabazi oso urriko % 60ak, irabazi urriko % 65ak eta irabazi erdiko % 70ak ere ezagutzen baitu, beraz, herriaren maiorantza nagusiak. Errenderiako proportioekin berdin gertatzen da.

Euskeraz mintzatzen den jendearen maiorantza nagusia, ezinbestean, erdi klase, langile eta nekazari klasetara biltzen da. Gertadu dena da inmigrazioa gehienik langileena izan dela eta ondorioz, euskeraz mintzatzen den langileen porzentaia jetsi egin dela, noski. Gainera, pioitzaren gehiena inmigratu den

da apur bat. Bertakotzat hartzen diren inmigratuen semeen fenomenua oso gogoan eduki behar da mota honetako lanetan, bestela harrigarri lizatekeen ondorio askori baitagokio.

bezala, langile espezializatuen parte haundi bat bertakoa da.

3) gainera, «aberats hizkuntza» planteamolde bera oker da, zeren hizkuntzak ez dira klase baten jabeago, herri oso batena baizik.

B) ESTUDIO MAILAREN ARAURA

B-1 eraskinak A-1 eraskinaren ondorioaren antzeko batetara garamazki: euskeraren ezagule porzentaia haundiago bat dago estudio maila garai bat dutenen artean, estudio maila apal bat dutenen artean baino.

Baiezpen honi gorako parrafoei egindako ohar eta adierazpen berdinak egin behar dizkiogu, B-2 eraskinak bertakoen artean inmigratuen artean baino estudio maila garaiago bat dagoela adierazten baitu. Beraz, B-1 taulatik ere ez da ondorio klar bat segitzen. Bertakoentzat bakarrik hitzegin behar lizateke.

Ikusten dugunez, bertakoei dagokien taula gabe ez dugu atal honetan egiazko argibiderik lortzen, zeren gure esplikazioak (A-2 eta B-2 eraskinek) lehen ebidentziari («aberatsen hizkuntza»ren hipotesis faltsuari) balioa kentzen baitio, ebidentzia hura, bertan jaiotakoek euskeraz gehiago egiten dutela dioenaren errepika alfer bat bihurtuz.

Ba dirudi, halaz ere, nabari datekeela estudio gehiago dutenen artean euskeraz gaizki egiten dutenen porzentaia gehitu egiten dela; eta euskera on-

do ezagutzen dutenen porzentaiaren ugaltzeak ez du fenomeno hori eskaski eta parzialki baizik esplika-tzen; guk esan nahi duguna da estudio mailarekin batera igotzen dela euskera gaizki ezagutzen dutenen proportzioa, ondo ezagutzen dutenena baino askozaz gehiago.

D) BIZIBIDEAREN ARAURA

Bakoitzak duen lanbideak, euskeraren ezaguerare-kin harremanik du? Euskeraren erabilkuntza beste-tan baino ugariago den lanbiderik dago? Nekazarien kasoan harremana klar da: baserritarrak euskeraz mintzatzen dira; baina beste bizibideekin horrelako zerbait gertatzen da?

Puntu honen azterketak inkestan lortu diren bai-no dato gehiago eskatzen du eta ez da, beraz, posible sakontasun haundiagoz hurbiltzea.

Zenbait ofiziotan beharrezkoago da euskera beste zenbaitetan baino; kaso batzuk ez dira inolaz ere dudazko. Baina gauza bat euskeraren enplegua eta beste bat euskeraren ezaguera (epe labur batetan, bederen, zeren epe luzeago batetan argi baitago be-harrezko diren eta edukitzen diren ezagueren artean egokitze bat gertatzen dela). Harakinak, maiz etor-kiz baserritar direlarik, euskaldun izaten dira nor-malki. Halaz ere, haragiteriaren egonlekuaren araura, zenbaitek guti erabil dezake euskera. Orduan, hara-kinen artean, nork erabiliko du bere etxean, baina ez lanean; nork ez etxean ere.

Ezaguera eta enplegua berezi behar lirateke, bai-na halaber enplegua enplegulekuaren araura (familia, lana, taberna, astiak, etab.) Bereizkuntza biok be-harrezko dira, ez bakarrik bizibidea arakatzean, bai-zik halaber, beste edozein kriterio maneatzean. Dena dela, ba dirudi kaso honetan behar hori areagotzen dela, ezer argirik lortu nahi badugu. Hurrengo ka-pituluan ikusiko dugu ezagueraren eta enpleguaren arteko zatiketa. Euskeraren erabilkuntzan erabileku-ari dagokion bereizkuntza ez da lan honetan sartzen, ez baikenuen inkestan puntu honi buruzko galderarik ezarri.

Ikus dezagun, bada, D eraskinean oraingoz atera daitekeen gutia eta izan gaitezen interpretazioaren orduan bereziki oharti.

Nekazari lanetan euskeraren ezagutza osoa da. Informazioa Elgoibarri dagokio soilik, ez baitugu Errenderiako baserrietan inkestarik egin. Azaltzen den nekazari alokatu bakarrak ez du euskera eza-gutzen.

Errenderiako arrantzaleen euskeraren ezaguera maila, populazio aktiboaren neurri jenerala baino apur bat eskasago da.

Industriaren sektorean, ezaguera erdimaila baino haundiago da kategoria hauetan:

- jabe eta direktoretan
- enplegatu administratibotan
- ofizialetan

Xip:ago da, aldiz, hauetan:

- enkargatutan
- peoietan
- apendizetan

Titulodunek eta teknikoek erdimaila baino gehiago ezagutzen bide dute, baina Errenderian hori argi samar ikusten bada ere, Elgoibarren ugariago dira gaizki ezagutzen dutenak. Menpekoen kategoria erdimailaren gainean azaltzen da Elgoibarren, baina behean Errenderian.

Hirugarren sektorean (zerbitzu sektorean) hauek ezagutzen dute euskera erdimailak baino gehiago:

- jabeek eta komertzioetako enplegatuek
- errepresentantek
- komertzioetik kanpoko zerbitzuetako enplegatuek

Eta erdimaila baino gutiago ezagutzen dute beste zerbitzuetako langileek. Gainerako kategoriak nahastu samarik azaltzen dira:

- beste zerbitzuetako jabeek erdimailak baino hobeki ezagutzen dute euskera Errenderian eta okerrago Elgoibarren.
- halaber gertatzen da funtzionarioekin
- alderantziz ofizioekin
- bizibide liberalekin, titulodun eta teknikoekin gertatzen den antzeko zerbitzu gertatzen da: Errenderian erdimailak baino gehiago ezagutzen dute eta halaber El-

goibarren, baina azken honetan gaizki ezagutzen dutenen ehunekoa oso handi da.

Ondoriorik atera dezakegu guzti horretatik? Ez askorik. Ba dirudi kategoria askotan euskeraren ezaguerarekiko elkarlotura bat nabari dela, baino ez beste zenbaitetan, edo ez hain nabarbenki behintzat, agian profesio bakoitzari egindako inkestaren numero xipiak egoeraren kalkulo hurbil oro galerazten duelako.

Sektore saltzailea euskeraren ezaguera haundiago batez nabarrentzen da, eta fenomeno horri normal deritzogu, lanaren behar edo behintzat kome-
nientziatarata lotzen zaion erantzun bat delako.

E) SEXOAREN ARAURA

E eraskinean bi ondorio jeneral samarretara ailega arazitzen dauku. Ondoriook, lan honetako guztiek bezala, aplikazio jeneral batetarako segurantz maila eskas samar bat dute. Bi herriotan egindako analisisa gauza guti da ondorio bati karakter jeneral emateko. Ikusten ari gara nola, kaso ugaritan, herri bateko eta beste emaitzak kontraesanean dauden, eta nola kontraesan horiek zenbaitetan oso esplika-
gaitz diren.

Errenderian, emakumeek proportzio haundiago batetan ezagutzen dute euskera gizonezkoek baino.

Euskerak gaur duen karakterra konsideraturik, euskeraz gaur egiten den erabilkuntza gogoan hartu-

rik (etxe barruan funtsez, edo bederen, etxe barruan batez ere, egoera hori euskeraz guti egiten den herrietan areagotzen delarik, etxe kanpoko harremanak askozaz areago egiten baitira gaztelaniaz) esplikazio posible bat ematera ausartzen gara.

Elgoibarren bederen, ba dirudi euskera erdiska edo gaizki ezagutzen duten emakumeen porzentaia urriago azaltzen dela gizonezkoena baino, agian arrazoi berbera gatik.

Halaz ere, emakumeek ez dute Elgoibarren gizonezkoek baino euskera gehiago ezagutzen, nahiz E eraskinetik ondorio hori atera daitekeela dirudien, zeren Elgoibarren emakume baino gizonezko gehiago baita inmigratu, eta diferentzia honek ordaintzen baitu bestea.

Gizonezkoen artean emakumeen artean baino inmigratu gehiago gertatzea fenomeno jeneral bat da, nahiz Errenderian ez den hori jazotzen, agian hango industriak emakumezko lan-esku gehiago erabiltzen duelako.

Inmigratuen sexoa.

Sexoa	Elgoibar	Errenderia	Gipuzkoa
Gizonezkoak	53	49	54
Emakumeak	47	51	46
Orotara	100	100	100

Iturburua: Elgoibar eta Errenderia: 1970ean herri horietan bizi direnen artean Euskal He-

rritik at sortu direnak. Gaur-ek populazioari egindako inkestatik.

Gipuzkoa: 1961-66 epean Gipuzkoara heldutako inmigratuak: «Así está la enseñanza primaria» 302. o.

Ikus dezagun nola Elgoibarren goiko datoak aldatzen duen E eraskina, emakumeek eta gizonezkoek euskera neurri berdinean ezagutzen dutela azaltzen delarik.

Euskeraren ezaguera Elgoibarren bertakoen artean, sexoaren araura.

	Gizonezkoak		Emakumeak	
	inkesta n.º absolutoak	%	inkesta n.º absolutoak	%
Ez dute ezagutzen	354		519	
Inmigratuak	363		323	
Ezagutzen ez duten bertakoak	191	19,0	196	19,0
Ezagutzen dute	817	81,0	836	81,0
Bertakoak orotara	1.008	100,0	1.032	100,0

F) ADINAREN ARAURA

F eraskinak ematen dauku zenbait idea onurakor euskeraren gaurko bizitzeaz.

1: Adinak, jakina denez, harreman direkto bat daduka euskeraren ezaguerarekin. Adinaren araura beheratzen da euskaldunen proportzioa.

Errenderian konkretuki, esan dezakegu 55 urtetatik gorako pertsonen artean erdiak euskera ezagutzen badu ere, 25 urtetatik behera, aldiz, laurden batek bakarrik ezagutzen duela.

Era berean, Elgoibarren, 55 urtetatik gorako artean bostetik lauk ezagutzen badu euskera, 35 urtetatik beherakoek, ordea, nekez pasatzen dute erdia.

Ohar arazi dezagun taula oro egungo populazio osoari dagokiola, ez bertan jaiotako guztiei soilik. Argi dago hauen artean ere azalduko zela fenomeno hori, familia askotan euskera belaunaldiz belaunaldi gaulduz joan baita; baina inmigratuak taulan ezarriz, are argiago nabarrentzen da egoera, denboraren harian inmigrazioak gero eta porzentaia haundiago bat osatzen baitu populazioaren osotasunari buruz.

2: ikastola: euskera-adina proportzio direktoari ihes egiten dion edadetatik bat, haur xipiena da. Erregela haren legez, haur haundi samarragoek baina gutiago egin behar zukeiten euskeraz, baina ez da hori jazotzen.

Adin xipiagoetan euskeraren ezezaguleen jautsapean bat nabari da eta, argiago oraindik, normalki euskeraz mintzatzen direnen igotze bat. Kausa, dudarik gabe, familiatan mintzatutako euskeraren kantitatearen ugaltzean datza eta, berezikiago, ikastolen sortzean. Elgoibarreko ikastolak 1960. urtean hasi

zuen lana eta Errenderiakoak 1962an. Beraz, Gipuzkoan zaharrenetakoak dira.

Honela, Elgoibarren, azken hamar urteotan bi zirkunstantzia bateratu da: alde batetik ikastolaren sortzea eta bestetik, aurreko hamar urteekin gonbaratuz, inmigrazioaren urritzea. Honela, 1950-60 epearen azkeneko urteetan euskerak pairatu zuen beherapena oso klarki goratu da 1960 urteaz gero eta azkeneko urteotan batez ere.

Gorapena ez da, gainera, kopuruan (euskera ezagutzen ez dutenen porzentaiaren beherapenean) bakarrik nabarrendu, baizik kalitatean ere: haur xipien artean beste edozein adinetan baino askozaz gehiago igotzen da, proportzioz, euskeraz normalki mintzatzen direnen porzentaia, gaizki ezagutzen dutenen edo konprenitu besterik egiten ez dutenen numeroaren kaltetan.

Beti bezala, kalitatea kantitatearekin dator.

Errenderian, aldiz, kopuruaren fenomenua nekez igartzen da. Dudarik gabe, zeren azken 10 urteotako inmigrazioa hain ugari izan baita (ez dezagun ahaz epe honetan Errenderiako populazioa ia berretu egin dela) non ikastola izan agatik, euskera ezagutzen ez dutenen porzentaia ezin izan baitio goratzeari utz: ikastolaren ahaleginek eta euskera birpiztu nahi duen borondate herrikoi zabalagoaren indarrak ezin izan du inmigrazioaren gorapena ordaindu.

Dena dela, ikastolaren ahaleginari klarki positibo deritzagu, alde batetik, euskera ezagutzen ez dutenen porzentaia ugal ez dadin, eta bestetik, eus-

kera ezagutzen duten haur xipiak, zenbatenaz xipiago, hanbatenaz hobeki ezagut dezaten lagundu baitu, okerrago ezagutzen dutenen kaltetan: berriro kalitatearen fenomenua, zeina, hori bai, klar baita are Errenderian, eta argiago ikusiko bailizateke «normalki mintzatzen dira» lerroaren azalpen grafiko batez, gorako inflexio bat ikusiko baikenu.

Esan dezagun, dena dela, Errenderian ere euskaldunen gehitze bat nabarrendu dela, nola kopuruan hala proporzioan, azken inmigrazioa kontuan hartzen ez badugu.

3: adin haundiagoko pertsoneri gertatzen zaiena arakatzean, kopuruaren eta kalitatearen arazo errepikatuan erortzen gara berriro.

Adin haundietan, euskeraren ezaguleen porzentaiaren goratze argi bat gertatzen den araura, goratze hori desberdinki zatitzen da, hobeki mintzatzen direnen onetan eta okerrago ezagutzen dutenen kaltetan (eta noski, euskera ezagutzen ez dutenen kaltetan).

Errenderian euskera gaizki ezagutzen dutenen proporzioa 65 urtetatik gorako jendeaz gero biziki jeisten da eta Elgoibarren 60 urtetatik goragoko pertsonetan ez da euskera gaizki ezagutzen duenik azaltzen.

Denak pentsa arazitzen dauku euskerari eragiteko, egungo euskaldunen euskera apaindu baino, askozaz inportantago dela euskaldun hauek erabil dezaten eta euskaldunen numeroa ugaltzen ahale-

gintzea. Esan genezake «hobe dela euskera asko mintza dadin euskera ondo mintza dadin baino».

Dena dela, guzti hori badiogu, bi politikok, diru faltaz, batera ezin eraman daitezkeelako da.

4: F eraskinaren analisisa alde batetara utzi baino lehen, laugarren puntu honetan estudiantutako herri bakoitzari partikularkiago dagokion zenbait alde ikus dezakegu. Elgoibarren argi ikusten da euskerarentzat mementorik xarrenak hauk izan direla:

- a) gerra eta gerra ondoa. Puntu hau aise igar daiteke euskera ezagutzen ez dutenen kolumnan gaur 30-34 urte dutenei behatzen badiogu, hau da, garai hartan jaio zirenei. Honelako zerbait ikusten da ere Errenderian, nahiz argitasun xipiagoz, zeren Errenderian, agian herri irekiago bat delako, euskerarekiko unerik larrienak beste zirkunstantzian gertatzen baitira.
- b) inmigrazioaren garai bizienetan eta ondorengoetan, 10-14 urte dutenei behatuz igar daitekeen bezala. Ba dakigu Errenderian inmigrazioaren mementorik garaiena Elgoibarren baino beranduago gertatu dela.

Interesgarri dateke, agian, zenbait irakurlerentzat, batez ere euskerazko egintza kulturalari buruzko zenbait erabaki hartzeko, gaurko euskaldunen adinak ere aditzera ematea. Aski zabaldurik dago, egiatan, euskaldunen maiorantza adin haundiko pertsonen osatzen dutela dioen idea faltsoa.

Gaurko euskaldunen adina.

Urteak	Elgoibar	Errenderia
10 baino gutiago	15,7	16,3
10tik 19ra	15,0	14,0
20tik 29ra	13,1	13,4
30tik 39ra	15,1	16,3
40tik 49ra	15,6	15,6
50tik 59ra	9,6	10,3
60tik 69ra	8,8	8,7
70 edo gehiago	7,1	5,4
Orotara	100,0	100,0
Inkesta n.º absolutoak	1.537	700

Gorago ikusten zenez, euskaldunen proportzioa haundiago da adin bakoitzeko biztanleentzat adina aurrera doan araura. Baina ez da hortik inolaz segitzen egun euskaldun zaharren porzentaia oso handi denik: gaurko euskaldunen ia erdiak (%43) 30 urte baino gutiago du.

G) SORLEKUAREN ARAURA

I: Bertakoak eta euskera

Euskeraren ezaguera maila, sorleku den euskal probintziaren araura, orden berberean agertzen da Errenderian nahiz Elgoibarren, G-1 eraskinean ikus daitekeen bezala.

1: euskera gehienik ezagutzen dutenak «Gipuzkoako beste inon jaio direnak» dira, hau da, anlizatutako herritik at.

2: ondoren, herri hartan bertan sortutakoak datoz, zeinek, sarreran ikusten genuenez, Gipuzkoako erdimailak baino gutiago hitzegiten baitute euskeraz. Estudiatzen ditugun herrietara Gipuzkoako beste munizipioetatik datoztenak, eskualde nekazariago batetatik datoz gehienik. Honek esan nahi du Elgoibarren eta Errenderian sortuen euskera ez dela Gipuzkoan hitzegindako euskeraren errepresentagarri, bi herriok erdimaila baino beherago baitaude, baina ezta ere Gipuzkoako beste edozein herritan sortuak izanik Elgoibarren edo Errenderian bizi diren euskaldunak, hauk erdimaila baino gorago baitaude segur asko. Baina kontsiderazio hori aski ilun da erabilgaitz eta kopuragaitzat hartua izateko.

3: bizkaitarrak datoz ondoren, zeinek Elgoibarren proportzio handi batetan ezagutzen baitute euskera, eta Errenderian proportzio xipiago batetan eta okerrago gainera (nahiz Errenderian bertan sortuek baino gehiago ezagutzen duten).

4: ondoren nafarrak datoz.

5: azkenik arabarrak. Jakina denez, hauk dira Euskal Herri guztian euskera gutienik ezagutzen dutenak, baina halaz ere esan behar dugu arabar euskaldunen proportzioa haundiago dela bi herriotan hasieran espero zatekeena baino. Porzentaia hori, nafarrena bezala, ez da, noski, probintzi haietan erabiltzen den euskeraren lekuko, bi herri hauetara

heldutako gehienek aspaldi atera baitziren bere herrietatik eta gainera, gure probintziatik gertuago dauden eskualdetatik datozelarik, probintzi haietako erdimaila baino euskaldunago diren eskualdetatik baitatoz.

II: *Inmigratuak eta euskera*

G-2 eraskinean ikus daitekeenez, Elgoibarren Euskal Herritik at sortutako 691 pertsonaren bidez bildu dugu informazioa eta haietatik 649k (%93,9) ez zuen euskera ezagutzen. Beraz, 42k ezagutzen zuen (%6,1). Hauetatik euskeraz normalki mintzaten direnak %35,7 dira (orotara, %2,2 beraz).

Errenderian 1.101 inmigraturen bidez lortu da informazioa eta hauetatik 1.074ek (%97,5) ez du euskera ezagutzen eta 27k (%2,5) ezagutzen du. Hauetatik %18,5 mintzaten da euskeraz normalki (orotara %0,5).

Bi herriok elkarrekin hartuz, ikusten dugu inmigratuetatik %3,85ek ezagutzen duela euskera eta hauetatik ia heren bat, %29,0 (%1,1) orotara, mintzaten dela normalki.

Euskeraz mintzatzera heltzen diren inmigratuen porzentaia oso xipi da, beraz. Eta hori esan beharra dago —eta berehala gainera— nahiz topiko ezagunegi bat den, nahiz Euskal Herria ezagutzen duen pertsona askori emandako porzentaiak bereziki xipi iruditzen ez zaizkion, edo, areago, uste baino haundiago. Berehala birrartuko dugu gai hori.

Nabarben da Elgoibarren euskera ezagutzera heldu den inmigratuen porzentaiak Errenderiakoa-rekin duen aldea. Lehendabizikoa bigarrena baino askozaz haundiago da eta, beti diogun bezala, ez bakarrik kopuruan, baizik kalitatean: diferentzia are haundiago egiten da euskeraz mintzaten diren inmigratuen porzentaiak gonbaratzen baditugu.

Errenderian ez da bakarrik inmigratuen arteko oso porzentaia xipi bat euskera ezagutzera heldu, baizik, areago, gehienek ez dute ulertu baizik egiten, hitzegiteko gauza ez direlarik.

Nabarben da Elgoibarreko herriaren euskalduntasun haundiagoak euskerarako bidea erraztu egiten duela.

Bertakoen artean euskera ezagutzen duen maiorantza normalki mintzaten den bezala, inmigratuen artean ezagule gehienak ulertzera mugatzen dira. Bi fenomenok hain dira normal eta logiko, non ez baitute komentariarik behar.

Errenderia eta Elgoibarren arteko diferentziak gogoan harturik, aise esan dezakegu Gipuzkoan euskera ezagutzera heldu direnen erdimaila bi herriotan azaldutako %3,85a baino haundiago datekeela. Zeren herriok erdimaila baino euskalduntasun apalago dutelarik, beste herrietara heldutakoek euskera ikasteko aukera gehiago izanen baitute. Ez dezagun halaz ere ahaz Gipuzkoara datozen inmigratu gehienak herri industriatuetan finkatzen direla dudarik gabe, Elgoibar eta Errenderiaren antzeko herrietan, ez herri nekazariagotan.

Halaber seinlatu behar da hemen euskera ezagutzera heldu den inmigratuen porzentaia xipia, etorkizunean, logikoki, xipiago izanen dela oraindik, populazioaren multzoaren euskalduntasun maila beharretako baita, partez inmigrazioaren beraren poderioz.

Baina aitortu behar da gaurko porzentaia ere oso xipi direla eta errealitate honek, hizkuntzaren birpiztearen aldetik hain garrantzi eragile du non izugarritzko, ezohizko faktore politiko edo kulturalen indarrez baizik ezin guti baitaiteke.

Catalunyaren kasoarekin nabari den diferentzia funtsezko da benetan. Aski ezagun da edozein inmigratuk aietasun erlatibo batez ikasten duela katalana, eta, noski, haren seme-alabek. Guzti honek egoera zeharo desberdin bat ematen du aditzera hizkuntzaren bizitasunari buruz.

Dena dela, berriro esaten dugu Euskal Herritik at sortutako pertsona oro hartzen dugula soilik inmigratutzat, eta ez hemen sortutako inmigratuen semeak. Honekin, 2 oharrean esaten genuenez, maiz gertatu ohi da fenomenuen irudi enganatzaille bat. Zihurtzat har daiteke inmigratuen seme-alabek bere gurasoek baino porzentaia askozaz haundiago batetan ikasiko dutela euskera.

Ikus dezagun (G-3 eraskinean) euskera ezagutzera heldu diren inmigratuen etorki geografikoa.

Zenbaitetan esan ohi da «euskera hobeki ezagutzera heltzen direnak gailegoak direla», edo antzeko zerbait. Honelako baietak ez dirudi inolaz egiazko direnik. Inmigratu euskaldunen banaketa sorlekua-

ren araura guti gora behera multzoaren banaketaren antzeko da (G-1 eraskinean, «inkesta numero absolutoak» kolumnan ikus dezakegunez). Xipiegi da muestra hauzi honetan sartzeko, baina argi asko ikusten da inmigratu euskaldunak zernahi etorkiko direla.

G-4 eraskinean, halaber, ikus dezakegu inmigratu euskaldun horien edadea. Agian, lehen ikuspegi batetan, adinari buruz bederen talde homogeen samar eta, noski, adin haundiko batetan pentsa genezake. Ez da hori inolaz gertatzen, zeren, erakisnean nabarbenki ikusten denez, adin guztitakoak baitaude era irregular samar batez eta ezer esatekotan, 25 eta 50 urteren artean daudenak dira nagusi.

Ba dago interesgarriago den beste zenbait alde, baina komenigarri balitz alde horiek estudiantzea, oinarri estadistiko faltaz, ukitu baizik ez ditugu eginen. Hauzia, inmigratu bat euskera ezagutzera, hitzegitera edo gutienez ulertzera daramaten faktoreak ezagutzean datza. Beharrezko dateke inmigratuak hemen luzaroan bizi izatea edo gerta diateke, aitzitik, denborak bizilekuak (hauzoa edo are etxea esan nahi dugu) baino garrantzi xipiago izatea, zeren euskera ezagutzera heltzen direnak egonaldiaren lehen urteetan lortzen baitute ezaguera hori (exenplu hipotetiko bat da; aurrera ikusiko dugu nola segur aski faltso den). Bestalde, hauzia areago dateke inmigratuak honeratzean zuen adinean, hemen daramazkin urteetan baino; honen araura, euskera ezagutzeko posibilitate gehiago luke, adibidez hiru urterekin

etorritako batek, nahiz hemen beste lau urte baizik ez daraman, berrogei urterekin etorritako batek baino, nahiz hori hogeitamar urtez gero hemen dagoen.

Hipotesis guzti horiek ez dira inoiz, guk jakin dezagunez, datoz analizatuak izan, eta interesgarri lizateke lan honetan egitea. Baina guk hartu ditugun muestren urritasunak ez dauku bi puntu (oso laburki gainera) baizik analizatzera uzten:

A — euskeraren ezagueraren eta inmigratuak eskualde euskaldunetan daraman urteren kopuruaren arteko harremana.

B — euskeraren ezagueraren eta inmigratuak honeratzean zuen adinaren arteko harremana.

A: ikus dezagun G-5 eraskina. Datoak ez dira egiatan argiegi, baina atera dezakegu zenbait ondorio inmigratuak hemen daramakien urteren eta euskeraren ezaguera edo ezaguerarik ezaren artean alde batetik (3 lehen puntuak) eta ezaguera horren mailaren artean bestetik (4. puntua) dagozkeen harremanez:

1) euskera ezagutzera heldu diren inmigratu gehienak Elgoibarrera duela 20-45 urte ailegatu ziren eta Errenderiara duela 20-30 urte (3). Beraz, maiorantza gerra ondoan ailegatu da eta ez lehenago.

(3) Argiago ikusiko lizateke hori numero absolutoein egindako taulan, baina ez dugu taula hori estudioan ezarri, beharrezko diren kuadroak jarri baititugu, eta nornahik guk emandako datoez osatu baitezake taula hura. Bestalde, nahiko argi geratzen da hauzia «ez dute ezagutzen» kolumnari behatuz gero.

2) inmigrante horiek hemen daramazkiten urteen askoak, euskera anitz urteren buruan ikasten dutela pentsa arazitzen dauku, ezen ez egonaldiaren lehen urteetan. Puntu hau, lehenagokoa bezala, argitasun berdintsuz ikusten da estudiantutako bi herriotan.

3) oso argi ikusten da Elgoibarren Errenderian ia agertzen ez den zerbait (agian, lehen aipatu dugunez, Errenderiaren karakteristika bereziak gatik): euskera ezagutzen duten inmigratuen porzentaia etengabe ugaltzen da, bertan daramaten denbora luzatzen den araura. Ezagutzen ez dutenak ia %100 badira Elgoibarren 20 urte baino gutiago daramaten artean, porzentaia hori gutituz doa hurrengo urteetan: 73, 72, 70, 33 eta 20. Ba dirudi beraz, euskeraren ezagueraren eta hemen daramaten denboraren artean harreman bat azaltzen dela, denbora luze samar batetatik hasita bederen.

4) ez dirudi ordea ezaguera mailaren (ondo ala gaizki mintzatzen diren edo ulertzen baizik ez duten) eta hemen daramazkiten urteen artean harremanik dagoenik: maila desberdinen proporzioak berdin dirau, zer nahi den urte kopuru iragaten den. Herri bakoitzean ertzeko hiru kolumnak gonbaratzean ikusten da hori (Elgoibarren batez ere, handik atera baita hirugarren puntua).

B — Ikus dezagun orain G-6 eraskina. Bertatik atera dezakegu zenbait ondorio inmigratuak honeratzean zuen adinaren eta euskeraren ezagueraren ala ezaguerarik ezaren artean alde batetik (lehen pun-

tua) eta ezaguera mailaren artean bestetik (2. puntua) dagozkeen harremanez.

1) «ez dute ezagutzen» kolumnari behatuz, ikus dezakegu ba dagoela elkarrarremanik euskeraren ezagueraren ala ezaguerarik ezaren eta inmigratuak honeratzeari zuen adinaren artean. Ikus dezagun beraz:

Elgoibarren:

- 5 urte baino guttiagorekin datozenek euskera ezagutzeko %15 probabilitate dute.
- 5-40 urterekin datozenek, aldiz, ez dute %5 probabilitate baino gehiagorik.
- 40 urte baino gehiagorekin datozenek, ez dute ia euskera ezagutzeko posibilitaterik.

Errenderia:

- 15 urte baino guttiagorekin datozenek euskera ezagutzeko %5 probabilitate dute.
- 15-45 urterekin datozenek %2 probabilitate dute guti gora behera.
- 45 urte baino gehiagorekin datozenek ez dute ia euskera ezagutzeko probabilitaterik.

Ikus dezagun, bada, elkarrarreman nabari samar bat dagoela, baina honek ez du hitzez hitz adierazten xipitan honeratzeari direnek euskera ikasten dutenik eta zaharragoek ez dutenik, baizik etorrerako adina

goratzen den araura probabilitateak gutitzen direla. Ohar hori bi herriotako balore absolutoak elkartzuz frogatzen dugu, zeren euskera ezagutzera heldu diren inmigratuen ia erdia hogeitau urte baino gehiagorekin etorri baitzen.

Argi ikusten da, halaber, 40 edo 45 urte baino gehiagorekin datozenek ez dutela ia euskera ikasteko probabilitaterik.

2) lehenagoko kriterioarekin (herri berrian bizitako urteak) gertatzen denaren aurka, ba dirudi hemen gertatzen dela euskeraren ezaguera mailaren (ez bakarrik ezaguera edo ezaguerarik eza, ikusi dugunez) eta honeratzeari inmigratuak zuen adinaren artean elkarrarremanik.

Elgoibarreko eta Errenderiako numero absolutoak batzen baditugu, euskeraz normalki mintzatzen diren inmigratuen artean % 55 hamar urte baino guttiagorekin heldu ziren honera, eta hitzegin gabe euskera ulertu baizik egiten ez dutenen artean, % 13,9 bakarrik etorri zen 10 urte bete baino lehen.

Honek adierazi nahi duena da, haur edo gazterik honeratzeari ez dituela bakarrik euskera ikasteko posibilitateak ugaltzen, baizik, are gehiago, ongi ikasteko posibilitateak ere.

Azken bi puntootan ikusitakoa laburtzen badugu, ba dirudi inmigratu batek euskera ezagutzera ailegatzeari harremanen bat duela hemen daramazkin urteekin, eta halaber, honeratzeari zuen adinarekin. Irudiz bederen, bigarren honek besteak baino garrantzi haundiago bat du.

Giro nekazari ala urbano batetara, hauzo euskaldun ala erdaldun batetara ailegatzeak, indibiduoaren ikaskizunarekiko aurrejoera subjetoak eta beste zenbait arazok, estudiatzen ari garen hauzian duten garrantzia aitortu agatik, ezin ditzakegu uki inkesta honetan. Dena dela, faktoreok lehen mailako garrantzia dute, lehenengoez batez ere: hizkuntza bat ikastea, beste ezer baino lehenago, behar bat da eta, jeneralki, inmigratuek beharrezko zaienean ikasten dute euskera.

H) HAUZOAREN ARAURA

Elgoibarrentzat H-1 eraskinean eta Errenderiantzat H-2 eraskinean desarroilatzen den kriterio klasifikatzaile honek, interes jeneral bat baino, herriotako biztanleentzat du batez ere interesik.

Eraskin horietan agertzen den seinale jeneral batek dioenez, hauzoa zenbatenaz zaharrago den, hantzenaz da euskaldunago. Eraiki berri direnetan, beraz, euskera gutiago mintzatzen da.

Errenderian inguruneko hauzoak berriak baitira, euskeraz gutiago egiten da ingurune honetan herriaren erdian baino. Elgoibarren, aldiz, inguruneko hauzoak nekazari eta zahar direlarik, euskeraz gehiago egiten da hemen herriaren zentroan baino.

I) ETXABIZITZE NEKAZARI ALA URBANOAREN ARAURA

Gauza jakina da euskualde nekazaritan urbanotan baino euskeraz gehiago egiten dela. I eraskinak argi samar frogatzen du uste hori:

Errenderian ez dugu eskualde nekazarietan inkestarik egin, baina desberdintasun hori bizi samar agertzen da eskualde urbanoetan eta urbano-nekazarien artean.

Kopuruaz bestalde, kalitatearen puntua azaltzen da berriro. Honela, Elgoibarren eskualde nekazari eta urbanoan (erdikoan ez da hala gertatzen) eta Errenderian erdikoa eta urbanoa gonbaratzen badiugu, ikusten dugu euskeraren ezaguleak ugaltzen diren eran, normalki mintzatzen direnen numeroa proporzionalki gehitzen dela, erdiska mintzatu edo ulertu soilik egiten dutenen kaltetan.

Hainbestetan aipatu den kantitatearen eta kalitatearen elkarrarreman honek ez du egiatan alde zuretik ezer harrigarrik; aitzitik, erabat logiko iruditzen zaiku. Dena dela onurakor deritzagu hainbeste kasotan igarri ahal izateari. Euskera mintza ala galdu dadin egiten duten kausa berberak dira, guti gora behera, ongi ala gaizki, aietasunez ala nekez mintza dadin egiten dutenak. Honetan datza fenomeno honen arrazoia.

II. ERASKINEN NEKAZARI ALA
TUTSARAREN ARAJUA

Quere haren da erasakide nekazarien nekaz-
ariak haren erasakide nekazariak dira. I. erasakide
ak haren erasakide nekazariak dira.

Erasakideak erasakide nekazariak haren
erakide nekazariak haren erasakide nekazariak
haren erasakide nekazariak haren erasakide nekazariak
haren erasakide nekazariak haren erasakide nekazariak

Kopuraz haren erasakide nekazariak haren
erakide nekazariak haren erasakide nekazariak
haren erasakide nekazariak haren erasakide nekazariak
haren erasakide nekazariak haren erasakide nekazariak
haren erasakide nekazariak haren erasakide nekazariak
haren erasakide nekazariak haren erasakide nekazariak

Erasakideak haren erasakide nekazariak haren
erakide nekazariak haren erasakide nekazariak
haren erasakide nekazariak haren erasakide nekazariak
haren erasakide nekazariak haren erasakide nekazariak
haren erasakide nekazariak haren erasakide nekazariak
haren erasakide nekazariak haren erasakide nekazariak

Eraskinak

A-1 ERASKINA

EUSKERAREN EZAGUERA ETA IRABAZI MAILA (Populazio aktiboa)

EZAGUERA MAILA	IRABAZI MAILA							
	ELGOIBAR			ERRENDERIA				
	Oso behe	Behe	Erdi	Goi	Oso behe	Behe	Erdi	Goi
Erratzazunez mintzatzen dira ...	48,6	49,6	60,7	78,4	18,2	21,6	24,3	35,0
Zaitzazunez mintzatzen dira . . .	3,2	1,3	3,4	7,8	1,8	3,6	3,5	10,0
Ulertzen dute	8,1	4,0	5,8	2,0	5,4	5,9	7,7	10,0
Ez dute ezagutzen	40,1	45,1	30,1	11,8	74,6	68,9	64,5	45,0
Orotara	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Inkesta numero absolutoa	222	448	206	51	280	547	169	20

A-2 ERASKINA

IRABAZI MAILA SORLEKUAREN ARAURA (Populazio aktiboa)

IRABAZI MAILA	ELGOIBAR		ERRENDERIA	
	Bertakoak	Inmigratuak	Bertakoak	Inmigratuak
Goi: 15.000 pesetatik gora	7,4	2,1	2,3	1,6
Erdi: 10.000-tik 15.000-ra	24,3	18,7	17,2	15,9
Behe: 5.000-tik 10.000-ra	44,1	55,7	54,0	53,9
Oso behe: 5.000-tik behera	24,2	23,5	26,5	28,6
Orotara	100,0	100,0	100,0	100,0
Inkesta numero absolutoa	596	332	513	510

A-3 ERASKINA

MAILA SOZIALA SORLEKUAREN ARAURA (Populazio aktiboa)

MAILA SOZIALA	ELGOIBAR		ERRENDERIA	
	Bertakoak	Inmigratuak	Bertakoak	Inmigratuak
Goi	19,4	10,2	14,2	7,9
Behe	80,6	89,8	85,8	92,1
Orotara	100,0	100,0	100,0	100,0
Inkesta numero absolutoa	691	332	530	521

Sei bizibide hauk hartzen ditugu goi mailakotzat: zuzendari eta jabeak, titulodun eta teknikoak, merkataritza jabeak, beste zerbitzutako jabeak, bizibide libreak eta funtzionarioak. Bost lehenengoak haren kontsumo maila garatagoa gatik eta seigarrena haren mentalitatea goi mailakoanari hurbiltzen zaiolako. Beraz, gainerako bizibide guztiak maila apalean sartuko ditugu.

Ikusten denez, ez ditugu maila hauk bakarrik produkzio bideen jabeago ala ez-jabeagoaren araura berezitzen. Sentsu «konsumatzaile»-go bat, «soziologista»-go bat ematen diogu konzepto horri, kaso honetarako balio dezakeena.

B-1 ERASKINA

EUSKERAREN EZAGUERA ETA ESTUDIO MAILA (Populazio osoa, haurrak eta estudianteak ezik)

EZAGUERA MAILA	Analfabetoak		Lehen irakaskintza bukatu gabe		Lehen irakaskintza bukatua		Bigarren irakaskintza bukatu gabe		Bigarren irakaskintza bukatua		Goi irakaskintza bukatu gabe		Goi irakaskintza bukatua	
	43,1	57,6	59,0	56,3	63,5	50,5	44,0	17,0	26,5	22,1	31,6	33,3	34,3	
Elgoibar	43,1	57,6	59,0	56,3	63,5	50,5	44,0	17,0	26,5	22,1	31,6	33,3	34,3	
Erratzasunez mintzatzen dira ...	—	1,0	2,4	6,2	5,2	—	4,0	—	1,5	2,9	10,5	8,6	8,6	
Zailtasunez mintzatzen dira ...	—	1,2	3,2	12,5	12,2	—	16,0	—	4,7	6,6	10,5	5,7	17,1	
Ulertzen dute ...	56,9	40,2	35,4	25,0	19,1	50,0	36,0	50,0	78,3	68,4	47,4	52,4	40,0	
Ez dute ezagutzen ...	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	
Orotara ...	102	401	1.149	32	115	2	25	—	106	1.170	38	105	35	
Inkesta numero absolutoak ...														
Errederia														
Erratzasunez mintzatzen dira ...	—	1,5	2,9	10,5	8,6	—	50,0	—	4,7	6,6	10,5	5,7	17,1	
Zailtasunez mintzatzen dira ...	—	1,2	3,2	12,5	12,2	—	16,0	—	4,7	6,6	10,5	5,7	17,1	
Ulertzen dute ...	78,3	67,8	68,4	47,4	52,4	50,0	40,0	50,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	
Ez dute ezagutzen ...	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	
Orotara ...	106	332	1.170	38	105	2	35	—	106	1.170	38	105	35	
Inkesta numero absolutoak ...														

B-2 ERASKINA

ESTUDIO MAILA SORLEKUAREN ARAURA (Populazio osoa, haurrak eta estudianteak ezik)

ESTUDIO MAILA	ELGOIBAR		ERRENDERIA	
	Bertakoak	Inmigratuak	Bertakoak	Inmigratuak
Goi irakaskintza bukatuta ...	1,6	0,8	2,5	1,4
Goi irakaskintza bukatu gabe ...	0,2	—	0,1	0,1
Bigarren irakaskintza bukatuta ...	8,1	2,5	8,5	3,3
Bigarren irakaskintza bukatu gabe ...	2,4	0,5	3,3	1,1
Lehen irakaskintza bukatuta ...	64,4	59,8	65,6	65,4
Lehen irakaskintza bukatu gabe ...	19,6	26,8	16,3	20,7
Analfabetoak ...	3,7	9,6	3,7	8,0
Orotara ...	100,0	100,0	100,0	100,0
Inkesta numero absolutoak ...	1.233	594	872	925

D - ERASKINA

EUSKERAREN EZAGUERA ETA BIZIBIDEA

	ELGOIBAR					ERRENDERIA								
	Bizibidea	Eratzasunez mintzatzen dira	Zailtasunez mintzatzen dira	Ulertzen dute	Ez dute ulertzen	Orotara	Inkesta numero	absolutuak	Eratzasunez mintzatzen dira	Zailtasunez mintzatzen dira	Ulertzen dute	Ez dute ulertzen	Orotara	Inkesta numero
Lehen sektorea														
Nekazari-baserritar	100,0	—	—	—	—	100,0	56	—	—	—	—	—	—	—
Nekazari-aloakaria	—	—	—	100,0	—	100,0	1	—	—	—	—	—	—	—
Arrantzale	—	—	—	—	—	—	—	12,2	2,4	9,8	75,6	100,0	—	41
INDUSTRIA														
Enplegatuak														
Zuzendari eta jabeak	83,4	3,3	3,3	10,0	100,0	100,0	30	66,7	—	—	33,3	100,0	9	
Tituladun eta teknikoak	51,7	—	20,7	27,6	100,0	100,0	29	29,4	5,9	11,8	52,9	100,0	17	
Enplegatuak	63,2	5,9	10,3	20,6	100,0	100,0	68	27,8	8,3	13,9	50,0	100,0	72	
Menpekokoak	66,7	—	8,3	25,0	100,0	100,0	12	15,0	—	—	85,0	100,0	20	
Obreiroak														
Enkargatuak	45,5	—	—	54,5	100,0	100,0	11	16,7	11,1	—	72,2	100,0	18	
Ofizialak	67,7	3,4	2,4	26,5	100,0	100,0	291	24,2	5,3	6,3	64,2	100,0	190	
Peoiak eta pool espezializatuak	30,1	0,3	4,9	64,7	100,0	100,0	286	15,2	1,4	4,8	78,6	100,0	355	
Aprendizak	19,4	—	19,4	61,2	100,0	100,0	31	10,0	—	—	90,0	100,0	30	
Zerbitzuak														
Merkatariek (jabeak)	79,4	3,4	3,4	13,8	100,0	100,0	58	28,6	—	10,7	60,7	100,0	28	
Merkataritza enplegatuak	55,6	11,1	22,2	11,1	100,0	100,0	9	31,4	5,7	11,4	51,5	100,0	35	
Errepresentanteak	80,0	—	20,0	—	100,0	100,0	5	44,4	—	11,2	44,4	100,0	9	
Beste zerbitzutako jabeak	48,6	—	—	51,4	100,0	100,0	35	45,8	4,2	4,2	45,8	100,0	24	
Beste zerbitzutako enplegatuak	55,3	7,9	10,5	26,3	100,0	100,0	38	23,7	2,6	9,2	64,5	100,0	76	
Beste zerbitzutako obreroak	31,8	4,6	—	63,6	100,0	100,0	22	19,0	1,7	5,2	74,1	100,0	58	
Ofizioak	72,0	8,0	—	20,0	100,0	100,0	25	7,7	3,8	7,7	80,8	100,0	26	
Bizibide libreak	50,0	8,3	8,3	33,4	100,0	100,0	12	34,8	8,7	4,3	52,2	100,0	23	
Funz., Mil., Erlij., Pol.	50,0	—	—	50,0	100,0	100,0	4	26,7	—	20,0	53,3	100,0	15	
Orotara	55,4	2,5	5,1	37,0	100,0	100,0	1.023	21,2	3,3	6,7	68,8	100,0	1.046	

E - ERASKINA

EUSKERAREN EZAGUERA SEXOAREN ARAURA

	ELGOIBAR			ERRENDERIA		
	Bizibidea	Eratzasunez mintzatzen dira	Zailtasunez mintzatzen dira	Ulertzen dute	Ez dute ulertzen	Orotara
EZAGUERA MAILA						
Gizonezkoak	51,9	55,9	2,7	20,4	24,0	24,0
Emakumeak	2,3	2,7	3,1	2,3	3,1	3,1
Orotara	5,4	3,1	6,0	6,0	6,1	6,1
EZAGUERA MAILA						
Gizonezkoak	40,4	38,3	71,3	66,8	66,8	66,8
Emakumeak	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Orotara	1,371	1,355	1,360	1,440	1,440	1,440

F - ERASKINA

EUSKERAREN EZAGUERA ETA EDADEA

	ELGOIBAR					ERRENDERIA						
	Erratzasunaz mintzatzen dira	Zailtasunaz mintzatzen dira	Ulertzen dute	Ez dute ezagutzen	Orotara	Inkesta numero absolutuak	Erratzasunaz mintzatzen dira	Zailtasunaz mintzatzen dira	Ulertzen dute	Ez dute ezagutzen	Orotara	Inkesta numero absolutuok
5 urtetatik behera (1)	51,3	2,0	3,5	43,2	100,0	199	18,7	0,8	2,6	77,9	100,0	235
5-etik 9-ra	45,9	2,5	7,2	44,4	100,0	279	18,3	1,8	6,2	73,7	100,0	339
10-etik 14-era	41,6	3,3	5,5	49,6	100,0	274	19,0	3,9	6,6	70,5	100,0	258
15-etik 19-ra	44,9	4,6	9,2	41,3	100,0	218	13,5	2,9	7,2	76,4	100,0	237
20-tik 24-era	46,9	4,7	6,8	41,6	100,0	190	15,6	3,6	5,4	75,4	100,0	224
25-etik 29-ra	48,8	2,5	3,4	45,3	100,0	203	16,4	4,0	7,6	72,0	100,0	250
30-etik 34-ra	45,9	1,7	2,6	49,8	100,0	231	18,8	3,7	4,5	73,0	100,0	244
35-etik 39-ra	54,2	3,3	2,4	40,1	100,0	212	21,9	3,4	6,4	68,3	100,0	233
40-tik 44-era	52,8	1,3	3,5	42,4	100,0	231	23,1	2,0	8,6	66,3	100,0	199
45-etik 49-ra	59,8	1,0	5,3	33,9	100,0	189	33,3	3,1	8,0	55,6	100,0	162
50-etik 54-era	69,5	2,5	1,7	26,3	100,0	118	30,2	1,9	3,8	64,1	100,0	106
55-etik 59-ra	74,7	3,8	3,8	17,7	100,0	79	40,5	2,2	5,6	51,7	100,0	89
60-tik 64-era	76,6	—	—	23,4	100,0	111	39,6	1,1	8,8	50,5	100,0	91
65-etik 69-ra	74,6	—	—	25,4	100,0	67	42,5	1,9	1,9	53,7	100,0	54
70-etik 74-era	85,7	1,6	—	12,7	100,0	63	41,5	2,4	2,4	53,7	100,0	41
* 75-etik gora	85,5	1,6	—	12,9	100,0	62	52,7	—	2,6	44,7	100,0	30
Orotara	53,9	2,5	4,2	39,4	100,0	2.726	22,3	2,7	6,0	69,0	100,0	2.800

(1) Bost urtetatik beherakoan artean hitzegtzen dakitenak hartu dira bakarrik kontuan hemen; horregatik xipitu da halen numero absolutua beste edadetakoekin gonbaratuz. Hitzegtzen ez zeikitenak «mintzatzeko gauza ez direnak» izendatu dira.

G-1 ERASKINA

EUSKERAREN EZAGUERA SORLEKUAREN ARAURA

	ELGOIBAR					ERRENDERIA						
	Erratzasunaz mintzatzen dira	Zailtasunaz mintzatzen dira	Ulertzen dute	Ez dute ezagutzen	Orotara	Inkesta numero absolutuak	Erratzasunaz mintzatzen dira	Zailtasunaz mintzatzen dira	Ulertzen dute	Ez dute ezagutzen	Orotara	Inkesta numero absolutuok
Munizipio bera	70,5	3,1	4,9	21,5	100,0	1.561	33,0	4,4	7,9	54,7	100,0	1.046
Gipuzkoa	83,5	1,6	3,4	11,5	100,0	321	48,1	5,1	10,3	36,5	100,0	449
Arabara	27,3	—	13,6	59,1	100,0	22	5,6	5,6	5,6	83,2	100,0	18
Nafarroa	31,6	5,2	15,8	47,4	100,0	19	31,0	1,3	9,0	58,7	100,0	155
Bizkaia	65,2	3,6	5,3	25,9	100,0	112	31,0	3,4	17,3	48,3	100,0	29
Gazteia Zaharra	1,7	4,6	5,1	88,6	100,0	176	0,7	—	2,4	96,9	100,0	294
Gazteia Berria	4,9	—	3,3	91,8	100,0	61	—	—	—	100,0	100,0	25
Aragoi	—	—	20,0	80,0	100,0	5	—	—	—	100,0	100,0	14
Leon	1,3	1,3	—	97,4	100,0	76	—	—	0,9	99,1	100,0	229
Extremadura	—	—	1,4	97,2	100,0	73	0,4	0,4	0,8	98,4	100,0	244
Asturias	—	—	—	100,0	100,0	5	—	—	10,0	90,0	100,0	10
Galicia	2,5	—	1,7	95,8	100,0	119	—	—	2,8	97,2	100,0	143
Andalucia	1,3	—	1,3	97,4	100,0	150	—	—	0,9	98,2	100,0	104
Catalunya	—	—	—	100,0	100,0	5	—	—	—	100,0	100,0	7
Valencia	16,7	—	—	83,3	100,0	6	—	—	—	100,0	100,0	11
Murcia	—	—	—	100,0	100,0	10	—	—	—	—	—	—
Atzeritar europearrak	25,0	—	—	75,0	100,0	4	14,3	—	14,3	71,4	100,0	14
Afrikarrak	—	—	—	—	—	—	—	—	—	100,0	100,0	1
Amerikarrak	100,0	—	—	—	100,0	1	—	—	—	80,0	100,0	5
Orotara	53,9	2,5	4,2	39,4	100,0	2.726	22,3	2,7	6,0	69,0	100,0	2.798

G-2 ERASKINA

EUSKERA EZAGUTZEN DUTEN INMIGRATUEN EZAGUERA MAILA ELGOIBARREN ETA ERRENDERIAN

ELGOIBAR

EZAGUERA MAILA	Inkestatutako inmigratuen numeroa	Barne ehunekoa	Immigrante guztien ehunekoa
Erraztasunez mintzatzen dira	15	35,7	2,18
Zailtasunez mintzatzen dira	10	23,8	1,45
Uleritzen dute	17	40,5	2,47
Orotara	42	100,0	6,10
ERRENDERIA			
Erraztasunez mintzatzen dira	5	18,5	0,46
Zailtasunez mintzatzen dira	3	11,1	0,28
Uleritzen dute	19	70,4	1,76
Orotara	27	100,0	2,50
ELGOIBAR ETA ERRENDERIA			
Erraztasunez mintzatzen dira	20	29,0	1,12
Zailtasunez mintzatzen dira	13	18,8	0,72
Uleritzen dute	36	52,2	2,01
Orotara	69	100,0	3,85

G-3 ERASKINA

EUSKERA EZAGUTZERA HELDU DIREN INMIGRATU INKESTATUEN SORLEKUA

(ELGOIBAR ETA ERRENDERIAN)

SORLEKUA	ELGOIBAR			ERRENDERIA		
	Errazta- sunez mintza- tzen dira	Zailta- sunez mintza- tzen dira	Uler- tzen dute	Errazta- sunez mintza- tzen dira	Zailta- sunez mintza- tzen dira	Uler- tzen dute
Gaztela Zaharra	3	8	9	2	—	7
Gaztela Berrria	3	—	2	—	—	—
Aragoi	—	—	1	—	—	—
Leon	1	1	—	—	—	2
Extremadura	—	1	1	1	1	2
Asturias	—	—	—	—	—	1
Galizia	3	—	2	—	—	4
Andalucia	2	—	2	—	1	1
Valencia	1	—	—	—	—	—
Atzeritar eur.	1	—	—	2	—	2
Amerikarrak	1	—	—	—	1	—
Orotara	15	10	17	5	3	19

G-4 ERASKINA

EUSKERA EZAGUTZERA HELDU DIREN INMIGRATU INKESTATUEN EADADEA

(ELGOIBAR ETA ERRENDERIAN)

EADADEAK	ELGOIBAR				ERRENDERIA				
	Errazta- sunez mintza- tzen dira	Zailta- sunez mintza- tzen dira	Uler- tzen dute	Errazta- sunez mintza- tzen dira	Zailta- sunez mintza- tzen dira	Uler- tzen dute	Errazta- sunez mintza- tzen dira	Zailta- sunez mintza- tzen dira	Uler- tzen dute
5 urtetatik behera	1	—	—	—	—	—	1	—	—
5-etik 9-ra	—	—	—	—	—	—	1	—	—
10-etik 14-era	—	1	—	—	—	—	—	—	1
15-etik 19-ra	—	1	—	—	—	—	—	—	2
20-tik 24-era	1	1	—	—	—	—	1	—	5
25-etik 29-era	1	2	2	—	—	—	1	—	1
30-etik 34-era	1	2	1	—	—	—	—	—	3
35-etik 39-ra	3	—	3	—	—	—	—	—	4
40-tik 44-era	3	—	4	—	—	—	—	—	—
45-etik 49-ra	3	—	1	—	—	—	1	—	—
50-etik 54-era	—	1	1	—	—	—	—	—	1
55-etik 59-era	—	2	—	—	—	—	—	—	1
60-tik 64-era	1	—	—	—	—	—	—	—	—
65-etik 69-ra	—	—	—	—	—	—	—	—	—
70-etik 74-era	1	—	—	—	—	—	—	—	—
75-etik gora	—	—	—	—	—	—	—	—	1
Orotara	15	10	13	5	3	19	5	3	19

G-5 ERASKINA

EUSKERAREN EZAGUERA MAILA INMIGRATUEK ELGOIBAR ETA ERRENDERIAN DARAMAZKITEN URTEEN ARAURA

HERRIAN DARAMAZKITEN URTEAK	ELGOIBAR				ERRENDERIA							
	Erraztasunez mintzatzen dira	Zailtasunez mintzatzen dira	Ulerzen dute	Ez dute ezagutzen	Orotara	Inkesta numero absolutok	Erraztasunez mintzatzen dira	Zailtasunez mintzatzen dira	Ulerzen dute	Ez dute ezagutzen	Orotara	Inkesta numero absolutok
5 urtetatik behera	1,4	—	0,7	97,9	100,0	146	—	—	0,6	99,4	100,0	340
5-etik 9-ra	1,6	0,6	1,6	96,2	100,0	184	0,9	—	2,0	97,1	100,0	349
10-etik 14-era	—	1,6	0,6	97,8	100,0	185	—	—	0,6	98,8	100,0	178
15-etik 19-ra	—	—	—	100,0	100,0	96	—	—	2,1	97,9	100,0	95
20-tik 24-era	8,9	11,1	6,7	73,3	100,0	45	1,3	2,7	4,1	91,9	100,0	74
25-tik 29-ra	9,1	—	18,2	72,7	100,0	11	—	—	8,7	91,3	100,0	25
30-etik 34-era	20,0	—	10,0	70,0	100,0	10	—	—	5,0	95,0	100,0	20
35-etik 39-ra	33,4	—	33,3	33,3	100,0	3	—	—	—	100,0	100,0	3
40-tik 44-era	40,0	20,0	20,0	20,0	100,0	5	—	—	—	100,0	100,0	3
45-etik 49-ra	—	—	—	100,0	100,0	2	20,0	—	—	100,0	100,0	3
50-etik 54-era	—	—	—	—	—	—	—	—	—	80,0	100,0	5
55-etik 59-ra	—	—	—	—	—	—	—	—	—	100,0	100,0	1
60-tik 64-era	—	—	—	—	—	—	—	—	—	50,0	100,0	2
65-etik 69-ra	—	—	—	—	—	—	—	—	—	—	—	—
70-etik 74-era	—	—	—	—	—	—	—	—	—	—	—	—
75-etik gora	—	—	—	—	—	—	—	—	—	—	—	—
Orotara	2,2	1,4	1,9	94,5	100,0	687	0,5	0,3	1,7	97,5	100,0	1.096

G-6 ERASKINA

EUSKERA EZAGUERA, ELGOIBAR ETA ERRENDERIRA AILEGATZERAKOAN INMIGRATUEK ZUTEN EDADEAREN ARAURA

ELGOIBAR

ERRENDERIA

	Erraztasunez mintzatzen dira			Ulerzten dute			Ez dute ezagutzen			Orotara			Inkesta numero absolutuak		
	Ferraztasunez mintzatzen dira	Zailtasunez mintzatzen dira	Ulerzten dute	Ferraztasunez mintzatzen dira	Zailtasunez mintzatzen dira	Ulerzten dute	Ferraztasunez mintzatzen dira	Zailtasunez mintzatzen dira	Ulerzten dute	Ferraztasunez mintzatzen dira	Zailtasunez mintzatzen dira	Ulerzten dute	Inkesta numero absolutuak	Orotara	Inkesta numero absolutuak
5 urtetatik behera	8,1	4,1	2,7	85,1	100,0	74	1,9	1,0	1,9	95,2	100,0	104	100,0	104	
5-etik 9-ra	2,7	2,7	—	94,6	100,0	37	2,8	—	1,4	95,8	100,0	72	100,0	72	
10-etik 14-era	2,0	2,0	2,0	94,0	100,0	50	—	1,2	3,6	95,2	100,0	84	100,0	84	
15-etik 19-ra	—	2,3	4,5	93,2	100,0	88	—	—	1,5	98,5	100,0	130	100,0	130	
20-tik 24-era	1,3	0,6	3,9	94,2	100,0	154	—	—	1,1	99,9	100,0	184	100,0	184	
25-tik 29-ra	2,5	—	2,5	95,0	100,0	119	—	—	2,2	97,8	100,0	183	100,0	183	
30-etik 34-era	—	3,7	1,9	94,4	100,0	54	—	0,9	0,9	98,2	100,0	106	100,0	106	
35-etik 39-ra	2,4	—	—	97,6	100,0	42	—	—	3,8	96,2	100,0	78	100,0	78	
40-tik 44-era	—	—	—	100,0	100,0	28	2,3	—	2,3	95,4	100,0	44	100,0	44	
45-etik 49-ra	—	—	—	100,0	100,0	17	—	—	—	100,0	100,0	38	100,0	38	
50-etik 54-era	—	—	—	100,0	100,0	12	—	—	—	100,0	100,0	33	100,0	33	
55-etik 59-ra	—	—	—	100,0	100,0	8	—	—	—	100,0	100,0	15	100,0	15	
60-tik 64-era	—	—	—	100,0	100,0	3	—	—	—	100,0	100,0	15	100,0	15	
65-etik 69-ra	—	—	—	100,0	100,0	4	—	—	—	100,0	100,0	8	100,0	8	
70-etik 74-era	50,0	—	—	50,0	100,0	2	—	—	—	100,0	100,0	5	100,0	5	
75-etik gora	—	—	—	—	—	—	—	—	—	—	—	2	100,0	2	
Orotara	2,2	1,4	2,5	93,9	100,0	692	0,5	0,5	8,7	90,3	100,0	1.101	100,0	1.101	

H-1 ERASKINA

EUSKERAREN EZAGUERA ELGOIBARREN HAUZOEN ARAURA

HAUZOAK	Erraztasunez mintzatzen dira			Ulerzten dute			Ez dute ezagutzen			Orotara			Inkesta numero absolutuak
	Erraztasunez mintzatzen dira	Zailtasunez mintzatzen dira	Ulerzten dute	Erraztasunez mintzatzen dira	Zailtasunez mintzatzen dira	Ulerzten dute	Ez dute ezagutzen	Orotara	Inkesta numero absolutuak				
Zentroa	50,3	2,8	4,4	42,5	100,0	2.239	—	—	—	—	2.239		
Mendaro	63,5	—	—	36,5	100,0	156	—	—	—	—	156		
Alzola	53,6	—	13,1	33,3	100,0	84	—	—	—	—	84		
San Lorenzo	100,0 (1)	—	—	—	100,0	52	—	—	—	—	52		
San Miguel	100,0	—	—	—	100,0	34	—	—	—	—	34		
San Pedro	100,0	—	—	—	100,0	33	—	—	—	—	33		
San Roque	83,0	4,5	6,8	5,7	100,0	88	—	—	—	—	88		
Arriaga	74,1 (1)	—	3,7	22,2	100,0	27	—	—	—	—	27		
Urruzuno	46,2 (1)	—	—	53,8	100,0	13	—	—	—	—	13		
Orotara	53,9	2,5	4,2	39,4	100,0	2.726	—	—	—	—	2.726		

(1) Segurtasunik gabeko datoa.

H-2 ERASKINA

EUSKERAREN EZAGUERA ERRENDERIAN HAUZOEN ARAURA

HAUZOAK	Erraztasunez mintzatzen dira	Zailtasunez mintzatzen dira	Ulertzen dute	Ez dute ezagutzen	Orotara	Inkesta numero absolutuak
Zentroa	37,5	4,7	7,7	50,1	100,0	818
Casas nuevas	32,0	—	7,6	60,4	100,0	78
Iztieta	17,6	3,2	5,1	74,1	100,0	375
Ondartxo	6,6	—	7,5	85,9	100,0	106
Edicon	16,7	—	5,5	77,8	100,0	18
Alaberga	14,9	3,2	11,7	70,2	100,0	309
Galzaraborda	8,0	1,2	1,6	89,2	100,0	740
Gaztaño	37,2	3,6	8,8	50,4	100,0	137
Agustinas	35,2	—	1,1	63,7	100,0	91
Gabierrota	24,5	1,9	6,9	66,7	100,0	102
Larzabal	11,5	—	11,5	77,0	100,0	26
Orotara	22,3	2,7	6,0	69,0	100,0	2.800

I - ERASKINA

EUSKERAREN EZAGUERA ELGOIBAR ETA ERRENDERIAN ESKUALDE BASERRITAR ETA URBANOAN

ESKUALDEAK	Erraztasunez mintzatzen dira	Zailtasunez mintzatzen dira	Ulertzen dute	Ez dute ezagutzen	Orotara	Inkesta numero absolutuak
Elgoibar						
Baserritar	100,0	—	—	—	100,0	167
Erdiko	49,3	3,0	5,2	42,5	100,0	134
Urbano	51,8	2,6	4,5	41,1	100,0	2.425
Orotara	53,9	2,5	4,2	39,4	100,0	2.726
Errenderia						
Baserritar	—	—	—	—	—	—
Erdiko	30,9	2,1	5,9	61,1	100,0	337
Urbano	21,1	2,8	6,0	70,1	100,0	2.463
Orotara	22,3	2,7	6,0	69,0	100,0	2.800

Euskeraren enplegu maila

Aurrekoa bezala, kapitulu hau, inkestan sartzen diren zazpi galderatik baten analisisean oinarritzen da.

Baina aurreko galdera kualitatibo zen (euskera ezagutzen duen ala ez, ongi ala gaizki ezagutzen duen). Honek, aldiz, karakter kuantitatiboago bat du eta euskeraren egiazko erabilkuntza edo enpleguaz dihardu. Aurreko kapitulua populazio osoaz ari zen, euskera ezagutzen duenaz eta ez duenaz. Hau euskaldunez ari da soilki, haiek euskeraz hitz giten dutenaren asko edo gutiaz.

Uste dugu oso inportant dela inbestigazioaren bigarren maila hau, euskera mintzatuaren errealitateari buruzko bigarren hurbiltze hau ezartzea, zeren euskaldunen artean asko samarrek guti enplegatzen baitu hizkuntza hau eta horrela gaurdeino egin diren inbestigazioak oinarri finkorik gabe azaltzen dira, euskeraren ezaguera soilera mugartzen baitira.

Aurreko galdera bezala hizkuntzaren enpleguari buruzko gure galdera hau inkestatzen zen etxabizi-

tzako biztanle guztiez ari zen eta, beraz, ez soilik galdetua zen pertsonaz. Aurrekoaren segidan egiten zen eta horrela eta erantzun hauekin ezartzen zen:

Egunaren buruan euskeraz ala gaztelaniaz esaten duzu hitz gehiago?

- 1 — ia guztia edo guztia gaztelaniaz
- 2 — askozaz gehiago gaztelaniaz euskeraz baino
- 3 — zerbait gehiago gaztelaniaz
- 4 — berdin guti gora behera
- 5 — zerbait gehiago euskeraz gaztelaniaz baino
- 6 — askozaz gehiago euskeraz
- 7 — ia guztia edo guztia euskeraz
- 8 — ezin mintza daiteke

8 erantzuna aurreko galderako 5 erantzunean sartzen ziren pertsonen ari da: oraino hitzegiten ikasi ez duten haurrez, eta eragozpen fisiko bateren gatik ezin dezaketenez.

Hori baztertuz gero, zazpi erantzun geratzen da, erdikoa 4.a delarik (erdia euskeraz eta erdia gaztelaniaz) eta hizkuntza bataz nahiz besteaz maila berdinetan zatitzen direlarik.

Uste dugu aurreko galderok zifra daitezkeela, euskera mintzatuaren kuantifikatzeari buruz pisa daitezkeela. Pisatze hau akatsdun izanen da ezinbestean, baina halaz ere haren erabiltzeari onurakor eta baliiodun deritzagu.

4 erantzuna eman dezatenei %50a ezarriko diegu: esan nahi da delako horrek egunaren buruan

esaten dituen hitzetatik %50a euskeraz esaten duela. 1 erantzuna eman dezatenei %0a: euskeraz ez duela hitzik esaten suposatzen dugu. 7 erantzunari %100a: dena euskeraz esaten duela. Erdiko erantzunei erdiko balorek ezarriko diegu. Erdiko baloreok, guti gora behera, horrela dirateke:

Erantzunaren numeroa	Erantzuna	Enplegu hipotesisa (euskeraz esaten dituen hitzen %a)
1	ia guztia edo guztia gaztelaniaz	0
2	askozaz gehiago gaztelaniaz euskeraz baino	16
3	zerbait gehiago gaztelaniaz	33
4	berdin guti gora behera	50
5	zerbait gehiago euskeraz gaztelaniaz baino	67
6	askozaz gehiago euskeraz	84
7	guztia edo ia guztia euskeraz	100

Hipotesisok faltsu diruditeke bi ertzetan: 1 erantzunari ez dagokioke %0a, baizik %2a edo mota honetako zernahi porzentaia apal, eta 7 erantzunari ez dagokioke, halaber, %100a baizik adibidez %98a.

Halaz ere uste dugu, nahiz gure zeroa ez den zero absolutoa eta gure ehuna ehun absolutoa, egiazko porzentaia hurbilago datekeela zeroari eta ehunari beste zernahi zifrari baino. Erantzunak «ia guztia edo guztia» badio ere, egiatan «guztia» esan nahi du. «Ia guztia» hitzak sartu badira, «agur» ezik gainerako guztia gaztelaniaz esaten duten pertsonen edo

antzeko kasotan aurkitzen direnei tratamolde berezi bat ez emateko izan da, zeren euskeraren enplegu maila hori gainditzen duten pertsonak aise sartzen baitira 2 erantzunean.

Euskeraren enplegu maila honen araura, nola-bait deitzeko «euskaldun praktiko» izendatu dugun (1) konzepto bat mugatu dugu. Hortan sartzen direnak, euskeraz jakinez gainera (euskaldun = aurreko kapituluko 1 eta 2 erantzunak) egiaz hitzegiten dutenak dira, nahiz gaztelaniaz adina ez hitzegin, bai behintzat proporzio konsideragarri batez hitzegiten dutenak.

Konzepto berri honen muga adierazteko, orain analizatzen ari garen galderako 3, 4, 5, 6 eta 7 erantzunak hartuko ditugu gogoan, hots, euskera erdera baino gehiago erabiltzen duten pertsonak, bata bestea adina enplegatzen dutenak eta zerbait gehiago gaztelania erabiltzen dutenak, baina ez gaztelania euskera baino askozaz gehiago erabiltzen dutenak. Hauk «euskaldun»tzat hartuko ditugu, euskeraz mintzatzen baitakite, baina ez «euskaldun praktiko»tzat, egiaz guti erabiltzen baitute.

Enplegu hipotesisak finkatuz gero, are gehiago zehatz dezakegu, «euskaldun praktiko»ak, esan dituzten hitzen %25a edo gehiago euskeraz esaten dituztenak direla esanaz.

Dударик gabe, beste zernahi modutan defini dai-

(1) Terminoa, anbiguo delako, xar da, baina ez zaiku besterik bururatzten.

tekeen konzepto arbitrario bat da hau. Gure ustez, horrelako definiziook zerbaiterako balio dezaten, apur bat ere desitxuratu gabe analisisa erraztu eta onurakorrago bihur dezaten da inporta den gauza bakarra. Hildo honetan, «euskaldun praktiko» definizioak ba du, gure ustez, bere izate arrazoia, zerbaiti erantzuten dio egiaz, ez da %25 zifra horrekin gaizki mugaturik geratzen.

Bestalde, kalkuloak birregitea, terminoari beste esan nahi esijenteagoa edo ez hain esijentea ezartzea, gauza egin erraza da eta zenbaitetan irakurleak berak bere kabuz egin dezake, gure lanean eman diren dato berberetz.

Argi dago «euskaldun praktiko» izatea ala ez izatea ez dagoela euskaldun berberaren desiren menpean. Hobeki, gehienetan ez dago. Gehienetan areago dago euskalduna inguratzen dion ingurunearen menpean bere desiren menpean baino. Zehazki, euskaldun arteko harreman bat erderaz egiten denean, hizkuntzaz aldatzea haien desiren mende da; baina erderazko harremana euskaldun baten eta erdera besterik ez dakien baten artean gertatzen denean, erabili behar den hizkuntza ez dago haien desiren mende.

Horrela, erderaz gertatzen diren harremanetan murgildurik aurkitzen diren euskaldunak ez ditugu «euskaldun praktiko»tzat hartzen, baina gauza agiria da ez dela hori haien errua. Donostiako euskaldunen artean gehienak, adibidez, ezin daitezke, definizio hauen araura, «euskaldun praktiko» izenda,

zeren («nahi ala ez» esan genezake) gehienetan erdera erabiltzen baitute.

Argi dago zenbait kasotan —eta Euskal Herriaren herrialdetan, are aski kasotan— euskaldunak euskera erabiltzeko egiten dituen ahaleginak, elkarriketen porzentaia ez baztergarri bat hizkuntza hortara errendatzen dituela, baina hori lortzeko beharrezko da noski haren mintzakideak euskaldun daitezen.

Argi dago, halaber, ez dugula horrekin adierazi nahi «euskaldun praktikoa»ak direla euskera eragiten eta defendatzen dutenak. Hura hitzegiten jakin gabe haren alde lan egiten dutenak asko dira eta asko dira halaber hura hitzegiten jakinik, atzerrian bizi direlako, adibidez, ia inoiz erabiltzen ez dutenak.

Azkenik, eta hauzia dagoenean uzteko, «euskaldun praktikoa» perpausa, meritoaren antzeko zerbaitez eta, «euskaldun ezpraktikoa» hobenaren antzeko zerbaitez, sentsu peioratibo batez ez ditugula kargatu nahi esaten ahalegintzen gara, termino hori inor mindu gabe erabili nahi dugulako soilik. Euskera mintzatua neurtze kuantitatiboaz, analisis linguistikoa kuantitatibo batez eta ez beste zerbaitez, egungo ahozko enpleguaz eta ez honekin harremanik dukeen zernahi aspektok ari gara. Sentsu honetan, «euskaldun praktikoa» konzeptoa inestigazio kategoriatara zeharo baliodun eta gainera onurakor bat dela uste dugu.

Harira etorririk, bada, zenbat pertsonak enplegatzen du euskera Elgoibarren eta Errederian eta zein proportiotan?

Elgoibarren eta Errederian euskera erabiltzen duten pertsonen porzentaia, bari buruzko enplegu proportzioaren araura.

Enplegu proportzioa	Pertsona porzentaia	
	Elgoibar	Errederia
Guztia edo ia guztia gaztelaniaz	45,4	78,3
Askozaz gehiago gaztelaniaz euskeraz baino	5,8	5,5
Zerbait gehiago gaztelaniaz	6,6	2,2
Berdin guti gora behera	14,9	5,7
Zerbait gehiago euskeraz	7,4	2,9
Askozaz gehiago euskeraz gaztelaniaz baino	12,1	3,2
Guztia edo ia guztia euskeraz	7,8	2,2
Orotara	100,0	100,0
Inkesta numero absolutoak	2.714	2.773

Uste dugu aski interesgarri direla taulako zifrak, baina halaz ere ez dugu haietaz ezer esanen, taulan bertan ikusten baita enplegu talde bakoitzaren balore erlatiboa eta esan dezakeguna ez lizateke taulako zifren errepika baizik.

Enplegu bi talde lehenak, gaztelania bakarrik edo batez ere erabiltzen dutenak, kontuan hartzen ez baditugu, «euskaldun praktikoa»en porzentaia izanen dugu:

Elgoibarren eta Errenderian, euskaldunen eta «euskaldun praktiko»en porzentaia populazio osoari buruz.

Munizipioa	A	B	D
	Euskaldunak	«Euskaldun praktikoa»	B/A
Elgoigar	56,4	48,8	86,5
Errenderia	25,0	16,2	64,8

Elgoibarren, aurreko kapituluko % 56,4 euskaldunetatik % 48,8 da praktikoki euskaldun dena, eta Errenderian % 25,0atik % 16,2.

Honek esan nahi du, «euskaldun praktiko»ak euskaldunen % 86,5a direla Elgoibarren, eta Errenderian, % 64,8a.

Aurreko kapituluan ikusi eta birresan dugunaren antzeko zerbait nabaritzen dugu orain ere. Ikusten genuen ongi edo gaizki euskera ezagutzen duten pertsonen proportzioa goratzen zen tokietan, «superproportzionalki» (hots, proportzio linealaren gainetik) goratzen zela hura ongi ezagutzen zuen taldearen proportzioa. Hau adierazten genuen kantitaeari kalitatea jarraitzen zaiola esaten genuenean.

Bada, haren pare den eta, noski, modu berean esplikatzen den zerbait ikusten dugu orain: euskeraren enpleguaren kantitatea euskera ezagutzen ez dutenen kopuruari jarraitzen zaio, baina —berriro— ez proportzionalki, superproportzionalki baizik, proportzio linealaren gainetik.

Ez dago, beraz, proporzionaltasun direktorik eta «euskera gehiago dakiten tokian hanbatenez gehiago hitzegiten dela», baizik superproportzionaltasun direktorik bat dagoela: zerbait gehiago ezagutzen den tokian, askozaz gehiago erabiltzen da; askozaz gehiago ezagutzen den tokian guztiz gehiago erabiltzen da; zerbait gutiago ezagutzen den tokian askozaz gutiago erabiltzen da etab.

Puntua bukatzeko, euskeraren enplegua haren ezaguleen funzio oso elastiko bat dela esan genezake, hots, euskera ezagutzen duten pertsonen numeroaren gainetik xipiri, erabilkuntza praktikokoaren mailaren gainetik haundiak dagozkiola.

Era berean ikusi dugu lehenago euskeraren eza-gera mailaren elastizitatea, ezaguleen proportzioari buruz.

Ohar guzti hauetatik atera daitekeen behinbetiko ondorioa bat bakarra dateke: euskeraren bizitasuna haren ezaguera masiboak bakarrik seguratu du eta haren bizitzarako neurriak onurakorrenak, ahalik eta pertsona gehienetara hedatzen direnak dira: eskolan ezartze jenerala, alfabetatzea etab. Ez, «euskalki polit»ez hitzegitea, edo erderakadarik gabe etab. Hala-ber, hildo honetan, ez da hain beharrezko, beti hainbeste efektu egiten duen gauza bat, alegia, euskal katedraren bat edo beste jartzea.

Bada, gure analisisaren lineari jarraiturik, ikus dezagun Elgoibar eta Errenderiako populazioen banaketa euskeraren ezaguera eta enpleguaren araura.

Euskera jakin eta erabili, jakin baina ez erabili eta ez dakiten pertsonak, Elgoibarren eta Errenderian.

Euskalduntasun maila	Elgoibar	Errenderia
«Euskaldun praktikoak»	48,8	16,2
«Euskaldun ez praktikoak»	7,6	8,8
Ez euskaldunak	43,6	75,0
Orotara	100,0	100,0

Orain arte «euskaldun praktiko»ak mugatu eta kalkulatu ditugu. Kapitulu honetan asko erabiliko dugu konzepto hori, euskeraren enplegu maila (ez ezaguera maila, aurreko kapituluan ikusi baitugu hori) orduan ikusi ditugun kriterioen antzekoren araura analizatzeko.

Baina lehenik bestelako analisis bat egin dezakegu, euskera enplegatzen duten pertsonak kuantifikatu gabe, euskeraren beraren enplegua kuantifika dezana. Pertsona batek euskera denboraren erdian enplegatzen badu, kalkulo honetan «pertsona erdi» bat dugula esanen dugu, % 10a enplegatzen badu, «pertsonaren % 10a» dugula esanen dugu eta era honetan batzen badugu, ez dugu, orain arte bezala, «euskaldun praktiko»en porzentaia izanen, baizik euskeraren enplegu errearen porzentaia. Zehazkiago: Elgoibar eta Errenderian egunaren buruan esaten den 100 hitzetatik zenbat esaten den euskeraz.

Molde honetan pisatzen du 1 eraskinak «euskeraren enplegalari»en porzentaia, enplegu maila baikoitzari ezarri zaizkion enplegu mailekin.

Euskaldun porzentaia xipik asko erabiltzen du euskera eta euskaldun porzentaia haundik guti erabiltzen du: perpausa hau ez da zuzen, eta errealtatearen karikatura egiten du. Halaz ere, jartzen badugu euskeraren enplegu errearen porzentaia (% 33,5 Elgoibarren eta 11,3 Errenderian) zergatik «euskaldun praktiko»en porzentaia baino apalago den esplikatzeko jartzen da. Bestalde, «euskaldun praktiko»en porzentaia, euskaldunen porzentaia jenerala baino apalago zen.

Horrela, Elgoibarren esaten den 100 hitzetatik 33,5 euskeraz esaten da eta 66,5 gaztelaniaz, hau da, heren bat lehenengoan eta bi heren bigarrenen. Errenderian 11,3 euskeraz esaten da eta 88,7 gaztelaniaz, hau da hamarren bat eta bederatzi hamarren guti gora behera. Populazio nekazaria sartu izan bagenu, euskeraren porzentaia zerbait igoko zatekeen.

Ikusten dugu nola euskeraren ezaguera beheratuz doan, ezagutu nahi dugun euskera mintzatuaren errealtateari buruz egin ditugun hiru hurbiltzeotan:

Elgoibarren, populazioaren % 56,4a da euskaldun, % 48,8a «euskaldun praktiko», eta euskeraren enplegu erreala % 33,5ekoa.

Errenderian, populazioaren % 25,0a euskaldun da, % 16,2a «euskaldun praktiko» eta euskeraren enplegu erreala % 11,3ekoa.

Uste dugu hiru hurbiltze maila hauekin beste konzepto anbiguoagoz eta zehaztasun gutiagoz eman ohi den ikuspegia baino ikuspegi askozaz zuzen eta

interesgarriago bat lortu dugula bi herriotako euskera mintzatuaren bizitzeari buruz (2).

Berriro, betiko ondorioa atera dezakegu. Euskeraren enplegu errearen porzentaia, «euskaldun praktikoen» porzentaiez dibiditzen badugu, % 68,6a ateratzen dugu Elgoibarren eta % 69,7 Errenderian. Honek, karakter orokar bat eman nahiez gero eta nahiz porzentaion diferentzia xipi samar den, esan nahiko luke:

— euskera asko samar enplegatzen dutenen porzentaia apalago den herrietan, enplegatzen dutenen artean, asko direla guti enplegatzen dutenak, eta guti asko enplegatzen dutenak;

— aldiz, euskaldun guztiei buruz «euskaldun praktikoen» proporzioa garai den herrietan, aurrekoa gertatuz gainera, xipiago dela «euskeraren enplegu errearen» gutitzea.

Egiaz, euskera kantitate mota bakoitzak (hots, «ezagutu» eta «erabili» motak) bestearekin eta euskera kalitate mota bakoitzarekin duen lotura hain da argi, non uste baitugu euskera mintzatuaren konportamolde erregela egiazko bat bilakatzen dela.

(2) Halaz ere, nahiz gure metodologia oinarrian baliaduntzat har daitekeen, uste dugu analisisa apur bat kutsaturik dagokeela base zifretan. Ematen duten euskeraren ikuspegia errealtatekoa baino zerbait optimistago dela iruditzen zaiku. Pentsatzen dugu —nahiz uste subjektibo eta moldakatz samar den— pertsona gehienek ezagutzen duten baino euskera gehiago ezagutzen, eta egiaz erabiltzen duten baino gehiago erabiltzen dutela esateko (eta are, sinisteko) joera dutela.

Euskeraren enplegua populazioaren osotasunari buruz ikusiz gero, aurreko kapituluan egin genuen bezala, analisis berbera zehazkiago egiten hasiko gara, euskeraren enpleguaren puntua zenbait kriterioren araura taxutuz:

- A: ezaguera mailaren araura
- B: bizibidearen araura
- D: maila sozialaren araura
- E: sexoaren araura
- F: adinaren araura
- G: sorlekuaren araura
- H: hauzoaren araura
- I: etxabizitza nekazari ala urbanoaren araura.

A) EZAGUERA MAILAREN ARAURA

Pertsonaren mailan, euskera asko ala guti erabiltzea, batez ere, ongi ala gaizki ezagutzearen, giro gutiago ala gehiago euskaldun batetan bizitzearen eta, zenbaitetan, enplegatu nahi izatearen mendean dago.

2 eraskinak mostratzen dauku zein proporziotan erabiltzen duten euskera bi herriotako biztanleek, ezaguera mailaren araura.

Gaztelania soilik erabiltzen duten pertsonak, lehen enplegu mailan, «guztia edo ia guztia gaztelaniaz» mintzatzaren direnen mailan, sar daitezke bakarrik. Euskera normalki hitzegiten dutenak, aldiz, 7 enplegu mailetatik edozeinetan ager daitezke.

Elgoibarreko taulan nahiz Errenderiakoan, ikusten dugu zenbait pertsonak, ezagutzen duen euskera baino gehiago erabiltzen duela. Hori errealitatean gertatzea zail da eta eskuarki haien egoera faltso da. Hauk dira:

— euskera ezagutzen ez dutenak eta dirudienek zerbait hitzegiten dutenak (inkestatu bat Elgoibarren eta lau Errenderian).

— ulertu besterik egiten ez dutenak eta halaz ere «gaztelaniaz zerbait gehiago» mintzatzen direnak (bat Elgoibarren eta bat Errenderian).

— zailtasunez hitzegiten dutenak eta halaz ere euskeraz gaztelaniaz beste mintzatzen direnak (sei inkestatu Elgoibarren eta bi Errenderian).

Hedadura xipiko eszepziok, inkestaren erantzunetan azaltzen den borondatearen neurriaren muestra direla uste dugu.

Analisisen sartuz, herri bakoitzeko lehen kolumnak euskera guztiz ongi ezagutzen duten euskaldunak enpleguaren mailatan nola banatzen diren moztatzen dauku (3). Gorago ikusi denez, euskera guti erabiltzen duten euskaldunak (batez ere normalki hitzegiten dutenak) gehiago dira Errenderian Elgoibarren baino. Euskeraz zailtasunez mintzatzen

(3) Zifra absolutotatik atera daitezkeen porzentaia ez dira beti lehenago eman direnekin ados etorriko, zeren oinarritzko zifra absolutook zerbait aldatzen baitira. Nahiz analisis honetarako porzentaia hauetara etorri behar dugun, jeneralean gehiago balio dute aurrekoek.

direnen artean, nahiz eta ez hain nabari, diferentziak dirau, eta hurrengo taldeetan desagertu egiten da.

Hurrengo apartatueta euskeraren «enplegu porzentaia»z mintza gaitzekenean, «euskaldun praktikoko»ak / euskaldun guztiak frakzioaz ari izanen gara. Horrela, analisisa hain zehatz ez bada ere, argiago izanen da. Lana aisago egiteko, balore absolutoak dibiditu beharrean, populazio osoari buruzko porzentaia dibiditu ditugu. Noski, azkenean emaitza berberak izanen ditugu. 3 eta ondorengo eraskinak hobeki uler daitezten egiten dugu ohar hau.

Gogoratu behar dugu, halaber, aurrerantzian euskeraren enpleguaz ihardukiko dugula beti, haren ezaguera bazterturik bezala edukiz. Gerta daiteke hamar arrantzalaren artean denak euskera jakitea eta praktikan bik bakarrik erabiltzea eta hamar zapatariren artean batek bakarrik jakitea baina praktikan erabiltzea. Kaso horretan esanen dugu euskeraren enplegua apal dela arrantzaleen artean (hots, arrantzale euskaldunen artean) eta garai zapatarien artean (idem). Ohar hau inportant da, zeren kontuan hartzen ez badugu, gure zenbait perpausak bakarka harturik interpretazio zeharo erruduni bidea ireki baitezaioke.

B) BIZIBIDEAREN ARAURA

3 eraskinak dioenez, dakiten euskera gehien erabiltzen duten bizibideak, lehen sektoreko biak (nekazari eta arrantzaleak) eta hiru «saltzaileenak» (errepresentanteak, salgu jabeak eta beste zerbitzu-

ren jabeak) dira. Uste dugu gertakaria berez esplikatzen dela.

Enplegu urrikoen artean, bizibide hau aurkitzen dira: zerbitzu sektoreko bizibideak, industriako titulodun eta teknikoak, eta bizibide libreak.

D) MAILA SOZIALAREN ARAURA

Aurreko kapituluan, ea aberatsek ala pobreek ezagutzen duten gehiago euskera ikusi dugu. Orain, bidezko da ikus dezagun ea batzuek ala besteek erabiltzen duten gehiago. Irabazien araura egindako taula ez zitzaion ordenadoreari eskatu, eta haren orde, maila sozialaren araura aztertuko dugu enplegua. Hau bizibideen taulatik atera dezakegu, aurreko kapituluko A-3 eraskinean esplikatu den kriterioaz baliatuz.

*Euskeraren enplegua maila sozialaren araura
(inkesta numero absolutoak)*

Elgoibar			
Maila	A euskaldunak	B «euskaldun praktikoak»	B/A enpleguaren %a
garai	115	94	81,7
apal	478	416	87,0

Errenderia			
Maila	A euskaldunak	B «euskaldun praktikoak»	B/A enpleguaren %a
garai	46	28	60,9
apal	210	122	58,1

Esan dezakegu, ondorioz, Elgoibarren maila apala dela dakien euskera gehiago erabiltzen duena, eta Errenderian, aldiz, maila garaia dela gehiago erabiltzen duena.

Beharbada irakurleen bat harriturik geratu da teke diferentzia honetaz, baina hura gertatzea normal dela iruditzen zaiku. Elgoibarren euskera asko samar ezagutzen eta enplegatzen da eta hura ezagutzeak ez du «nabarbentzen», ez du inor goresten eta herriarengatik alztatzen, eta horregatik maila garaiak (zeinak, besteak bezala, bere interes sozialak, kaso honetan «apartetasuna» defenditzen baitu) ez du dakien euskera erabiltzeko lehia gehiegirik. Uste dugu fenomeno hori areagotuz joanen dela herria nekazariago, euskeraren ezaguleago den araura.

Errenderian alderantziz gertatzen da eta, hain zuzen, arrazoi berbera gatik. Esan daiteke han «nabarbentzen» duela euskera jakiteak, giro asko eta zaletan bederen, guti hitzegiten delako eta, ondorioz, «goresten» duelako hain zuzen. Iruditzen zaiku Bilbaon banko direktore batek ohore haundizat dukeela euskeraz hitzegitea, baserritar batek baino gehiagok axolagabeki mezpreziatzen duen bitartean.

Hizkuntzaren kotizazioa merkatuan, usoko gainerako artikulua bezala —hitzegiteko modu bat da— haren eskasiaren mende dago neurri handi batetan.

Maila apalei dagokienez ahal duten hizkuntza erabiltzen dutela esan genezake, sail honetan ere aukera ahaltasun xipiago bat dute.

E) SEXOAREN ARAURA

Euskeraren enplegua sexoaren araura

Elgoibar			
Sexoa	A euskal- dunak	B «euskaldun praktikoak»	B/A enplegu- aren %a
gizonezkoak	54,2	47,5	87,6
emakumeak	58,6	50,1	85,5

Errenderia			
Sexoa	A euskal- dunak	B «euskaldun praktikoak»	B/A enplegu- aren %a
gizonezkoak	22,7	14,8	65,2
emakumeak	27,1	17,4	64,2

Emakumeek, euskera gizonezkoek baino gehiago ezagutzen dute, baina haiek baino gutiago erabiltzen dute. Beraz, aurreko taulatik atera daitekeen lehen ondorioa, «euskeraren ezagutze haundiago bati, enplegu superproporzionalki haundiago bat dagokio» la dioen arau jenerala hausten dela da.

Maiz esaten da emakumeek gizonezkoek baino joera haundiago bat dutela euskera baztertzeko eta herri askotan mutil taldeek ohiz enplegatzen duten bitartean, neska taldeak ia gaztelaniaz bakarrik mintzatzen direla. Uste dugu gertakaria honek antza duela maila sozialari buruz aztertu denarekin: emakumea, duen egiazko libertate falta berezia gatik, gi-

zonezkoa baino lotuago dago «onartze soziala»ren, edertzearen eta apaintzearen beharkizunetara (4).

Horrela esplikatuko lizateke erabiltze diferentzia hori Elgoibarren eta are gehiago eskualde nekazariagotan.

Honen arauaz, emakumeak gizonezkoak baino euskera gehiago ezagutzen du eta gutiago erabiltzen du. Gauza biok elkarkontrako irudi dezakete, baina batera gertatzen dira eta gainera gertakaria belaunaldiz belaunaldi errepikatzen da.

Emakume delako «zoriak nahi izan du euskerak, etxeko hizkuntzak inguraturik aurki dadin». Emakume delako ere, «zoriak nahi izan du» arruntkeriatik ateratzeko gaztelaniara bultzaturik aurki dadin. Euskera, biktimak gehiago sufritzen duenean haren gan gehiago amorratzen den halabeharrezko mada-rizio baten antzeko zerbait balitz bezala.

Beste hitz batzuz, gizonezkoak hizkuntza, ofizioa, ezkongaiia edo egonlekua bezala, emakumeak baino librekiago aukeratzen du. Ez genuke dato xipi baten gainean teoria haundi bat eraiki nahi, baina, berez, adierazten dugunaren antzeko zerbait gertatzen dela

(4) Agian inori kontraesan bat irudituko zaio, euskerak ez duela Errenderiako emakumea «nabarbentzen» badiogu orain, lehenago Errenderian Elgoibarren baino gehiago «nabarbentzen» duela esan ondoren, baina zuzen. Gertatzen dena da, «nabarbentasuna» giroaren araura dagoela zeharo eta gutien «nabarbenduko» duen giroa, are Errenderia bezalako tokietan, etxeko harremanetako (hauzoa, erosketak, ahaide artea etab.) izanzen dela, hots, emakume gehienak bizi diren giroa.

dirudi. Oinarrizko informazio gehiago beharko lizateke dioguna baiezteko.

F) ADINAREN ARAURA

Euskeraren enplegua adinari buruz, 4 eraskinatik argi samar atera daitezkeen erregela batzuri jarraituz aldatzen da. Elgoibar eta Errenderiari buruzko erregelok bakoitza bere aldetik adieraziko ditugu, zeren, nahiz oinarrian erabat antzeko diren, zenbait xehe-tasun mostratzen baitute. Horrela irakurlea hobe jabe daiteke gaiaz:

Elgoibarren:

1: erabiltze urriena 15 eta 25 urteren artean aurkitzen da.

2: 25 urtetatik hasita adinean beheratuz bagoaz, etengabe goratuz doa enplegua, hume xipiren artean oso garai bihurtuz. Hori euskerari eusteko borondate herrikoia gatik eta hurrei beti euskeraz asko hitz-giten zaielako gertatzen da.

3: 25 eta 35 urteren artean enplegua haundi da. 40ren inguruan beherapen bat azaltzen da.

4: 45etatik gora eta adina goratuz doan eran, enplegua ere goratuz doa, goibehe gutirekin zahartzaro osoan maximo batetara heldu arte. Pertsona oso zaharren arteko balore garaia antz haundi du haur xipienarekin.

Errenderian:

1: erabiltze urriena 15 eta 20 urteren artean aurkitzen da.

2: 20 urtetatik hasita adinean beheratuz bagoaz, enplegua lasterki doa gora, 10 urtetatik beherako haurretan oso garai bihurtu arte.

3: 20 eta 60 urteren artean enplegua erdimailan gertatzen da, goibehe etengaberekin erdiko zifrari buruz.

4: erabiltzerik haundiena 60 eta 70 urteren artean azaltzen da, goragoko adinetan apur bat beheratuz. Pertsona zaharren arteko balore garaia antz haundi du haur tipienarekin.

Ikusten dugu, beraz, jeneralean euskeraren enpleguaren eta adinaren arteko harremana berdintsu dela bi herriotan.

Jar dezagun berriro agirian azken urteotan euskeran gertatzen ari den gorabidea. Hau haur xipietan nabarrentzen da, gehiago ezagutuz gainera gehiago erabiltzen baitute egiatan.

G) SORLEKUAREN ARAURA

I — Bertakoak eta euskeraren enplegua

5 eraskinean ikusten dugunez, inkestan azaldu diren arabar euskaldun gutiek ez dute Elgoibarren ez Errenderian ia inoiz euskera erabiltzen.

Elgoibarren erabilkuntza ordena hau da: gehienik bizkaitarrek erabiltzen dute —elgoibartarrak haien euskalkiaz mintzatzen dira—, ondoren gipuzkoarrek eta askozaz gutiago nafarrek, zeinen euskalkia urrun gertatzen baitzaie haiei.

Errenderian, aldiz, ordena hau da: gehienik gipuzkoarrek eta nafarrek (euskalki oso hurbila Errenderian) eta askozaz gutiago bizkaitarrek (euskalki urruna).

Bi herritan egin den inkesta honek eskaintzen dituen datoak nahiz tesisa finkatzeko asko ez diren, presenta dezakegu halaz ere datook berehala aditzera ematen duten hipotesisa: euskaldunarentzat, dakien euskeraren enpleguan, bere euskeraren eta bizi den tokiko euskeraren arteko hurbiltasun edo urruntasunak garrantzi handi bat du.

Pentsa beharko lizateke bizkaitar batek hizkuntza giro egoki bat dukeela elgoibartar euskaldunen artean eta gertakaria honek euskeraren erabiltzean parte haundiago bat hartzera bultzatzen duela, eta, nafar bati ez zaiola horrelakorik gertatzen. Errenderian alderantziz gertatzen dateke.

Uste dugu idea hau hasiera batetan, hipotesis bidezko eta egokitzat har daitekeela: dena dela, gure dato berberetan hura kontraesaten bide duen bi puntu aipatuko dugu:

a) nafarrak: enplegu porzentaia garaiago da Elgoibarren Errenderian baino. Baina hemen inportatua dena da lehenengoa azkena dela bere zerrendan eta bigarrena lehenengoetakoa dela berean. Axola

dena enplegu erlatiboa da, hots, herri hortan bertan beste probintzietan sortuek egiten duenarekin gonbaraturik herri berberan egiten dena. Ez dugu hemen kontuan hartu behar euskeraren enplegu porzentaia askozaz ere garaiago dela Elgoibarren Errenderian baino.

Gainera, euskalduntzat euskeraz normalki mintzatzen direnak (nekez hitzegiten dutenak baztertuz) hartuko bagenitu, eta «euskaldun praktiko»tzat euskeraz eta gaztelaniaz berdintsu mintzatzen direnak (gaztelaniaz gehiago hitzegiten dutenak baztertuz) hartuko bagenitu, zifra berberen elkargonbarazioa sentsuz aldatuko lizateke. Izan ere, suposizio honekin, nafarren enplegu porzentaia %61,9koa lizateke Errenderian eta %33,2koa bakarrik Elgoibarren, hots, aski apalago are zifra absolutotan. Honek esan nahi du Elgoibarren bizi diren nafar euskaldunak «euskaldun praktiko» konzeptoaren muga bertan daudela, ez baitute Errenderian bizi diren nafar «euskaldun praktiko»ak adina euskera erabiltzen.

b) arabarrak: gure hipotesisa egiazko balitz, Elgoibarren bizi diren arabar euskaldunek Errenderian bizi direnek baino areago enplegatu beharko lukete euskera, zeren Arabako euskera euskalkiz bizkaiera baita. Halaz ere ikusten dugu municipio biotan berdinki egiten dutela huts arabarrek. Behaztopa hau benetan egiazko da eta guk ez dakigu nola esplikatu. Gauza bat besterik ezin daiteke egin, hots, gure inkestako arabar euskaldunak oso guti direlarik, oinarritzko informazio haundiago bat dezaten

arakatze berriak gure hipotesis hau baieztatu ala ezeztatu dezaten zai egon.

II *Inmigratuak eta euskeraren enplegua*

Inmigratu euskaldunen euskeraren enpleguaren analisisak ez du lan honetan interesik, muestra hain urri izanik, etorki eskualdeari buruz legezko desberdintasunek ez lukete ezein balore errealik.

Argi nabaritzen dena da inmigratu euskaldunek gutiago erabiltzen dutela euskera hemen sortutako euskaldunek baino.

H) HAUZOAREN ARAURA

6 eraskinak euskaldunek egiten duten euskera-
ren enpleguaren porzentaia azaltzen du. Hori, beti bezala, euskaldunen osotasuna «euskaldun praktiko»ez dibidituz lortu da.

Nabarben daitekeen gauza bakarra da, beste alderi buruz lanaren gainerakoan ikusi dugun bezala, euskera gehiago ezagutzen den hauzoetan, are gehiago, proportzio linealaren gainetik, superproportzionalki erabiltzen dela.

Ba dira Errenderian erregela horri buruzko exzeptzio nabarbenak, hala nola Galtzaraborda eta Ondartxo hauzoak, non euskaldun minorantza urriak asko erabiltzen baitu bere hizkuntza. Beharbada, da-

toa muestraren urritasunari dagokio, baina pentsa daiteke ere inmigratuen inguruneari buruzko euskaldun talde xipiaren islatasunean.

I) ETXABIZITZA NEKAZARI ALA URBANOAREN ARAURA

7 eraskinak gauza bat mostrapen du, berriro eta oso klarki: euskeraren ezaguera gehitzen den lekue-
tan haren enplegua proportzio linealaren gainetik gehitzen dela.

Eraskinak

1 - ERASKINA

ENPLEGU MAILA	ELGOIBAR			ERRENDERIA	
	A enplegu hipotesisa	B perts- na %	A x B Euskeraren enplegu ondoriozkoa	D perts- na %	A x D Euskeraren enplegu ondoriozkoa
Guztia edo la guztia gaztelaniaz ...	0	45,4	—	78,3	—
Askozaz gehiago gaztelaniaz euske- raz baino	16	5,8	0,93	5,5	0,88
Zerbait gehiago gaztelaniaz	33	6,6	2,18	2,2	0,73
Guti gora behera berdin	50	14,9	7,48	5,7	2,85
Askozaz gehiago euskeraz gaztela- niaz baino	67	7,4	4,96	2,9	1,94
Askozaz gehiago euskeraz	84	12,1	10,16	3,2	2,69
Guztia edo la guztia euskeraz	100	7,8	7,80	2,2	2,20
Orotara	—	100,0	33,48	100,0	11,29

2 - ERASKINA

EUSKERAREN ENPLEGUA EZAGUERA MAILAREN ARAURA

	ELGOIBAR				ERRENDERIA			
	Erraztasunez mintzatzen dira	Zailtasunez mintzatzen dira	Urtzen dute	Ez dute ezagutzen	Erraztasunez mintzatzen dira	Zailtasunez mintzatzen dira	Urtzen dute	Ez dute ezagutzen
Guztia edo ia guztia gaztelaniaz ...	4,2	49,3	86,8	99,9	12,8	54,0	84,9	99,8
Askozaz gehiago gaztelaniaz euske- raz baino ...	8,5	29,2	12,3	0,1	15,9	36,8	14,5	0,2
Zerbait gehiago gaztelaniaz ...	11,2	12,3	0,9	—	8,2	6,6	0,6	—
Guti gora behera berdin ...	26,9	9,2	—	—	25,4	2,6	—	—
Zerbait gehiago euskeraz gaztela- niaz baino ...	13,7	—	—	—	13,3	—	—	—
Askozaz gehiago euskeraz ...	21,2	—	—	—	14,4	—	—	—
Guztia edo ia guztia euskeraz ...	14,3	—	—	—	10,0	—	—	—
Örotara ...	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Inkesta numero absolutuok ...	1.462	65	114	1.040	610	76	166	1.910

EZAGUERA MAILA

EUSKERAREN ENPLEGUA BIZIBIDIEAREN ARAURA

	ELGOIBAR				ERRENDERIA			
	Euskaldunen %a	Enpleguaren %a	Euskaldun Praktikoen %a	Bizibide Bakortzeko Inkestatuak	Euskaldunen %a	Euskaldun Praktikoen %a	Enpleguaren %a	Bizibide Bakortzeko Inkestatuak
LEHEN SEKTOREA								
Nekazari-baserritar ...	100,0	100,0	100,0	56	—	—	—	—
Nekazari-alokatua ...	—	—	—	—	—	—	—	—
Arrantzale ...	—	—	—	—	14,6	14,6	100,0	41
INDUSTRIA								
Enplegatuak	86,6	66,6	76,9	30	66,7	55,5	83,2	9
Zuzendarl eta jabeak ...	51,1	39,3	76,9	29	35,3	5,9	16,7	17
Titulodun eta teknikoak ...	68,1	54,4	79,9	68	36,1	16,9	46,8	72
Enplegatuak ...	66,7	50,0	75,0	12	15,0	10,0	66,7	20
Menpekoak ...								
Obreiroak								
Enkargatuak ...	45,4	45,4	100,0	11	27,8	11,1	39,9	18
Ofizialak ...	71,1	62,3	87,6	291	29,5	15,5	52,5	190
Peoniak eta peoniak espez. ...	30,4	26,3	86,5	286	16,6	11,6	69,9	355
Aprendizak ...	19,3	16,1	83,4	31	10,0	3,4	34,0	30
ZERBITZUAK								
Merkatariak ...	82,7	68,9	83,3	58	28,6	21,4	74,8	28
Merkataritza enplegatuak ...	66,6	33,3	50,0	9	37,1	31,4	84,6	35
Erresponenteak ...	80,0	80,0	100,0	5	44,4	30,0	67,6	9
Beste zerbitzutako jabeak ...	48,6	48,6	100,0	35	50,0	33,3	66,6	24
Beste zerbitzutako enp. ...	63,1	63,1	100,0	38	26,3	12,0	45,6	76
Beste zerbitzutako obrer. ...	36,3	31,8	87,6	22	20,7	8,7	42,0	58
Ofizioak ...	80,0	56,0	70,0	25	11,5	3,4	29,6	26
Bizibide libreak ...	58,3	33,3	57,1	12	43,5	26,1	60,0	23
Funz., Mil., Erl., Pol. ...	50,0	50,0	100,0	4	26,7	14,3	53,5	15

BIZIBIDEA

4 - ERASKINA

EUSKERAREN ENPLEGUA EDADEAREN ARAURA

EDADEAK	ELGOIBAR				ERRENDERIA				
	A Euskal- dunen %o-a	B Euskaldun praktikoan %o-a	B/A Enple- guaren %o-a	A Euskal- dunen %o-a	B Euskaldun praktikoan %o-a	B/A Enple- guaren %o-a	A Euskal- dunen %o-a	B Euskaldun praktikoan %o-a	B/A Enple- guaren %o-a
5-jurtetarik behera	53,3	49,2	92,3	19,5	15,5	79,5	19,5	15,5	79,5
5-etik 9-ra	48,4	41,5	85,7	20,1	16,3	81,1	20,1	16,3	81,1
10-etik 14-era	44,9	37,5	83,5	22,9	12,7	55,4	22,9	12,7	55,4
15-etik 19-ra	49,5	38,2	77,2	16,4	7,6	46,3	16,4	7,6	46,3
20-tik 24-era	51,6	38,4	74,4	19,2	13,3	69,3	19,2	13,3	69,3
25-etik 29-ra	51,3	46,7	91,0	20,4	11,7	57,3	20,4	11,7	57,3
30-etik 34-era	47,6	42,3	88,9	22,5	14,6	64,9	22,5	14,6	64,9
35-etik 39-ra	57,5	50,9	88,5	25,3	13,6	53,7	25,3	13,6	53,7
40-tik 44-era	54,1	45,9	84,8	25,1	16,7	66,5	25,1	16,7	66,5
45-etik 49-ra	60,8	51,8	85,2	36,4	21,1	58,0	36,4	21,1	58,0
50-etik 54-era	72,0	62,7	87,1	32,1	17,8	55,4	32,1	17,8	55,4
55-etik 59-ra	78,5	67,5	86,0	42,7	28,4	66,5	42,7	28,4	66,5
60-tik 64-era	76,6	70,9	92,5	40,7	32,6	80,1	40,7	32,6	80,1
65-etik 69-ra	74,6	70,1	94,0	44,4	35,2	79,3	44,4	35,2	79,3
70-etik 74-era	87,3	74,6	85,4	43,9	25,6	58,3	43,9	25,6	58,3
75-etik gora	87,1	83,5	95,9	52,7	36,1	68,5	52,7	36,1	68,5

5 - ERASKINA

EUSKERAREN ENPLEGUA SORLEKUAREN ARAURA

SORLEKUA	ELGOIBAR				ERRENDERIA				
	A Euskal- dunen %o-a	B Euskaldun praktikoan %o-a	B/A Enple- guaren %o-a	A Euskal- dunen %o-a	B Euskaldun praktikoan %o-a	B/A Enple- guaren %o-a	A Euskal- dunen %o-a	B Euskaldun praktikoan %o-a	B/A Enple- guaren %o-a
Munizipioa bera	73,6	64,9	88,2	37,4	22,8	61,0	37,4	22,8	61,0
Gipuzkoa	85,1	72,7	85,4	53,2	38,1	71,6	53,2	38,1	71,6
Araba	27,3	—	—	11,2	—	—	11,2	—	—
Nafarroa	36,8	26,3	71,5	32,3	21,2	65,6	32,3	21,2	65,6
Bizkaia	68,8	63,4	92,1	34,4	17,2	50,0	34,4	17,2	50,0

6 - ERASKINA

EUSKERAREN ENPLEGUA HAUZOEN ARAURA

Elgoibarreko Hauzoak	A		B		B/A		Errenderiako Hauzoak	A		B		B/A	
	Euskal- dunen %/o-a	Euskal- dunen %/o-a	Euskaldun praktikoen %/o-a	Euskaldun praktikoen %/o-a	Euskaldun praktikoen %/o-a	Euskaldun praktikoen %/o-a		Euskal- dunen %/o-a	Euskal- dunen %/o-a	Euskaldun praktikoen %/o-a	Euskaldun praktikoen %/o-a	Euskaldun praktikoen %/o-a	Euskaldun praktikoen %/o-a
Zentroa	53,1	43,5	81,9	81,9	81,9	81,9	Zentroa	42,2	29,1	29,1	29,1	68,9	
Mendaro	63,5	62,2	97,9	97,9	97,9	97,9	Casas Nuevas . . .	32,0	15,4	15,4	15,4	48,1	
Alzola	53,6	44,0	82,1	82,1	82,1	82,1	Iztieta	20,8	11,3	11,3	11,3	54,3	
San Lorenzo	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	Ondartxo	6,6	3,7	3,7	3,7	56,1	
San Miguel	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	Alaberga	18,1	7,0	7,0	7,0	38,7	
San Pedro	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	Galzaraborda ...	9,2	6,8	6,8	6,8	73,9	
San Roque	87,5	81,8	93,5	93,5	93,5	93,5	Gaztaño	40,9	33,9	33,9	33,9	82,9	
							Agustinas	35,2	30,3	30,3	30,3	86,1	
							Gabierrota	26,5	10,5	10,5	10,5	39,6	
							Larzabal	11,5	—	—	—	—	

7 - ERASKINA

EUSKERAREN ENPLEGUA ETXE MOTAREN ARAURA (BASERRITAR ALA URBANO)

ESKUALDE	ELGOIBAR						ERRENDERIA					
	A Euskal- dunen %/o-a	B Euskaldun praktikoen %/o-a	B/A Euskaldun praktikoen %/o-a	A Euskal- dunen %/o-a	B Euskaldun praktikoen %/o-a	B/A Euskaldun praktikoen %/o-a	A Euskal- dunen %/o-a	B Euskaldun praktikoen %/o-a	B/A Euskaldun praktikoen %/o-a	A Euskal- dunen %/o-a	B Euskaldun praktikoen %/o-a	B/A Euskaldun praktikoen %/o-a
Baserritar	100,0	99,4	99,4	—	—	—	—	—	—	—	—	—
Erdiko	52,2	47,3	90,6	32,9	23,3	70,8	32,9	23,3	70,8	32,9	23,3	70,8
Urbano	54,4	45,4	83,4	23,9	15,2	63,6	23,9	15,2	63,6	23,9	15,2	63,6

Jendearen iritziak
euskerari buruz

Aurreko kapituluek bi gauza objetibo neurtu nahi zuten: euskeraren ezaguera eta enplegua. Nahiz metodologiaren zenbait alderen subjektibismoa, esan genezake bi galderak «objetibo» zirela, egitatez galde-tzen zuten eta ez iritziz.

Kapitulu hau, aldiz, iritziz ari da, eta Elgoibar eta Errenderiako populazioari euskerari buruz egiten zitzaizkion bost galdera hauetan oinarritzen da:

- 1: nahi zenuke zure seme alabak eskeraz mintzatzea?
- 2: euskeraren irakaskintza eskolan sartu behar lizateke, ala ez
- 3: eskola ordutan sartu behar lizateke?
- 4: euskerazko irratsaioak ugaltu behar lirateke?
- 5: zure ustez zenbat pertsona mintzatzen da euskeraz herri honetan.

Galderok ez zitzaien familiako guztiei zuzentzen, baizik inkestatuari bakarrik. Dena dela, haren iritzia ba du gehienetan etxekoan iritziekin zerrikusirik.

Ondorioz, «inkesta numero absolutoak» hots, ja-so diren erantzunen kopurua, ezaguerari eta enpleguari buruzko galderatakoa baino xipiago izanen da. Haietan zifra maximoa Elgoibarren inkestatutako etxabizitetako 2.726 biztanleena zen, eta Errenderian kasu berebean zeuden 2.800ena. Kapitulu honetako erantzunak, aldiz, Elgoibarren inkestatu diren 617 etxabizitzei eta Errenderian inkestatu diren 663 etxabizitzei dagozkienak izanen dira gehienez.

Erantzunak zenbait kriterioren araura aztertuko ditugu, orain arte egin dugun bezala, guti gora behe-ra, inkestatuaren beraren edo familia buruaren dato giltz hauek oinarritzat hartuz.

Inkestatuaren:

a: sexoa.

b: adina. 30 urtetatik beherako inkestatuak gazte deituko ditugu, 30-60 urtetakoak adineko eta 60 urtetatik gorakoak zahar.

d: sorlekua: aurreko kapituluetan erabili den kriterio berberaz baliatuko gara.

e: euskeraren ezaguera: orain arteko lau maila berberak (normalki mintzatzen dira, zailtasunez, etab.) orain arte erabili diren bezala.

f: estudio maila; lau talde: analfabetoak, lehen, erdi edo goi irakaskintzako zerbait egin dutenak.

Familia buruaren:

g: maila soziala: garaia, direktore eta jabeak, titulodun eta teknikoak, salgu eta beste zerbitzuren

jabeak, bizibide libreak eta funtzionarioak; apala, gainerako bizibideak.

h: irabaziak: oso xipiak, familia buruak 5.000 peseta baino gutiago irabazten badu; xipiak 5.000tik 10.000 pesetetara irabazten badu; erdimailakoak, 10.000tik 15.000ra irabazten badu eta haundiak 15.000tik gorakoak.

Azken hiru kriterio klasifikatzaileetatik, lehen-dabizikoak (estudio maila) eta bigarrenak (maila soziala) puntu honetan zerrikusirik asko eta hirugarrenak (irabaziak) oso guti dutela ikusiko dugu.

Egiten ziren bost galderen eta proposatzen ziren erantzun posibleen textoa hau zen:

- 1 — nahi zenuke zure seme-alabak euskeraz mintzatzea?
 - bai
 - ez bereziki
 - mintzatzen dira
- 2 — zure ustez euskeraren irakaskintza eskolan nolabait sartu behar lizateke ala ez.
 - bai
 - ez
- 3 — Baietz erantzun baduzu, eskola ordutan sartu behar lizateke euskera, zure ustez, ala eskola ordutatik at.
 - eskola ordutan eta halabeharrez ikasle guztientzat, beste zernahi asignatura bezala.

- eskola ordutan baina ez halabeharrez, nahi ez dutenak jolasean edo ikasten geratzen direlarik.
 - eskola ordutatik at, nahi dutenen ikasleentzat.
- 4 — irrati batzuek euskerazko saioak egiten dituzte; hauek zein iritzik adierazten du hobeki zure iritzia gai honi buruz.
- irratsaio gehiago behar lizateke euskeraz.
 - ongi dago egungo proportzioa.
 - guztia gaztelaniaz eman behar lizateke.
- 5 — zure ustez zenbat pertsona mintzatzen da euskeraz herri honetan.
- ia guztiak edo guztiak
 - maiorantza nagusia
 - maiorantza, baina ez oso handia
 - guti gora bera erdia
 - erdia baino piska bat gutiago
 - erdia baino askoz gutiago
 - ia inor ez edo inor ez

EUSKERA JAKITEKO DESIRA

Inkestatuari euskeraz hitzegitea gustatuko litzaikeon galdetu beharrean, ea bere semeak hitzegitea gustatuko litzaikeon galdegiten zitzaion. Horrela gaiditzen dugu jende askok arrazoi osoz ez dela ikastera helduko, denbora faltaz planteatu ezin daite-

keen gauza bat dela, berandu dela etab. dioenean gauzatzen den eragozpena. Uste dugu galdera hori bere seme alabei buruz eginda, inkestatuari berari eginda bezain adierazkor dela gutienez.

Hiru erantzun ezarri dugu: «bai», «ez bereziki» eta «mintzatzen dira». «Ez bereziki» erantzunak «ez» soilak baino erantzun gehiago biltzen du, eta horregatik ezarri dugu era honetan. «Bai» eta «ez» erantzunetara mugatu bagina, pertsona asko bidegabeki «bai»ean sartu behar izanen genukeen: «ez dut interesik ikas dezaten, baina gustatuko zitzaidake, gustatu», «beti da hobe zerbait jakin ez jakin baino», «jakituria ez du lekurik hartzen» eta antzeko gauzak pentsatzen dituztenak. Hobe da «ez» erantzuna zabaldu, «ez bereziki» bilakatuz, erantzun mota horiek «bai»etik ateratzeko.

1 eraskinean galdera honi Elgoibarren eman zaizkion erantzunak presentatzen ditugu. Benetan tamalgarri bada ere, ezin ditzakegu Errenderiakoak ere eman, honi buruz ordenadoretik heldu zaikun taulak traskripzio huts oso nabarbenak eta zuzenezinak baitzekarzkien, eta oinarritzko kontaera birregiten denbora gehiago ez galtzeko, nahiago izan dugu delako taula baztertu.

Elgoibarreko erantzun orokarrak ematen duenez inkestatuaren %33,5ak seme alabak euskaldunak ditu, %45,2ak nahi luke hitzegin dezaten eta gainerako %19,3ak ez du hartaz interes berezirik.

Beraz, pentsa daiteke Elgoibarreko egungo populazioaren ia lau bostenak nahi duela bere seme alabak

euskeraz mintzatzen jakin dezaten. Honek berehala pentsa arazitzen dauku euskera irakaskintzan ezartzeko dagoen beharraz. Populazioaren desiretara etortzen bagara, haren falta esplikagaitz da. Hurrengo puntuan honetaz mintzatuko gara.

Bestalde, euskera jakin nahi dutenen proportzioa hain handi izateak ez du euskera irakaskintzan sar dadin bakarrik esijitzen, baizik arlo guztietan hura desarroila eta indar dezaten neurriak har ditezten, euskerari buruz gaurko politikaz zeharo bestelako bat ezarriz.

Gipuzkoako lehen irakaskintzari buruzko gure liburuan (1), galdera hau berau sartzen genuen eta langile inmigraturen artean egin zen inkesta baten ondorioak ezartzen genituen. «Ez» erantzunak (%3,7) eta «axolagabeak» (%13,3), inkestatuen %17,0a osatzen zuten. Ikusten dugunez, porzentaia hau guti gora behera orain azaldu zaikun «ez bereziki» erantzunaren %19,3aren pare da.

Dena dela, bidezko da aitortzea orduko datoa baikorregi gertatu dela, inmigratuei buruz ari baitzen soilik eta orain ikusten dugunez, haien artean euskera ezagutu nahi dutenen ehunekoa ez da 80koa, 50ekoa baizik. Emaitzaren hutsa muestraren urritasunaren, inkesta egiteko moldearen (honen batez ere, gure ustez), inkestatuen maiorantza gizonezko izatearen, etab.en ondorio zatekeen. Dena dela, datoa baikorregi zen eta populazio osoaren porzentaiaren

(1) «Así está la enseñanza primaria», Gaur 1969.

antza zuen eta ez inmigratuen multzoarenaren. Inbestigazio zabalagoei dagokie informazio guzti hauk baiezteza edo zuzentzea.

Halaz ere, puntu esenzialak zutik dirau: «Elgoibarreko populazioaren lau bostenak bere seme alabak euskeraz mintza daitezten nahi du.

Ikus ditzagun «aldeko»en eta «axolagabe»en porzentaiak kriterio desberdinen araura:

Inkestatuaren sexoarene araura: ezin daiteke diferentziarik seinala, gizonezko inkestatuen artean seme alaba euskaldun duen porzentaia haundiago bat gertatu baita, eta honek ondorioak desitxuratuko lituzke.

Adinaren araura, berdin gertatzen da. Mintzatzen direnak baztertzen baditugu, ikusten dugu gazteen %77,5a, adinekoen %69,5a eta zaharren %57,8a dela «aldeko», hots, «aldeko»en porzentaia goratuz doala adina beheratuz doan araura.

Sorlekuaren araura: bertakoen eta inmigratuen diferentzia oso da nabarben. Aurrenekoen artean «axolagabe»ak %3 dira eta bigarrenen artean ia %50. Dena dela, bi datook oso jakingarri dira: inmigratuen erdiak eta bertako iha guztiek bere seme alabak euskeraz mintza daitezten nahi dute.

Euskeraren ezagueraren araura: emaitza aurrekoaren pare da: «axolagabe»ak azkarki ugaltzen dira euskeraren ezaguera beheratzen den araura eta alderantziz. Hitzegiten dakitenen artean, «axolagabe»en ehunekoa desagertu egiten da ia, eta ezagutzen ez

duenen artean erdiak baino gehiagok bere seme alabek dezaten nahi du.

Estudio mailaren araura: inkestatuaren estudio maila apalago bati «axolagabe» porzentaia haundiago bat dagokio eta alderantziz. Arrazoi nagusia, noski, hau da : estudio maila apalago den eran inmigratuen porzentaia goratuz doa.

Familia buruaren maila sozialaren araura: «axolagabe»ak ugariago dira maila apalean garaian baino.

Familia buruaren irabazien araura: «axolagabe»ak goratuz doaz irabazi maila beheratuz doanean. Uste dugu puntu honetan eta aurrekoan influentzia bortitza duela inmigratuak bizibide apal eta irabazi gutienekoetan ugaltzeak, euskeraren ezagueraren kapituluan frogatu dugun bezala. Kasu horietan, beraz, ezin jakin daiteke datoa euskalduntasun desberdinak edo (adibidez kasu honetan) irabazi maila desberdinak esplikatzen duen. Honen ondorioz, zernahi interpretazio anbiguo eta are faltsu jazo daiteke. Anbiguitateari ihes egiteko, kriterio adierazle bakoitza islatu behar lizateke: euskaldun aberatsek diotenaz taula osoa egin, gero beste bat euskaldun pobreek diotenaz, beste bat erdaldun aberatsek diotenaz, etab., eta horrela beti kaso guztietan.

IRAKASKINTZAN EZARTZEA

Puntu inportant honetaz iharduiki genuen zerbait «Así está la enseñanza primaria» liburuan eta horregatik pasarte honetan behin baino gehiagotan hartara joko dugu.

Orduan esaten genuenez, euskera eskolan ezarri behar da. Gurea bezalako gizarte benetan bilingüe bat, ezin daiteke forman monolingüe izan, gurea den bezala. Hizkuntza batez bakarrik ematen den irakas-kintza ez da demokratiko ez pedagogiko. Liburu hartako bilinguismoari buruz esaten zenaren laburpena hau zen:

«Los alumnos de enseñanza primaria de Guipúzcoa hablan vascuence y castellano en las siguientes proporciones:

Vascuence sólo	2,7%
Vascuence bien y castellano mal ...	13,9%
Vascuence bien y castellano bien ...	17,1%
Vascuence mal y castellano bien ...	12,1%
Castellano sólo	54,2%

» En todos los países se acentúa actualmente la necesidad de la enseñanza bilingüe para aquellos lugares donde se da de hecho en la población el fenómeno del bilingüismo.»

«Hay dos motivos que piden se desarrolle la enseñanza por cauces bilingües: a) uno de orden estrictamente pedagógico: la necesidad para los vasco-parlantes de pasar de un modo progresivo, y no brusco como ahora, del vascuence al bilingüismo; b) otro de origen sociológico más general: el conocimiento generalizado del vascuence por parte de los que hablan castellano facilitaría en alto grado su comunicación con los que hablan vascuence. Ello explica el

que algo más del 50% (2) de los obreros inmigrados de Guipúzcoa desee que sus hijos sepan vascuence y que éste se enseñe en las escuelas. El actual salto brusco al castellano en las aulas de vascoparlantes produce en éstos complejos y dificultades y les hace perder uno, dos o tres años de tiempo, a juicio de la mayoría de los actuales maestros estatales de Guipúzcoa. La mayoría de ellos opinan en consecuencia que se debe dar cabida al vascuence en la enseñanza primaria y dentro del horario escolar.»

«A nuestro juicio, en las aulas de niños que hablan sólo vascuence la enseñanza debe empezar en vascuence, al cabo de unos cursos darse en ellas clases de castellano y en los últimos hacerla plenamente bilingüe, con clases dadas en ambos idiomas. De la misma forma en las aulas de los que hablan sólo castellano la enseñanza debería empezar en castellano, al cabo de algunos cursos dar clases de vascuence y en los últimos hacerla por completo bilingüe, con clases en los dos idiomas. En las aulas mixtas, con niños que hablan ambos idiomas, habría que seguir una política muy flexible, siendo imprescindible una gran autonomía en la aplicación del bilingüismo para cada pueblo y para cada maestro. En cuanto a los maestros, los dos tercios de los partidarios de introducir el vascuence opinan, como nosotros, que ello debe hacerse dentro del horario esco-

(2) %50eko porzentaia hau, lan honetatik atera da.

lar. En las Escuelas de Magisterio de las provincias vascas se debería enseñar el vascuence a la perfección como asignatura obligatoria, lo mismo que se hace actualmente en los seminarios y por las mismas razones.»

Hauk ziren orduan erabiltzen ziren idea nagusiak. Ikus dezagun orain Elgoibar eta Errenderiako populazioen egoera puntu honi buruz.

Bi galdera desberdin egin dugu: lehenik ea euskera eskolan ezarri behar den uste duten, eta bigarrenik, aurrekoari baietz erantzun diotenei, ea eskola ordutan edo ordutatik at ezarri behar lizatekeen. Ikus ditzagun banaka bi galderok. Lehendabizikoaren oinarri informazioa 2 eraskinean dago eta bigarrenarena 3 eraskinean.

Ikus ditzagun, bada, 2 eraskineko datoak.

Lehenik nabarmentzen dena Elgoibar eta Errenderiako ondorio orokarren arteko antza handia da, nahiz hitzegiten duten euskeraren kantitateari buruz dagoen diferentzia oso handi den.

Dena dela, Elgoibarren euskera iraskintzan ezartzearen aldeko zenbait gehiago dago (labur beharrez, «aldeko» deituko ditugu soilik), Errenderian baino.

Ba dirudi, bada, ba dagoela harremanen bat toki batetan hitzegiten den euskeraren kantitatearen eta bertako populazioak hartzen duen joeraren artean: zenbatenaz gehiago mintzatu, hanbatenaz aldeko gehiago. Ordea, harreman honek ez dirudi oso hertsia, hau da, ba da influentziarik baina ez haundirik.

Estudiatutako bi herrien bereizkuntzak kontuan harturik, gutienez gipuzkoarren hiru laurdenak euskera eskolan ezar dadin nahi duela pentsatzea bidezkoa da. Dato honek aparteko garrantzia duela uste dugu.

Gipuzkoako maisuak ez dira ezartzeari buruz Gipuzkoako populazioa adina aldeko mostratzen, haien arteko %62,8a baitzen aldeko eta %37,2a ezaldeko.

Araka dezagun orain zein diren Elgoibarren eta Errenderian ezartzearen aldekoak, ohizko kriterioen araura:

Inkestatuaren sexoaren araura: Elgoibarren berdin gizonezkoak eta emakumeak eta Errenderian gizonezkoak klarki aldekoago.

Adinaren araura: zenbatenaz gazteago, hanbatenaz aldekoago.

Sorlekuaren araura: bi herrietan argi mostratzen da bertakoen eta inmigratuen arteko diferentzia handia, zeren haien artean lau bostenak aldeko diren bitartean, inmigratuen artean erdia baino apur bat gehiago bakarrik baita. Irakaskintzari buruzko gure liburuan, inmigratuen artean %75,9 zela euskeraren ezartzearen aldeko eta %24,1 indeferent edo kontrako zela esaten genuen. Aurreko atalean ikusten genuen bezala, orduan ematen genituen porzentaia hauek areago dirudite populazioaren osotasunarenak populazio inmigratuarenak baino. Desberdintasun metodologikoak gatik, uste dugu seguruago dela oraingo informazioa ordukoa baino.

Euskeraren ezagueraren araura: zenbatenaz euskera gehiago jakin, hanbatenaz aldekoago.

Estudio mailaren araura: hemen ere, zenbatenaz maila garaiago, hanbatenaz aldekoago.

Familia buruaren maila sozialaren araura: Elgoibarren maila apala da aldekoago eta Errenderian maila garaia. Puntu honetan aurrekoan bezala, betiko salbuespena egiten dugu: inmigranteak estudio eta gizarte maila apalenetan dira ugariago.

Irabazien araura: ez da harreman argirik nabaritzen.

Horrenbesterekin hurrengo galderara pasa gaitezke. Galdera hau, ezartzearen formaz ari da, ea eskola ordutan edo ordutatik at eta borondatez ala halabeharrez izan behar ote duen. Euskeraren ezartzearen aldekoek bakarrik egin zitzaizen galdera hau, noski. Gogora ditzagun, lehenik, proposatzen genituen hiru erantzunak:

1 — *Eskola ordutan eta halabeharrez* ikasle guztientzat, beste zernahi asignatura bat bezala.

2 — *Eskola ordutan baina ez halabeharrez*, nahi ez dutenak jolasean edo beste zerbait estudiatzen geratzen direlarik.

3 — *Klasetik ateratzean, eskola ordutatik at, nahi duten* ikasleentzat.

Lehen ezartze moldeari «radikal» deituko diogu, bigarrenari «erdiko» eta hirugarrenari «moderatu».

Binaka batzen baditugu, lehenengoak eta bigarrenak eskola ordutan ezarri nahi dutela dute amankomunean; bigarrenak eta hirugarrenak behartzearen aurka azaltzen direla dute amankomunean.

«Así está la enseñanza primaria» liburuan (XXIII kapitulua) adierazten genuen zergatik 3 formula problema erabakitzeko klarki eskas den, ez baitu egungo egoerak ekartzen duen ezein problema konpontzen.

Elgoibarren eta Errenderian egindako inkestak, ondoko ondorio orokarrak mostratzen ditu. Ondoriook 3 eraskinetik atera ditugu eta hirugarren kolumnan Gipuzkoako maisuei dagozkienak erantzi ditugu.

Zure ustez, eskola ordutan sartu behar lizateke euskera, ala eskola ordutatik at.

Moldea	Erantzuna	Elgoibar	Errenderia	Gipuzkoako maisuak
Radikala	Eskola ordutan eta halabeharrez	39,9	27,9	67,4
Erdikoa	Eskola ordutan eta nahi duenarentzat	31,6	28,5	
Moderatua	Ordutatik at eta nahi duenarentzat	29,4	43,6	
Orotara		100,0	100,0	100,0

Euskera eskolan ezartzearen aldekoen artean, nahiago du eskola ordutan ezar dadin %70,6ak Elgoibarren, %56,4 Errenderian eta %67,4 maisuen artean.

Obligazioari bagazokio, nahiago du ezartze ez halabeharrezkoa Elgoibarko %61,0ak eta Errenderiako %72,1ak.

Beraz, Errenderiak areago jotzen du formula moderatuetara Elgoibarrek baino. Beharbada, aurreko atalean ikusi denaren antzeko fenomeno orokar bat indikatzen du honek: zenbatenaz euskeraz gutiago mintzatu, hanbatenaz formula moderatuen aldekoago. Sorlekuaren kriterioa arakatzean baieztuko da zeharo hau.

Problemari honi buruz populazioaren egoeraz ikuspegi orokar bat eman nahian, bi azken galdere-tako datoak taula batetara bilduko ditugu, euskera eskolan ezar dadin nahi ez duen populazioaren partea ere sartuz:

Euskera eskolan ezarri behar lizateke (bai ala ez) eta eskola ordutan ala eskola ordutatik at?

Moldea	Erantzuna	Elgoibar	Errenderia	Gipuzkoako maisuak
Radikala	Eskola ordutan eta halabeharrez	29,0	18,3	42,3
Erdikoa	Eskola ordutan eta nahi duenarentzat	23,5	19,7	
Moderatua	Ordutatik at eta nahi duenarentzat	21,9	30,1	
Ezekkoa	Ez ezarri	25,6	30,9	37,2
Orotara		100,0	100,0	100,0

Populazioaren multzoa hartuaz, beraz, laurden batek ez duela euskera irakaskintzan ezartzerik nahi ikusten dugu, eta beste hiru laurdenak nahi duela (3); hiru horietatik bik eskola ordutan ezarri nahi lukete eta ez at. Honela, populazio osoaren erdiak eskola ordutan ezarri nahi luke euskeraren irakaskintza.

Oso kontuan eduki behar dugu hain inportant den dato hori aztertzean populuaren sentipen esponente baten adierazpen dela, eta ez publikoki eztabaidatutako (eta horregatik zehaztasun eta ondoriotan ongi ezagututako) hauzi bat. Honen ondorioz, gure ustez hauzi hori eztabaida publiko, demokratiko eta zabalaren gai balitz, euskera eskolan ezartzearen alde daudenen porzentaia are haundiago (zihur aski asko samar gainera) izanen lizateke, batez ere eskola ordutan ezartzearen alde azaltzen direnen porzentaia.

Eta azter ditzagun 3 eraskinak presentatzen dauz-kigun kriterio desberdinak (eta dakigunez ezartzearen alde dagoen taldeari dagokiona).

Inkestatuaren sexoaren araura: Elgoibarren gizonezkoen eta emakumeen iritziek antza haundia dute eta Errenderian gizonezkoak emakumeak baino halabehartasunaren aldeago ezaltzen dira.

(3) Zati honetan porzentaia apur bat haunditu ditugu taulan azaltzen direnekin gonbaratuz, Elgoibar eta Errenderiako berezitasunak gogoan harturik Gipuzkoako multzoarentzat gutienez kalkula daitezkeen porzentaia osatuz.

Adinaren araura: Elgoibarren, gazteak demokratikoago, aukerabidearen aldeago azaltzen dira adinekoak eta zaharrak baino eta Errenderian erdi bidea dute nahiago bereziki (adin haundiagoko taldeak moderatua aukeratzen du aldiz).

Sorlekuaren araura: dudarik gabe, halabehartasunaren zaleago dira bertakoak inmigratuak baino.

Euskeraren ezagueraren araura: euskeraz hobe-kiago egiten dutenak halabehartasunaren zaleago azaltzen dira.

Estudio mailaren araura: bi herriotan argi ikusten denez, zenbatenez estudio maila garaiago, hanbatenez halabehartasunarekiko joera haundiago, eta alderantziz, zenbatenez estudio maila urriago, hanbatenez aukera zaleago.

Familia buruaren maila sozialaren araura: bi herriotan goiko mailak halabeharrezko moldearekiko joera du nola hala, eta behekoak aukeraren aldekoa.

Irabazien araura: emaitzak ez dira oso homogeneo puntu honetan, eta, beraz, komentarioa ez lizateke erraz ez adierazle.

EUSKERA ETA IRRATIA

Gogora ditzagun lehenik galderaren eta erantzunen terminoak:

«Irrati batzuek euskerazko saioak egiten dituzte; hauek zein iritzik adierazten du hobekien zure iritzia gai honi buruz?»

- irratsaio gehiago behar lizateke euskeraz
- ongi dago egungo proportzioa
- guztia gaztelaniaz eman behar lizateke.»

4 eraskinean presentatzen ditugu erantzunak. Handik aterako ditugu erantzun orokarrak.

Zure ustez, euskerazko irratsaioak ugaltu behar lirateke ala ez

<i>Erantzunak</i>	<i>Elgoibar</i>	<i>Errenderia</i>
Ugaltu	32,1	19,0
Gaurko proportzioa	61,9	71,4
Dena gaztelaniaz	6,0	9,6
Orotara	100,0	100,0

Populazioaren maiorantzak egoki deritza gaurko proportzioari, eta halaber ugaltzea desiratzen duen minorantza ere ohargarri da. Duela urte guti arte bezala dena gaztelaniaz egin dadin nahi lukeen taldea, berriz, oso urri da.

Maiorantzak gaurko proportzioa ontzat hartzeak ez du inolaz adierazten puntu honetan gaurko egoeran baratu behar dugunik, formaz nahiz kantitatez edo kalitatez. Irratiren bat euskeraz bakarrik egiten espezializa daiteke, edo populazioaren sektore guztien eskubideak errespetatu eta bete ditzan beste mila konbinazio diferent. Baina estudioaren interesa, irtenbide posibleak adieraztean gabe, populazioaren iritziak ager arazitzean datzala uste dugu, estudio bu-

lego batetatik ez baita gai honi buruzko inongo irtenbiderik atera behar.

Irratiaz galdetu den era berean, berdin egin zaitezkeen telebistaz, prensaz, zinemaz, teatroaz, hots, hizkuntzaren gaurko egoera oinarri demokratikotan finkaturik ez dagoen mila hauziz. Baina beste helburu batzutarako hasi zen inkesta honetan esin gintezkeen honelako gaitan luza eta bereziki interesgarri deritzagun zenbait galdera aukeratu behar izan dugu soilik.

Eman berri dugun taulara itzuliz, bada, euskerazko irratsaioak ugaltzearen nahi duen joera, argi ikusten denez, indartsuago da euskeraz gehiago egiten den herrian, hots, Elgoibarren.

Gorago egin diren galderei buruzko oharra biresan eta, areago, ugaltu egin behar dira hemen. Logiko da erantzunen eta gaur mintzatzen den hizkuntza erreala arteko harremana haundiago izatea galdera honetan besteetan baino, besteetan paper haundiago bat jokatzeko baitu «hizkuntza desiratu» izenda genezakeenak. Gure ustez, erantzun hauetatik lortutako ondoriak ez dira inolaz harrigarri.

Beste kasuetan bezala, emaitza parzialak ere kriterio klasifikatzaile desberdinen araura komentatuko ditugu hemen:

Inkestatuaren sexuaren araura: gizonezkoak emakumeak baino irratsaioen ugaltzearen aldekoago dira.

Adinaren araura: esan genezake eskubiko goi ertzetik ezkerreko behe ertzerako doan linea bat nagusitzen dela. Honoko joera hauk dira nabarben: gaz-

teen artean, dena gaztelaniaz ematera, adinekoen artean gaurko egoerara eta zaharren artean euskeraren ugaltzearen aldekoa. Guzti hori talde bakoitzaren euskerarekiko ezaguerarekin bat dator. Bestalde, birresan dezagun gazteak irratsaio guztiak gaztelaniaz egin daitezen aldeko agertzen direla diogunean, ez du honek esan nahi gazte horiek gazte guztien maiorantza direnik, ezta ere minorantzarik haundiena; honela, Elgoibarren gazte inkestaturen %10a dira eta Errenderian %16,8a. Esan nahi den bakarra da porzentaia horiek beste adinetako taldeen porzentaia baino haundiago direla. Logiko denez, ohar metodologiko hori lan honen multzoari dagokio.

Sorlekuaren araura: bi herrietako emaitzak gonbaratuz, antz izugarri haundiak azaltzen dira eta, beraz, ondorioak argi samar agertzen dira. Ugaltzearen aldekoek oso porzentaia haundi bat osatzen dute bertakoen artean, eta mezpreziagarri bat inmigratuen artean. Alderantziz, edo hobe, esandakoaren osagarri, irratian guztia euskeraz egin dadin nahi dutenen ehunekoa mezpreziagarri da bertakoen artean, inmigratu asko datorrelarik iritzi honetara. Halaz ere, inmigratuen artean euskera irratian onartzen dutenen jokaera da nagusi (%81), euskera desagertu dadin nahi dutenei buruz (%16).

Euskeraren ezagueraren araura: oso logiko denez, argi dago euskeraren ezagutzearen eta irratian hizkuntza hau ugaltzea nahi izatearen elkarrarremana. Normalki mintzatzen direnen artean erdiak nahi dute hori.

Estudio mailaren araura: hemen ere ondorioa oso klar da: zenbatenaz estudio maila garaiago, hanbatenaz euskera irratian ugal dadin desira haundiago. Estudio maila garaieneko taldea Elgoibarren da espezio bakarra, baina muestra xipiegi zen gure ustez ontzat hartzeko. Mota honetako hauzietan oso inportant da euskaldunen banaketa kriterio bakoitzaren araura gogoan hartzea. «Euskeraren ezaguera»ri buruzko kapituluan ikusi dugu nola goratzen den euskaldunen proportzioa irabazi eta estudio mailen araura. Esan nahi dugu, euskaldunen eta hemen jaiotakoen proportzio desberdinak areago esplikatzeko duela irabazi, maila sozial edo kultural haundiagoko pertsonak euskeraren berpiztearen alde izatea eta maila xipiagokoak berpizte honetara gutiago emanak izatea (gure datoetan hain maiz azaltzen denez) beste edozein arrazoik baino. Ezin atera daiteke hemendik —beste nonbait esan dugunez— euskera «aberratsen problema» denik.

Familia buruaren maila sozialaren araura: hemen ere oso antzeko dira bi herrietako emaitzak. Goiko mailan klarki nabarrentzen da euskerazko irratsaioen ugaltzearen aldeko joera, eta behekoan gaurko proportzioaren eustearen aldekoa (ugaltzearen aldeko den minorantza inportante alde batetara utzi gabe).

Irabazien araura: nahiz Errenderian irabazi maila igotzen den araura euskerazko irratsaioen ugaltzearen aldeko joera gorakor bat nabaritzen den nola hala, ez dirudi Elgoibarren horrelako fenomenurik

gertatzen denik, eta, jeneralean, taulak irabazi mailaren eta ugaltzearen aldeko joeraren artean elkarremanik ez dagoela pentsa arazitzen du.

EUSKALDUNEN NUMEROAREN TAXUKETA

Atal hau inkestaren euskerari buruzko azken galderaz baliatzen eta arduratzen da. Populazioaren maila desberdinen euskerarekiko «optimismoa» edo «pesimismoa» nahi genuen neurtu, hau da, bat bederaren ustez, euskeraz asko ala guti egiten den bere herrian.

Euskaldunen numeroari, multzoarekiko haien proportzioari, euskeraren egiazko enpleguari buruzko usteak izugarri subjektibo izan ohi dira eta, ondorioz, desberdin. Interesant zirudien, bada, inkesta honek ematen zuen posibilitatea probetxatzea ez bakarrik egiatan egiten den euskera neurtzeko, baizik halaber ustez mintzatzen dena ere, era honetan errealitatearen eta hari buruz dugun irudiaren desegokitasuna neurtzeko.

Zori xarrez gure datoez ez dute arazoa argitzen, edo oso argi eskas bat ematen dute bederen. Esan genezake ondorio bakarra ondorioz eza dela, behintzat oinarritzko informazioa ugala ez deino. Dena dela, ondorio horri ondorio balios samar deritzagu.

Gure galdera eta erantzunak honela ematen ziren aditzera:

Zenbat jende mintzatzen da euskeraz, zure ustez, herri honetan?

- A — ia guztiak edo guztiak
- B — maiorantza nagusia
- D — maiorantza baina ez oso handia
- E — guti gora behera erdia
- F — erdia baino piska bat gutiago
- G — erdia baino askozaz gutiago
- H — ia inor ez edo inor ez.

Zazpi erantzunok euskeraren enpleguari buruzko erantzunen antzera estrukturaturik daude eta era berberan neur ditzazkegu ere kuantitatiboki, bakoitza porzentaia hipotetiko batez hornituz: A-ri %100 dagokio, B-ri %84, D-ri %67, etab., orduan egiten zen aurara.

Ikus ditzagun Elgoibarren eta Errenderian lortutako erantzunak:

Zenbat jende mintzatzen da euskeraz, zure ustez, herri honetan

Hipotesis kuantitatiboa	Erantzuna	Elgoibar	Errenderia
100	A - ia guztiak edo guztiak	0,9	0,6
84	B - maiorantza nagusia	3,0	3,5
67	D - maiorantza baina ez oso handia	4,7	1,5
50	E - guti gora behera erdia	18,1	8,0
33	F - erdia baino piska bat gutiago	28,1	19,4
16	G - erdia baino askozaz gutiago	44,3	63,6
0	H - ia inor ez edo inor ez	0,9	3,4
	Orotara	100,0	100,0

Baina, zein erantzun har dezakegu zuzentzat herri bakoitzean? Birrikus dezagun lehenik bakoitzean ezagutzen den eta erabiltzen den euskera.

*Euskaldunen eta euskera erabiliaren porzentaia
Elgoibarren eta Errenderian*

(porzentaia bakoitza 100-i buruz neurtzen da berez)

<i>Munizipioa</i>	<i>Euskaldunak</i>	<i>«Euskaldun praktikoa»</i>	<i>Egiatzko enplegua</i>
Elgoibar	56,4	18,8	33,5
Errenderia	25,0	16,2	11,3

Hiru dato horietatik, zein hartu behar dugu erreferentziaz puntu honetan? Zeren aukeratu dugun erantzunaren araura egindako galderari erantzun desberdin bat egokituko baitzaio.

Egia esan, dudakorkiegi egin genuen geure galdera eta ondorioz, zail zaiku ontzat hartu behar dugun kriterioa aukeratzeko: «zenbat jende mintzatzen da euskeraz zure ustez...?» galderak berdin esan nahi dezake «zenbatek dakite euskeraz mintzatzen», edo «zenbat mintzatzen dira egiatan», «zenbat euskera egiten da egiatan». Iluntasun hau ez da berez xar, baina zail da inkestalariarentzat inkestatu bakoitzari xehetasun horiek esplikatzea eta zein interpretazio aukeratu dugun esatea.

Dena dela, klar da «euskaldun ez praktikoa» enplegua, zeinak euskeraz dakielarik ez baitu ia erabiltzen, ez dela soegile arruntaren aurrean euskaldun

bezala azaltzen kalean, gaztelaniaz mintzatzen baita hura, ezen ez euskeraz. Ondorioz, «egiatzko enplegua» eta «euskaldun praktikoa» enplegua porzentaiei hurbiltzen zaizkien erantzunak hartuko ditugu ontzat.

Honela, Elgoibarren E eta F erantzunak eman dituztenak har ditzazkegu asmatzailatzat, A, B, D esan dutenak optimistatzat eta G eta H eman dituztenak pesimistatzat.

Errenderian G erantzuna aukeratu dutenak dira, beraz, errealistak A, B, D, E eta F aukeratu dutenak optimistak eta H-aren aldekoak pesimistak.

Honen araura:

*Euskera erabiliar buruzko usteetan optimista, errealista eta pesimista direnen porzentaia
Elgoibarren eta Errenderian.*

<i>Mailak</i>	<i>Elgoibar</i>	<i>Errenderia</i>
Optimistak	8,6	33,0
Errealistak	46,2	63,6
Pesimistak	45,2	3,4
OROTARA	100,0	100,0

Bi herrien artean agertzen den diferentzia sakon da egiatan. Errenderian populazioaren heren bat da optimista; Elgoibarren, aldiz, ia erdia da pesimista.

Irakurleren bati bururatuko zaio, agian, gertakaria honen esplikazio egokiren bat, baina guk behintzat ilun samar deritzagu puntu honi.

Desegokitasun honen aurrean herriko jendeak ez

ote duen asmatu eta gure inkesta ez ote den errudun galde genezake. Baina inkesta desarroilatu den molde estriktoak ez dauku honelako dudarik egitera uzten. Populazioak berak eman dauzkigu zuzenki euskeraren ezaguerari eta enpleguari buruzko datoak. Eta enpleguari buruzko usteak era berean lortu baiditugu ere, lehen datoa segur eta ezagugarri da inkestatuarentzat, dudatik at dago (haren familiari buruz galdetzen baizitzaion), baina bigarrena berriz oso subjektibo da.

Pentsa dezagun era berean aurreneko kapituluan lortutako euskeraren ezaguerari eta enpleguari buruzko dedukzio guztiak (gehienak bederen) hain direla sineskor nola koherente eta hori oinarrizko informazioa on bada dela bakarrik posible.

Gure ustez, bada, gertatzen den gauza bakarra da, beraz. Elgoibarreko populazioa pesimista da hitzegiten duen euskerari buruz eta Errenderiakoa berriz optimista, nahiz guk ez dugun esplikazio egokirik aurkitzen.

5 eraskinean optimista, errealista eta pesimisten porzentaien klasifikazioa ematen dugu, ohizko kriterioen araura (sexoa, adina, sorlekua etab.).

Ez dugu ordea hemen klasifikazio horren berririk ematen, zeren irakurle orok ikus dezakeenez, datoen inkoherentzia ondorioz ateratzera ez uzteko aski haundi baita, ondorio argi eta adierazlerik bederen. Halaz ere eraskina gordetzen badugu, irakurleak berak gure esana frogatu dezan da, eta agian bere kasa ondorioren bat lor dezan.

Eraskinak

1 - ERASKINA

NAHI ZENUKE ZURE SEME-ALABAK EUSKERAZ MINTZATZEA ? (Elgoibarreko erantzunak)

Klasifikazioak	Bai	Ez bereziki	Mintzatzen dira	Orotara	Inkesta numero absolutoa
INKESTATUAREN					
Sexoa					
Gizonezkoak	38,6	15,7	45,7	100,0	70
Emakumeak	46,2	19,8	34,0	100,0	479
Edatea					
Gazteak	63,7	23,0	13,3	100,0	113
Adinekoak	43,7	19,0	37,3	100,0	378
Zaharrak	19,0	13,8	67,2	100,0	58
Sortekua					
Bertakoak	44,1	2,8	53,1	100,0	354
Inmigratuak	47,2	49,2	3,6	100,0	195
Euskeraren ezaguera					
Erraztasunez mintzatzen dira	40,1	1,3	58,6	100,0	312
Zailtasunez mintzatzen dira	64,3	—	35,7	100,0	14
Ufirtzen dute	83,4	8,3	8,3	100,0	12
Ez dute ezagutzen	49,3	47,9	2,8	100,0	211
Estudioak					
Goi irakaskintza	71,4	—	28,6	100,0	7
Bigarren irakaskintza	60,0	5,0	35,0	100,0	40

Lehen irakaskintza	43,9	19,3	36,8	100,0	465
Analfabetoak	40,6	37,8	21,6	100,0	37
FAMILIA BURUAREN								
Maila soziala								
Goi	54,7	6,6	38,7	100,0	75
Beha	43,7	21,3	35,0	100,0	474
Irabaziak								
Hautdiak	55,3	—	44,7	100,0	38
Erdikoak	46,6	19,2	34,2	100,0	146
Xipiak	45,6	21,9	32,5	100,0	228
Oso xipiak	21,2	24,2	54,6	100,0	33
Orotara	45,2	19,3	35,5	100,0	549

2 - ERASKINA

ZURE USTEZ, EUSKERAREN IRAKASKINTZA ESKOLAN NOLABAIT SARTU BEHAR LIZATEKE, ALA EZ

ELGOIBAR

ERRENDERIA

Klasifikazioak	Bai	Ez	Orotara	Inkesta numero absolutuak	Bai	Ez	Orotara	Inkesta numero absolutuak
INKESTATUAREN								
Sexoa								
Gizonezkoak	74,3	25,7	100,0	74	75,7	24,3	100,0	74
Emakumeak	74,4	25,6	100,0	503	68,2	31,8	100,0	560

Edadea								
Gazteak	72,1	27,9	100,0	118	67,5	32,5	100,0	166
Adinekoak	74,6	25,4	100,0	394	69,0	31,0	100,0	406
Zaharrak	76,9	23,1	100,0	65	74,2	25,8	100,0	62
Sortekua								
Bertakoak	87,4	12,6	100,0	374	82,8	17,2	100,0	303
Inmigratuak	50,2	49,8	100,0	203	56,5	43,5	100,0	331
Euskeraren ezagutera								
Erantzanez mintzatzen dira	88,6	11,4	100,0	342	90,8	9,2	100,0	163
Zaitasunez mintzatzen dira	—	100,0	100,0	1	87,0	13,0	100,0	23
Ufirtzen dute	91,7	8,3	100,0	12	78,0	22,0	100,0	41
Ez dute ezagutzen	51,8	48,2	100,0	222	58,5	41,5	100,0	407
Estudioak								
Goi irakaskintza	85,7	14,3	100,0	7	70,0	30,0	100,0	10
Bigarren irakaskintza	83,3	16,7	100,0	42	74,4	25,6	100,0	39
Lehen irakaskintza	74,3	25,7	100,0	487	69,4	30,6	100,0	539
Analfabetoak	63,4	36,6	100,0	41	60,9	39,1	100,0	46
FAMILIA BURUAREN								
Maila soziala								
Goi	72,2	27,8	100,0	79	74,6	25,4	100,0	67
Beha	74,7	25,3	100,0	498	67,9	32,1	100,0	499
Irabaziak								
Hautdiak	71,4	28,6	100,0	42	87,5	12,5	100,0	16
Erdikoak	77,9	22,1	100,0	149	66,4	33,6	100,0	140
Xipiak	71,9	28,1	100,0	242	68,1	31,9	100,0	320
Oso xipiak	76,3	23,7	100,0	38	56,4	43,6	100,0	55
Orotara	74,4	25,6	100,0	577	69,1	30,9	100,0	634

3 - ERASKINA

ZURE USTEZ ESKOLA ORDUTAN SARTU BEHAR LIZATEKE EUSKERA, ALA ESKOLA ORDUTATIK AT

ELGOIBAR

Klasifikazioak	Eskola ordutan eta halabeharrez	Eskola ordutan eta aukeran	Eskola ordutatik at eta aukeran	Orotara	Inkesta numero absolutuok
INKESTATUAREN					
Sexoa					
Gizonezkoak	38,2	30,9	30,9	100,0	55
Emakumeak	39,1	31,7	29,2	100,0	363
Edadea					
Gazteak	34,6	32,1	33,3	100,0	81
Adinekoak	39,9	31,6	28,5	100,0	288
Zaharrek	40,8	30,6	28,6	100,0	49
Sorlekua					
Bertakoak	45,0	30,8	24,2	100,0	322
Inmigratuak	18,7	34,4	46,9	100,0	96
Euskeraren ezaguera					
Erraztasunez mintzatzen dira	46,0	31,6	22,4	100,0	285
Zailtasunez mintzatzen dira	46,1	38,5	15,4	100,0	13
Ulertzen dute	27,3	9,1	63,6	100,0	11
Ez dute ezagutzen	21,1	33,0	45,9	100,0	109
Estudioak					
Goi irakaskintza	50,0	16,7	33,3	100,0	6
Bigarren irakaskintza	44,1	23,5	32,4	100,0	34

Lehen irakaskintza	40,1	31,9	28,0	100,0	354
Analfabetoak	12,5	41,7	45,8	100,0	24
FAMILIA BURUAREN					
Maila soziala					
Goi	42,9	30,3	26,8	100,0	56
Behe	38,4	31,8	29,8	100,0	362
Irabazitak					
Hautdiak	43,3	26,7	30,0	100,0	30
Erdikoak	38,8	37,8	23,4	100,0	111
Xipiak	33,7	32,0	34,3	100,0	169
Oso xipiak	50,0	21,4	28,6	100,0	28
Orotara	39,0	31,6	29,4	100,0	418

3 BIS - ERASKINA

ZURE USTEZ ESKOLA ORDUTAN SARTU BEHAR LIZATEKE EUSKERA, ALA ESKOLA ORDUTATIK AT

ERRENDERIA

Klasifikazioak	Eskola ordutan eta halabeharrez	Eskola ordutan eta aukeran	Eskola ordutatik at eta aukeran	Orotara	Inkesta numero absolutuok
INKESTATUAREN					
Sexoa					
Gizonezkoak	41,1	16,1	42,8	100,0	56
Emakumeak	25,9	30,4	43,7	100,0	375

Edadea									
Gazteak	26,6	37,6	35,8	100,0	109				
Adinekoak	28,6	25,0	46,4	100,0	276				
Zaharrak	26,1	28,3	45,6	100,0	46				
Sortekua									
Bertakoak	38,6	25,7	35,7	100,0	249				
Inmigratuak	13,2	32,4	54,4	100,0	182				
Euskeraren ezaguera									
Erratzasunez mintzatzen dira	43,1	23,3	33,6	100,0	146				
Zailtasunez mintzatzen dira	30,0	40,0	30,0	100,0	20				
Ulertzen dute	33,3	24,3	42,4	100,0	33				
Ez dute ezagutzen	17,2	31,5	51,3	100,0	232				
Estudioak									
Goi irakaskintza	42,9	42,9	14,2	100,0	7				
Bigarren irakaskintza	34,5	24,1	41,4	100,0	29				
Lehen irakaskintza	27,6	29,0	43,4	100,0	369				
Analfabetoak	19,2	23,1	57,7	100,0	26				
FAMILIA BURUAREN									
Maila soziala									
Goi	32,6	28,6	38,8	100,0	49				
Behe	26,5	27,7	45,8	100,0	332				
Irabaziak									
Haundiak	42,9	7,1	50,0	100,0	14				
Erdikoak	28,3	32,6	39,1	100,0	92				
Xipiak	29,1	28,2	42,7	100,0	213				
Oso xipiak	30,0	16,7	53,3	100,0	30				
Orotara	27,9	28,5	43,6	100,0	431				

4 - ERASKINA

ZURE USTEZ EUSKERAZKO IRRATSAIOAK UGALDU BEHAR LIRATEKE ALA EZ ?

Klasifikazioak	Ugaldu	Oraingo proportzioa	Guztia gaztelaniaz	Orotara	Inkesta numero absolutuak
INKESTATUAREN					
Sexoa					
Gizonezkoak	40,9	52,1	7,0	100,0	71
Emakumeak	30,8	63,3	5,9	100,0	461
Edadea					
Gazteak	38,2	51,8	10,0	100,0	110
Adinekoak	29,2	65,8	5,0	100,0	363
Zaharrak	39,0	55,9	5,1	100,0	59
Sortekua					
Bertakoak	46,5	52,4	1,1	100,0	361
Inmigratuak	1,7	81,9	16,4	100,0	171
Euskeraren ezaguera					
Erratzasunez mintzatzen dira	49,4	50,3	0,3	100,0	318
Zailtasunez mintzatzen dira	30,8	69,2	—	100,0	13
Ulertzen dute	46,2	46,2	7,6	100,0	13
Ez dute ezagutzen	2,1	81,9	16,0	100,0	188
Estudioak					
Goi irakaskintza	20,0	80,0	—	100,0	5
Bigarren irakaskintza	47,2	52,8	—	100,0	36

Klasifikazioak	Ugaldut	Oraingo proporzioa	Guztia gaztelaniaz	Orotara	Inkesta numero absolutuak
Lehen irakaskintza	32,2	62,1	5,7	100,0	457
Analfabetoak	17,6	64,8	17,6	100,0	34
FAMILIA BURUAREN					
Maita soziala					
Goi	94,8	5,2	—	100,0	77
Beha	21,6	71,4	7,0	100,0	455
Irabaziak					
Haundiak	30,5	66,7	2,8	100,0	36
Erdikoak	34,5	60,6	4,9	100,0	142
Xipiak	30,8	61,1	8,1	100,0	221
Oso xipiak	33,3	63,9	2,8	100,0	36
Orotara	32,1	61,9	6,0	100,0	532

4 BIS - ERASKINA

ZURE USTEZ EUSKERAZKO IRRATSAIOAK UGALDU BEHAR LIRATEKE ALA EZ ?

ERRENDERIA

Klasifikazioak	Ugaldut	Oraingo proporzioa	Guztia gaztelaniaz	Orotara	Inkesta numero absolutuak
INKESTATUAREN					
Sexoa					
Gizonezkoak	31,4	64,3	4,3	100,0	70
Emakumeak	17,3	72,4	10,3	100,0	536
Edadea					
Gazteak	15,5	67,7	16,8	100,0	155
Adinekoak	18,7	73,9	7,4	100,0	391
Zaharrak	30,0	65,0	5,0	100,0	60
Sortekua					
Bertakoak	37,5	60,1	2,4	100,0	288
Inmigratuak	2,2	81,8	16,0	100,0	318
Euskeraren ezagutera					
Erraztasunez mintzatzen dira	51,0	49,0	—	100,0	157
Zailtasunez mintzatzen dira	33,3	66,7	—	100,0	21
Ulertzen dute	24,4	70,7	4,9	100,0	41
Ez dute ezagutzen	4,6	80,9	14,5	100,0	387
Estudioak					
Goi irakaskintza	41,7	58,3	—	100,0	12
Bigarren irakaskintza	26,7	66,7	6,6	100,0	30
Lehen irakaskintza	18,6	72,0	9,4	100,0	521
Analfabetoak	11,6	72,1	16,3	100,0	43
FAMILIA BURUAREN					
Maita soziala					
Goi	67,8	27,4	4,8	100,0	62
Beha	17,1	72,2	10,7	100,0	475
Irabaziak					
Haundiak	25,0	75,0	—	100,0	12
Erdikoak	20,0	69,6	10,4	100,0	125
Xipiak	19,1	70,7	10,2	100,0	314
Oso xipiak	17,6	70,6	11,8	100,0	51
Orotara	19,0	71,4	9,6	100,0	606

5 - ERASKINA

ZURE USTEZ, ZENBAT PERTSONA MINTZATZEN DA EUSKERAZ HERRI HONETAN ?

ELGOIBAR

Klasifikazioak	Optimistak	Errealistak	Pesimistak	Orotara	Inkesta numero absolutuak
INKESTATUAREN					
Sexoa					
Gizonezkoak	9,0	44,9	46,1	100,0	78
Emakumeak	8,5	46,5	45,0	100,0	495
Edadea					
Gazteak	5,9	46,6	47,5	100,0	118
Adinekoak	9,0	45,6	45,4	100,0	390
Zaharrak	10,8	49,2	40,0	100,0	65
Sorlekua					
Bertakoak	7,9	49,5	42,6	100,0	380
Inmigratuak	9,8	39,9	50,3	100,0	193
Euskeraren ezaguera					
Erraztasunez mintzatzen dira	6,8	50,3	42,9	100,0	336
Zailtasunez mintzatzen dira	21,4	64,3	14,3	100,0	14
Ulertzen dute	14,3	50,0	35,7	100,0	14
Ez dute ezagutzen	10,0	38,3	51,7	100,0	209
Estudioak					
Goi irakaskintza	—	28,6	71,4	100,0	7
Bigarren irakaskintza	9,5	50,0	40,5	100,0	42

Lehen irakaskintza	8,2	46,6	45,1	100,0	485
Analfabetoak	12,8	41,0	46,2	100,0	39
FAMILIA BURUAREN					
Maita soziala					
Goi	3,5	55,3	41,2	100,0	85
Behere	9,4	44,7	45,9	100,0	488
Irabaziak					
Hautndiak	2,4	58,6	39,0	100,0	41
Erdikoak	6,6	46,7	46,7	100,0	152
Xipiak	6,7	42,9	50,4	100,0	238
Oso xipiak	8,3	58,4	33,3	100,0	36
Orotara	8,5	46,3	45,2	100,0	573

5 BIS - ERASKINA

ZURE USTEZ, ZENBAT PERTSONA MINTZATZEN DA EUSKERAZ HERRI HONETAN ?

ERRENDERIA

Klasifikazioak	Optimistak	Errealistak	Pesimistak	Orotara	Inkesta numero absolutuak
INKESTATUAREN					
Sexoa					
Gizonezkoak	18,0	76,4	5,6	100,0	72
Emakumeak	35,0	61,9	3,1	100,0	551

Edatea							
Gazteak	33,8	60,5	5,7	100,0	157		
Adinekoak	33,4	64,6	2,0	100,0	404		
Zaharrak	29,0	64,5	6,5	100,0	62		
Sorlekua							
Bertakoak	35,3	62,7	2,0	100,0	303		
Inmigratuak	30,9	64,4	4,7	100,0	320		
Euskeraren ezaguera							
Erraztasunez mintzatzen dira	42,2	56,6	1,2	100,0	166		
Zailtasunez mintzatzen dira	29,1	66,7	4,2	100,0	24		
Ufirtzen dute	21,4	73,8	4,8	100,0	42		
Ez dute ezagutzen	30,7	65,2	4,1	100,0	391		
Estudioak							
Goi irakaskintza	27,3	63,6	9,1	100,0	11		
Bigarren irakaskintza	36,9	60,5	2,6	100,0	38		
Lehen irakaskintza	32,0	65,0	3,0	100,0	531		
Analfabetoak	44,2	48,8	7,0	100,0	43		
FAMILIA BURUAREN							
Maila soziala							
Goi	39,4	59,1	1,5	100,0	66		
Behe	32,2	64,5	3,3	100,0	490		
Irabaziak							
Haundiak	31,2	—	68,8	100,0	16		
Erdikoak	35,0	64,3	0,7	100,0	137		
Xipiak	33,0	62,9	4,1	100,0	318		
Oso xipiak	28,8	66,0	6,0	100,0	50		
Orotara	33,0	63,6	3,4	100,0	623		

Pasaiari buruz gehigarria

Elgoibar eta Errenderiari buruzko lana amaitu ondoren, Pasaian gai berdinez egin genuen inkestaren datoak jaso ditugu. Lan honen publikazioa ez berandutzeko, ez dugu aurreko guztia informazio berri honez birregin. Dena dela, orain arteko ondorioak hemen ere egiaztatzen direla eta Pasaia-aren karakteristikak Errenderiaren antzeko samar direla ikusirik, egiatan ez da hura birregitea beharrezko.

Nolanahi ere, uste dugu Pasaia-ri buruzko informazioak interes gehiago ematen diola lan honi eta horregatik munizipio honi buruzko datorik garrantzitsuenak gehigarri bezala agertzea erabaki dugu.

Kapitulu honen eraskinetan taularik prinzipale-
nak agertzen dira eta Errenderia eta Elgoibarreko kideen erreferentziarekin azaltzen dira. Horrela, emaitzak gonbaratzeko lana errazten diogu irakurleari. Ikusten dugu are gehiago sinplifika behar izan genukeela lana, hiru herrien analisisa estudio bakar batetara bilduz. Zori xarrez ez dugu hori egin ahal izan.

Pasaian Errenderiaren antzeko proportzio batez eta are apur bat xipiagoz (1 eraskina) ezagutzen da euskera. %22,6 da euskaldun.

Euskaldunen eta adinaren arteko harremana ere oso da argi (2 eraskina), baina ez da beste herrietan nabaritzen genuen haur xipien inflexioa gertatzen. Haurren euskalduntasun apala Pasaiairen alde nabarben bat da.

Jakin nahi badugu Pasaian bizi direnen artean zer probintziatako diren, euskera gehiago ezagutzen dutenak (3 eraskina), ordena Errenderikoarenaren pare dela ikusten dugu, ezagutzen duten bizkaitarren proportzio garaia nabarrentzen delarik.

Euskeraren ezaguera etxabizitzaren araura puntuan (5 eraskina) ikusten dugu, Errenderian bezala, gehiago ezagutzen dela erdiko eskualdetan urbanotan baino.

Pasaiko euskaldunak %25,6a badira, «euskaldun praktiko»ak %15,5a dira (6 eraskina) eta egiazko enpleguaren porzentaia 11,75ekoa da. Lehenago esan dugunez, «egiazko enplegu porzentaia»z, ehun hitzetatik egunean euskeraz esaten direnen numeroa aditzen dugu.

Euskeraren enplegua sexoaren araura (7 eraskina) ere, Errenderiakoaren antzeko gertatzen da: ba dirudi zerbait gehiago ezagutzen dutela emakumeek eta zerbait gehiago erabiltzen dutela gizonezkoek. Dena dela, aurreko partean honi buruz emandako hipotesisei balio haundiegi bat eman gabe jarraitzen gara.

Jakin nahi badugu Pasaian bizi direnen artean zer probintzitako diren euskera gehiago erabiltzen dutenak (8 eraskina), Pasaian ere ikusten da arabar euskaldunek ez dutela enplegatzen eta bizkaitarrek nafarrek baino proportzioa apalago batez erabiltzen dutela. Beraz, «euskalkiaren urruntasun»aren hipotesisara birriutzultzen gara.

Iritzien partean sarturik, bere seme alabak euskeraz hitzegin dezaten desiratzen dutenen eta ez dutenen proportzioak (9 eraskina) Elgoibarkoenen pare dira, hitzegiten dutenak (hemen askozaz ere gutiago) alde batera uzten baditugu. Ba dirudi desira hau haundiago dela emakumeen artean, adinekoen artean, bertakoen artean eta euskeraz erdizka mintzatzen direnen artean. Maila sozialaren araurako kriterioei buruz, ez da ezein nagusigo mostratzen.

Euskera eskolan ezartzeko desira (10 eraskina) indartsuago da Pasaian Errenderian eta are Elgoibarren baino. Aldekoago dira emakumeak, adintsuak, bertakoak, euskaldunak eta, dirudienez, maila sozial garaikoak.

Ezartze honen moldeaz (11 eraskina) emaitzak Errenderiakoaren antzeko samar dira, joera moderatuen nagusigoarekin, baina eskola ordutan ezar dadin desiratzen dutenak multzo osoaren erdia baino gehiago direlarik. Beste herrietan gertatzen denaren aurka, halabehartasunaren aldeko gehiago agertzen da maila sozial apaletan.

Euskerazko irratsaioen ugaltzeari buruzko iritziak (12 eraskina) beste herriez oso bestelako dira. Pa-

saian gaurko proportzioa egokitzen dutenak askozaz gutiago dira eta asko igotzen da irratsaio horien ugaltzea desiratzen dutenen porzentaia eta areago dena erderaz eman dadin nahi dutenen porzentaia. Halaz ere, euskera irratian erabil dadin nahi dutenen porzentaia %70era heltzen da.

«Herri honetan zenbat pertsona mintzatzen da zure ustez euskeraz» puntuari buruzko taxuketa segidan mostratzen dugu:

Ia guztiak	1,3
Maiorantza nagusia	5,9
Maiorantza baina ez oso haundia	5,3
Guti gora behera erdia	12,9
Erdia baino piska bat gutiago ...	16,7
Erdia baino askozaz gutiago	43,2
Ia inor ez edo inor ez	14,7
	<hr/>
	100,0

Iritzi zuzena «erdia baino askozaz gutiago» baita, inkestatuena %42,1a da optimista Pasaian, %43,2a errealista eta %14,7a pesimista. Beraz, Errenderian bezala, optimisten minorantza inportantea, maiorantzatik urrun ez dagoena, nabarrentzen da.

Pasaiaiko 12 eraskinon azalpen labur honetan, ikusi dugu dato eta ondorio prinzipalenak Elgoibarraren eta Errenderian ikusi direnen pare direla. Dena dela, zenbait berezitasunaren analisis arduratsuago batek, jeneralean zehaztasunak direlako nabarrentzen izan nahi ez dugun diferentzia multzo bat ager araziko luke. Zehaztasun horietan gaurkoz eta lortu diren muestraz ezin daiteke ezin ondoriotan sakon.

HASTAPENAK saila:

- 0— Lehen Euskal Hiztegi Bateratua (2.000 hitz) (Ahitua).
- 0-bis — BATASUNAREN KUTXA (6.000 hitz) (Ahitua).
- 1— R. Arregi: POLITIKAREN ATARIAN (Ahitua).
- 2— J. San Martín: EUSKERAREN INGURUAN.
- 3— R. Saizarbitoria, I. Sarasola, A. Urretavizcaya: MENDEBALEKO EKONOMIAREN HISTORIA.
- 4— Joanes Leizarraga: EUSKAL PROTESTANTISMOA ZER ZEN. G. Arestik tajutua.
- 5— P. Urkizu: LITERATURA ETA KRITIKA.
- 6— A. Sagarna: SOZIOLOGIAREN HASTAPENAK.
- 7— F. Fanon: AFRIKAR IRAULTZAREN ALDE.
- 8— X. Kintana: LINGUISTIKA ORAIN ARTE.
- 9— I. Sarasola: EUSKAL LITERATURAREN HISTORIA.
- 10— GAUR, S. C. I.: EUSKERA GAUR.

Laster agertzekoa:

- M. Dobb: SOZIALISMOAREN FROGANTZAK.
 J. Barandiarán: LEHEN EUSKAL GIZONA.
 K. Marx: LAN ALOKATUA ETA KAPITALA. ALOKAIKURUA, PREZIOA ETA IRABAZIA.

LUR

hastapenak 10

